



ARZELUS ARIETA'tar
AMALE

Poxpoliña

Iratian Izlaria

Andereñoa

Idazlea

Ama

Amona

Birámona

ARZELUS AÍIETA'tar AMALE

Donostia'n 1924-02-19 / 2015-09-28

poxpoliña

antzezlaria

íratian izlaria

andereñoa

idazlea

ama

amona

biñamona...

*Gure amaren oroimenez, berari atsegin zitzaion idazkera
erabili dut berari dagozkion datuetan eta berak idatzitakoak berak
idatzi ala utzi ditut.*

*Ikusiko duzuenetz nahasketak daude askotan idazteko eran,
besteek idatzitakoak horrela utzi ditut...*

Bilbon, 2022gn otsailak 19an

Jonan Zinkunegi Arzelusek

Idazlana:

Jonan Zinkunegi Arzelus

Argazkiak:

Amalaren artxibokoak eta ezkontza ondokoak gehienak, bere senar, Andoni argazkilarienak eta azken denboraldikoak bere seme alaba eta ilobenak.

Agiriak:

Amalaren artxibotik eta bere ordenagailutik bilduak gehienak. Beste batzuek internet bidez.

Muntaketa:

Jonan

Inprimaketa:

Madrilgo GRUPO RGA PRODUCCIÓN GRÁFICA & PUBLICIDAD, S.L. inprimategian.

Eskerrak:

Liburua osatzeko ikerketetan erabili ditudanen erreferentziak eta zatika liburuxkan sartu ditudanak bertan aipatzen ditut, baina hemendik eskertu nahi diet ere, zeren eta gure amak idatzi eta kontatutakotan oinarrituta egon liburuxka gehiena, besteek idatzitako lanei esker jakin ditut gauza batzuek. Lehendabizi Amalek berak idatzi eta kontatuak eta berak gordetako paper guztiak erabili ditut noski eta osatzeko Xabier Arzelus, Inazio Mujika, Koldo Mitxelenak elkarrizketa batean esandakoak, Martin Ugaldereen "Historia de Euskadi", Koldo Ordozgoitik "euska-irratia 80 urte" lanetik, "Zer", Antzerti, Irutxulo aldizkariak eta beste aldizkari eta egunkari zahar batzuek, El Día, D.V. etab. egindako lanak ere, beste batzuen artean, erabili ditut.

Eskerrak denori.

Bigarren edizioa:

Bilbon, 2022go martxoak 19an

Amale Arzelus Arieta Toledo Zunda ren

ARBASOAK

“ARZELUS” ABIZENAREN JATORRIA

Amalaren aita, Arzelus Toledo'tar Ander, Donostian 1898-08-15ean jaio eta 1949-08-27an zendu zen.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Andrés Manuel
Abizenak:	Arcelus, Toledo
Data:	1898-08-16
Aita:	Andrés, Arcelus, Artola
Ama:	Nazaria, Toledo, Gorriti
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Parroquia Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	13º Bautismos
Folioa/Orria:	59r

Aitaren bataio agiria



Aita 1934an

“Arzelus” abizenaren jatorria Errezilen dago baina ez da agertzen jatorriz era horretan, nik aurkitutako asaba zaharrenaren bataio-agirian, 1595 ean, Pedro “Arçalluz” eran agertzen da, hau da abizena orduan idazten zen era.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Nombre:	Pedro
Apellidos:	Arçalluz, -----
Fecha:	1595-10-20
Padre:	Pedro, Arçalluz, -----
Madre:	-----, -----, -----
Observaciones:	-----
KOKAPENA	
Fondo:	San Martín de Tours, en ERREZIL
Título:	2º Bautismos
Folio/Página:	75

Hau da “Pedro Arçalluz”, aurkitutako asaba zaharrenaren bataio-agirian agertzen dena

Anderen aita, Andrés Eufemiano Arcelus Artola, jaiotzez sendi honetako lehenengo donostiarra izan zen 1876ean, honen bataio agirian “**Arcelus**” abizena agertzen da lehenengo aldiz sendi honetako bataio agiri batean, hau jatorrizko “Arçalluz”en aldaketa bat da, arrazoiak ez daude oso argi, elizetan idazleen nahasketen ondorioz izan daiteke segurki.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Andres Eufemiano
Abizenak:	Arcelus, Artola
Data:	1876-01-20
Aita:	Joaquin, Arcelus, Ondarra
Ama:	Jacinta, Artola, Gabarain
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Basilica de Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	5º Bautismos
Folia/Orria:	252v

Hemen agertzen da lehenengo aldiz "Arcelus" abizena sendi hontako bataio agiri batean 1876'an.

Ala ere ez da hau **"Arcelus"** abizena lehenengo aldiz agertzen den agiria sendi hontan, lehenago, 1840an Andres Eufemianoren aitona, (Amalaren herenaitona) **"Alexandro Arzalluz Landa"** ren ezkontzako agirian ere agertzen da, bera Errezilen jaioa zen 1813an eta 1840an Azpeitian ezkondu zen, San Sebastian de Soreasu elizan, eta agiri horretan agertzen da lehenengo aldiz **"Arcelus"** eran idatzita abizena: "Arzalluz" etik "Arcelus"era aldatzen diote abizena elizako liburuan.

Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Alexandro, Arcelus, Landa
Emaztea:	Francisca Ygnacia, Ondarra, Aramendi
Data:	1840-01-07
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Sebastián de Soreasu, en AZPEITIA
Izenburua:	8º Matrimonios
Folia/Orria:	250 rº

Gure sendian lehenengo aldiz "Arcelus" Azpeitian agertzen da 1840an.

Horren ondoren nahasketa ugari dago: bere semeak Azpeitian jaio ziren eta beren bataio-agiritan **Arzallus-Ondarra"** eran agertzen dira.

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Jose Joaquín María
Abizenak:	Arzallus, Ondarra
Data:	1845-10-09
Aita:	Alexandro, Arzallus, Landa
Ama:	Francisca Ygnacia, Ondarra, Aramendi
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Sebastián de Soreasu, en AZPEITIA
Izenburua:	15º Bautismos
Folia/Orria:	21 vº

Donostira bizitzera joan zen lehenengo "Arzelustarra". Amalaren birraitona

Honen semea, **Jose Joaquin Maria “Arzallus-Ondarra”** izan zen sendi honetan Donostiara bizitzera joan zen lehenengoa, bertan 1870-07-04’an ezkondu zen Artola Gabaraindar Josefa Jacinta rekin Santa Maria elizan eta bere abizenak ezkontzako agirian ere aldatu zizkioten eta **“Arzallur-Ondarza”** agertzen da.

Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Jose Joaquin Maria, Arzallur, Ondarza
Emaztea:	Josefa Jacinta, Artola, Gabarain
Data:	1870-07-04
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	3º Matrimonios
Foliao/Orria:	146 vº

Arzelustarren sendiko Donostiako lehen ezkontza-agirian “Arzallur” agertzen da



1870 ean ezkontza argazkian

Hemendik aurrera, hauen semeen bataio-agirietan lehenengo aldiz “Arcelus” abizena agertzen da, adibidez Andres Eufemiano, Amalaren aitona.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Andres Eufemiano
Abizenak:	Arcelus, Artola
Data:	1876-01-20
Aita:	Joaquin, Arcelus, Ondarra
Ama:	Jacinta, Artola, Gabarain
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Basilica de Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	5º Bautismos
Foliao/Orria:	252v


Lehenengo aldiz “Arcelus” hemen agertzen da Amalaren sendiko bataio-agiri batean 1876’an.

Andres Eufemianoren ondorengoek “Arcelus” erabiltzen jarraitu dute, grafia ezberdinekin adarraren arabera: “Arcelus” “Arzelus” edota “Artzelus”, baino Andresen anaien batek behintzat berraldatu zuen “Arzallus”era eta horrela erabiltzen jarraitu dute adar horretako ondorengoak.

Andres Eufemiano, Amalaren aitona, 1897-10-07an, Toledo Gorrititar Nazarirekin ezkondu zen Donostian, San Ignazio elizan.

Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Andre Eufemiano, Arcelus, Artola
Emaztea:	Nazaria , Toledo, Gorriti
Data:	1897-10-07
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Ignació de Loyola, DONOSTIA
Izenburua:	1º Matrimonios
Foliao/Orria:	138 rº

Andres Eufemiano eta Nazariren ezkontza-agiria 1897an



“TOLEDO” ABIZENAREN JATORRIA

Toledo Gorriti'tar Nazari, Amalaren amona izan zen, Donostian jaioa 1879-08-04an. Bere aita, Toledo Aramburu'tar Rufino Astigarragarra zen eta ama, Gorriti Muguerza'tar Victoriana Zumaiarra.

Hauek 1861ean Bittoriren herrian, Zumaian ezkondu eta Donostian bizi izan ziran, bertan jaio zen Nazari.

Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Jose Joaquin Maria, Arzallur, Ondarza
Emaztea:	Josefa Jacinta, Artola, Gabarain
Data:	1870-07-04
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	3º Matrimonios
Folia/Orria:	146 vº

Amalaren aitaren amaren aldeko birraitona-amonak

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Nazaria
Abizenak:	Toledo, Gorriti
Data:	1876-08-04
Aita:	Rufino, Toledo, Aramburu
Ama:	Victoriana, Gorriti, Muguerza
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Vicente Mártir, en DONOSTIA
Izenburua:	16º Bautismos

Amalaren Amona aitaren aldetik

Oso atzerantz joan behar da “Toledo” abizenaren jatorriaren berri izateko, 11 belaunaldi atzerago, hor aurkitzen ditugu 1616 eta 1618an bi “Juan Toledo” izenarekin Amezketa, “Toledo auzoan”. Gaur egun hor jarraitzen dute hiru baserriak, Toledo “bitartea”, “goena” eta “saletxea”, bi, berriztatuta eta bat berriztatze lanetan hari ziren 2012an.

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Juan
Abizenak:	Toledo barrena, Aguirre
Data:	1618-02-02
Aita:	Juan, Toledo barrena, -----
Ama:	Catalina, Aguirre, -----
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Bartolomé, en AMEZKETA
Izenburua:	1ºB Bautismos
Folia/Orria:	13 rº

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Juan Lopez
Abizenak:	Toledo, Aguirre
Data:	1616-11-06
Aita:	Martin, Toledo, -----
Ama:	Maria, Aguirre, -----
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Bartolomé, en AMEZKETA
Izenburua:	1ºB Bautismos
Folia/Orria:	11 rº

Ez dakit ziur zein izango zen hauetan sendikoen asaba, baina bietakoren bat izango zen segurua.



Toledo bitartea 2012an



Toledo Saletxea" berriztatze lanetan, atzean "Goena"ren tehilatua zatia, 2012'an

Hauen ondorengoak Amezketatik kanporatu ziren eta Abaltzisketa, Hernani eta Astigarragatik pasata Rufino 1861an Donostian ezkondu zen eta alde zaharrean jarraitu zuen bizitza, bertan izan zuten sendia eta 1864ean Nazari, Amalaren amona jaio zen.

1996an bere lehengusu Dunixik hau bidali zion Amaleri:

Nere aitak egunkari zati batean, artikulu au zeukan moztuta. Ze egunkaria zen? Ze egunetakoa?

Ori pixka bat argitzeko artikulu onen atzean azaltzen dira pelota partidu batzuk eta bat, adiezagarrria izan liteke "El domingo, en el Gros.- A las once de la mañana. Semifinal nacional manomanista: Acarregui contra Arriarán, sacando ambos libremente."...

Irun-en 1996ko Apirillaren 21ean

Dunixi Arcelus Sagardia Toledo

(Dharra: Acarreguik hiru final jokatu zituen, 1946, 1950, 1951n, etzuen batere irabazi eta Arriaranek berriz 4 final jokatu zituen bi irabaziaz, 1955 eta 1956an eta bigarren gelditu zen 1957 eta 1958an. Beraz datu horien arabera, 1955 urtea aldera izango zen egunkari horren data g.g.b.)



Nazari Toledo Gorriti
1876-08-04 / 1931-06-25

¿ Es vasco el apellido Toledo?

Consulta. --- Desde Bilbao, Javier Goena pregunta: "¿Es vasco o no el apellido Toledo"?

Respuesta. --- De suyo, a primera vista, no parece vasco, aunque lo sean, sin duda alguna, los que llevan este apellido en nuestro país. De todas suertes, en el "Nomenclator de la provincia de Guipúzcoa" editado hacia el año 1864, se puede ver que en Guipúzcoa existen los siguientes caseríos de nombre "Toledo": dos en San Sebastián, los llamados "Toledo-bea" y "Toledo-goya". Y tres caseríos más en Amézqueta: "Toledo-bitartea", "Toledo-goena" y "Toledo-salechea".

A veces se dan en Guipúzcoa nombres que no parecen originarios del país para designar caseríos: en Régil tenemos un caserío "Portugal"; en Zumaya y en Alza existen los caseríos que se llaman "Miravalles"; hay un "Montefrío" en Hernani; un "Babilonia", un "Burgos" y un "Fortaleza", en Oyarzun. El nombre Guerra es también bastante frecuente, aunque parece demostrado que es una corrupción de Aguerre, de Aguirre.

De cualquier forma que sea, el apellido Toledo es corriente y muy usado en Guipúzcoa. Tal vez el "Seminario de Lenguas pre-románicas", que se reúne en la Diputación de Guipúzcoa, llegue con el tiempo a descomponer la raíz de este apellido, penetrando también las variaciones fonéticas que al cabo de los tiempos haya podido experimentar esa voz. Porque pocos, por ejemplo, y los casos podrían multiplicarse, reconocen el Enciso en Anzizu, el apellido Xabier en el Echeverría originario, el Narváez en Narbaiza, el Idiáquez en Idiakaiz.

Los Toledo de Amézqueta probaron su hidalguía en aquella misma villa a mediados del siglo XVII, lo cual indica, normalmente, que desde mucho tiempo atrás vivían Toledos en Amézqueta. La mayoría de los Toledo que hay en Guipúzcoa proceden de aquella villa, y, por lo tanto, pueden preciarse de su viejísima raigambre guipuzcoana. La casa Toledo, de Amézqueta, tiene escudo. Es de sinople, es decir, verde, con un castillo de plata.

ARRIETA ZUNDA'tar AMALIA (1900-01-26/1983-04-06)

Amalia, Amaleren ama donostiarra zen jaiotzez 1900-01-26an, naiz eta bere arbasoak nafarrak izan.

Bere aita, Telmo Arrieta Aldabe, Iruñean jaioa zen. Atzerantz jarraituz Añorbe herrira iritsi naiz oraingoz.

Ama, Teresa Zunda Herradonea, Iturenen Jaioa zen, bere aita Sunbillatarra eta ama Erasundarra ziran.

Amaliaren ama Teresa bera txikia zela hil zen eta bere aita eta haren amarekin hezitu zen eta haiek etzuten euskera, ez menperatzen ezta maite ere, beraz berak Anderrekin harremanak izan arte etzuen ikasterik izan eta geroztik, naiz eta bera maistra izan, etzuen euskera menperatu bere bizi guztian, naiz eta horretan saiatu, eta bere seme alabei etxean euskeran egin arazi bizi guztian.

Biloberi txikitan euskeraz egiten zigun baina handitzerakoan berarekin erdaraz egiten genuen, baino bere aurrean, bera zegoelako, etzen erdaraz egin beharrik gure artean, beti euskeraz egiten genuen.

4 seme alaba izan zituzten, Amale, Itziar, Ander eta Iñaki.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Amalia Paula
Abizenak:	Arrieta, Zunda
Data:	1900-01-28
Aita:	Telmo, Arrieta, Aldabe
Ama:	Teresa, Zunda, Herradorena
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Buen Pastor, en DONOSTIA
Izenburua:	5º Bautismos
Folia/Orria:	6 vº

Amaleren ama, Amalia Paularen bataio agiria



Amaleren gurasoak, Ander eta Amalia Donostian, Artzai onaren parrokiari, 1923'go urtarrilaren 26an ezkondu ziren.

ARZELUS ARIETA'tar AMALE (1924-02-19/2015-09-28)

Donostian jaio zen, Hondarribia kalean 23an, Arzelus Toledo'tar Ander eta Arrieta Zunda'tar Amaliaren gandik 1924-02-19an. Lau neba-arreben artean lehenengoa izan zen, ondoren bere ahizpa Itziar eta Ander eta Iñaki nebak jarraitu zioten sendia osatzen.



Amale hilabete batekin bere aita eta amaren besoetan



2 hilabeteekin, ama, Carmen eta Felisa izebekin



Urte batekin



2 urteekin

IKASKETAK

Hiru urte zituela hasi zituen bere lehenengo ikasketak Donostiako "Arantzazuko Ama" ikastolan, Etxaide kalean, Bertan bere izeba, aitaren arreba Bitorene zen bi andereñoetako bat, geroago alde zaharreko Juan de Bilbao kalean ere izan ziren, M^a D. Goya ere sartu zen 1932an, baita ere Elbira Zipitria, guda ondoren "lehenengo andereñoa" izango zena. Zortzi urterekin "Villa Belen" ikastetxean jarraitu zituen ikasketak, hemen gaztelaniaz noski, guda hasi artean, berak 12 urte zituelarik.

Ikasle yayoa izan zen, bere notak beti 10 ekoak izaten zirela esaten zuen, ondo gogoratzen zuen behin batean atsekabe handia izan zuela "notable" bat jaso zuenean.

Guda iritsi zenean iparraldera ihesi zuten eta bertan behera gelditu ziren bere ikasketa asmoak, bere bizi guztian kezkatuta izan zen horrengatik, beti bere nahi handiena ikastea izan zen baina ezin izan zuen ikasketa "ofizialik" egin. Guda garaian iparraldean jarraitu zituen ikasketak ahal izan zuten moduan, oraingoan prantseraz noski, gogoan izan bear da munduko bigarren guda hasi zela garai hartan. 1940 aldera Donostira itzultzean, beharrezkoa izan zuen lanean hastea bera bai zen etxeko neba-ahizpen artean "handiena", 16 urte zituen eta bere aita espetxean zenez, etzuen ikasketak jarraitzerik izan. Horrela "Fides" inprimategian egin zuen lana 1948an "ixilpeko" ikastola etxean ematen hasi zen artean. Bizi guztia pasatu zuen ahal zuen guztia ikasten eta irakasten ere.



Ikastolan 1928an



"Villa Belen" ikastetxean



Elizarekin txikitatik izan zituen harremanak

Azken ikasketa "ofizialak" iparraldean egin zituen, munduko bigarren gudua hasi aurretik, argazkian 1939ko otsailan, 15 urte betetzean.

POXPOLIÑAK

Oso txikitatik, (orduako egunkari batean irakurri daitekeenez 4 urteterdirekin bazebilen horretan...) Donostiako "poxpoliñak" taldean haritu zen eta bertan "hizlari" eran ere jardun zen Don Ramon Laborda apaizaren gidapean. Bere aita, "Luzear"ek beretzako bereziki idazten zituen lanak, adibidez NESKAMEAREN MARMARRAK (bakarrizketa), berak antzestu zuen makina bat aldiz, bai irratian, baita jende aurrean ere. Guda garaian, Bilbon ere, aurkeztu zuen bai irratian eta beste jaialdiren batean ere.






Hizlaria poxpoliñen agerraldian frontoi batean, don Ramon Laborda bere ondoan.



Poxpoliñak zezen plaza batean





© El Día, 1933-01-06 | Política - Euzko Abertzale Batza | El Día, 1933-03-04

El Día, 1933-01-24
Política - Elkaldiaik / Política - Euzko Abertzale Batza

IXAKA

Igandez Loyola'n.— Umekua pra... pra... pra, egunero EL DIA'n irakurle genduan. Loyola aldera zetozkila igandez talde aundian, jaupa abestu dantza egin, eta oturak zabaltzeren. Guazen bada esan nien, eta beraz igande goizean egin bear egin ondoren—Luistarren ilerekoa baita— berebela artu eta Loyola'n azaldu gihan. Emen anai Azkoiti, Azpeitiko [...] besarkada batean. Aberri besardada. Lagun bat emen, beste bat arantzago nur nai ezagunak, elkari etza emanda bezela topatu gihan. Elgoibartarrak oñez juanda an ziran «Aberri», Larreategitar Joseba, Izagirre tar [...], iru bulartsu. Motozikleta edo berebil ortan Albizu tar Joseba, eta ni iñoren gahian jun nintalako. Elkar topatu, eta anaiak an emen gabitzala, berebilak bat, bi, iru... ezin konta al zetoriki. Bai [...], Arrasate, Durango'ko bai Donosti aldeko berebil aundi umekua bete-betiak. Txalo eta agurra ugari, eta une batian Loyola eliz aurre ura bete-bete talde aundia. Ikusgarria benetan. Umeku talde orrek gure begien begiratuak izan zitusten.

Ikusgarria iZenbat lan ondo egiña! Arriturik, benetan gelditu natzan. ¿Eta Amale Arzeluz'en itzalditxoa? Nik ezdakit zer esan. Ikusi nituan ainbat dantza [...], ainbat

ELGOIBARKO KRONIKA ZAHARRAK

Urteak
1930 (23)
1931 (28)

Lehendakariak
Aiztegui (243)
Aiztegui (27)
Garbille (79)
Icaza (113)
Maizte (10)
Mirentxu (91)
Xapi (11)

Izendegiak
Pertsonaizenak (1.732)
Baserriak eta baseteak (157)

Gaiak
GIZARTEA (363)
Jaiak (85)
Elkaldiaik (12)
Jaiotzak (118)
Batakoak (81)

Loyola'tik Azkoiti'ra.— «Nork zenbatu berebil lera? «Gurea» deritzen pelota tokian, bete betetik zala goi eta barren, «umekuek» dantza aldiak egin zituzte. Ikusgarria iZenbat lan ondo egiña! Arriturik, benetan gelditu natzan. ¿Eta Amale Arzeluz'en itzalditxoa? Nik ezdakit zer esan. Ikusi nituan ainbat dantza [...], ainbat abesti goxo entzun eta barrenen gorderik dauzkadan itzik asmatu ezin det, zuen ai azaltzeko. «Norkeratu oek guziak? Nire buruan oek guziak ditudala, Azkoiti'n nere lagunekin bazkaldu ondoren «Aitzeta» buru genduala eberatu gihan.

Agor ila zan azkenengo aldia Loyola'n izan nintza. Orduan ilun nitzan ibil aidi artan Loyola. Iñaki Durangoaren semearen etxe albia bakardadetan arkitu nuzan. Txadon...

El Día 1933-01-06an Poxpoliñak Loialan egindako jardunaldiaren ondoren «Elgoibarko Kronika zaharretan» agertu zena.

IRRATIKO LEHENENGO EUSKERAZKO EMAKUME-HIZLARIA

Eungaren euskal-iratsayo ondoren
Lana egiten duanak sariya bear du

Besera alderko lanetan ibiltzen gureak gurentzen benetan utsean ibili bear izaten diegu. Zenbat lan utsean egin dituzte-nak dira. Notik beingok eta eor-tara beartzen ez dutenak.

Zerolletara beartzen duten lanak edo ordainak bear dite izan.

Es da ordea euskara alden dituzte-nen, eusketan dirua gereziz ibiltzen larr-larrin bairik.

Eta zeratutara beartzen duan lan-ak ordaindu izan bear balake ere

domestiar euskaltzale bikalafik beren lan reketuaren ordain ez dute eor-artu. Eta, ta au okerrera, euskaltz-akin ez gara ari gu. Ezer egin ez dutemakin eta bear bafia gutxiago egin dutemakin bairik.

Orlin arte ezer eman ez degunok eorain legundu ez degunok, eman dituzten gaur zerbat, lagundu den-gun gaur zerbatekin.

Euskaltzale berreko asto gara. Euskaltzale berreko, euskara alderko lan guntar postu bear guntar. Es ez be-karririk. Finkera «leko len eukleri, lagundu bear diegu. Eta suk orain» arketzen euskal-iratsayot lagundu.

«Luzare-en alaba zoragarri Ama-leixo denaite onako au. Iratimend-ak maite dute. Gaztea izan azen ga-tza ta piparra berekin ditu.

le gusen eskarona ere.

Zuhemendi tar Jose denaite onako

Garaiko egunkarietan «irratigintzan» egindako lanari buruz.

CUADRO DE HONOR
He aquí los nombres de estos pequeños campeones, que los helados en el cuadro de honor.

Bernardina Larrañaga, Victoria Zunuegui, María Carmen Zaldua, Beñe Zaldúa, José Cruz Gabellado, Segundo Jaureguizar, Gregorio Alberdi, Magdale-na Beristain, María Jaureguizar, Ignacia Arizolaga, Carlos Aguirrebeña, Esti-Añutza, Teresa Amundarain, Carmelo Maidagan, María Cruz Zurutuza, Begonia Arizola, Julia Arizola.

Maria Beristain, fion Amundarain, rudi, Maria An-vido, Frances-cen Izabal, Angel Iritia.

Los pequeños que alavez discursos en aquellos labios sus profundos y largos, a los de los oyentes se no sera inle-ombreados inter-actuando discursos granano Oñate-nosanos Urnaga y los niños Micoora y Salazar, de Tolosa.

Pero sobre todo, destacó, por sus pocos años, por su desparpajo, por su gracia y por la modulación que supo dar a las palabras de su bello discurso euskérico, la encantadora y monísima nena de cuatro y medio años Amaletxu Arceluz.

A todos estos niños se distribuyeron premios en metálico y objetos.

Presidió este simpático e individual acto el activo, diligente y atento alcalde de Zumarraga, don José Aspiazua, y el digno párroco don Segundo Garayalde.

Pero sobre todos, destacó, por sus pocos años, por su desparpajo, por su gracia y por la modulación que supo dar a las palabras de su bello discurso euskérico, la encantadora y monísima nena de cuatro y medio años Amaletxu Arceluz.

4 urterterdirekin Loialan «Poxpoliñak» egindako agerraldia ondoren

ZER Aldizkaritik jasota:

1.928ko urtean bere aitak, Amalek lau urte eukezala, aurkeztu eban Donostiko antzoki baten leenengo oguzpenean “Ni naiz sudurmotz berritsu bat”¹ buruz mintzatu edo ozontzeko. Eta Jardun-aldi onegaz, Euskal Irratiko leenengo emakume esatari biurtu zan.

1.932ko urtean Epailaren 2an, Ander aitak, “Neskamearen marmarrak”, alkarrizketetan aots gozoz mintzatzeko idazten ebazanak, ibili eban Amale ozen alditan, zortzi urte eginbarri euki ebazanetik, Donostiko Irrati Alkartearen ozengailu, bai eta Euskalerrietan egozan Irratietan mintzatzan. Amale berak, jolas antzeko baten egiten ebazanak.

Urkiaga eta Basaraz´tar Esteban “Lauaxeta”k esaten eban: "Euskalerrian ez egonla etxerik, umetxo au biotzetaraiño sartzen etzanik".²

Baita ere, bere aita Ander Arzelus “Luzear”eri esker (euskal idazlea egunkarietan eta lehenengo euskal irratilaria Joseba Zubimendirekin batera), 1932an “Union Radio”n (gero Radio San Sebastian izango zenean) 8 urte zituela irratietako lehenengo euskerazko emakume-hizlaria izan zen (espikerra orduan zioten eran), lehen aldiz 1932ko martxoaren hamaseian.



Amale, ezkerretako neskatilla, Irratian.

3. UMETXUS Donostia 1933-1-4

“Don Ander Arzelus Luzear, nuestro querido compañero y su hija Amaletxu en funciones de speaker, Maritxu Barriola, Elbira Zipitria y Elixabete Miaztegi dirigieron toda la tropa infantil de poxpoliñas donostiaras. Y nos olvidamos de un nombre, precisamente el director del coro que lo fue el benemérito sacerdote don Ramón Laborda”.



Honela dio Amale berak idatzitako oroipenetan:

“Emen dijoan idatzitxoan 8 urte nitunean egindako irratsaioen berriak ageri dira. Garai artako eta nere bizitzako beste ekintza batzuek aitatuko ditut.

Gure aitak neretzat idatzi zun bakarriketa bat, “ Neskamearen marmarrak “ zun izena.

¹ Lan honetaz hemen bakarrik aurkitu dut berria, eta lanaren aztarnarik ere ez dut aurkitu.

² Atutxa eta Agirre´tar Paul / Zornotzan 2.015eko urtean Azaroaren 27an / ZER 422 gn aldizkarian

Au leku askotan antzertu nun. Aitak itzaldi batzuek ere idatzi zizkidan, geienak umetxoai zuzenduak. Auek dira geienbat, guda asi zan arte nere ekintzak. Guda asi zanean 12 urte nitun.

Gero, esan dedanez, guda asi zan eta ordurarte egindako guzia zapuztuta gelditu zan, naiz ta guda erdi erdian, orduko gizaki aundi aiek bere lanean, aberri aldeko lanean jarraitu zuten. Besteak beste, Lenengo EUSKO IKASTETXE NAGUSIA eraiki zuten. Esan dedanez guda bete betean an, Bilbo'n alegia, jaialdi batean, aitaturtako "Neskamearen marmarrak" antzertu nun.

Aita Zarautz'a etorri zanean gure bidaiari jarraitu genu; lenengo Deba'ra joan giñan, gero Lekeitio'ra eta andik Bilbao'ra. An zazpiren bat illabete egin genitun, Bilbao erori baño pixka bat lenago ama eta lau anai arrebak Ipar-aldera joan giñan La Habana itsasontzian...³



Neskamearen marmarrak. 1934ean ANTZERTU aldizkarian agertua (aldizkari osoa).




Neskamearen marmarrak

1936- "ANAIARTEKO GERRA"

Garai hartakoa berak kontatuta hobeto ulertuko da, horretarako berak idatzitako lantxo batetik hau itsatsi dut hemen:

Donostiara «Requetek» inguratzen así ziran eta aita kanpora joana zen. Ez genekien non zebillen eta Alderdiko lagunak laister etorriko zala zioten. la gañean genitunean (requetek) Zarautza joateko mezua eman ziela eta ara joan giñan. An giñala etorri zitzaigun aita. Ez genuen jakin orduan, guk beintzat, nun ibilli zan, ba diteke amak jakin izatea, ez naiz oroitzen. Gero jakin genuen, Jose Antonio Agirre eta beste batekin, ez naiz oroitzen bestea zein zan, (Juan Ajuriageña eta Francisco Basteretxea ziren besteak, hau nik gehitua) Madridentan izan zirela Euzko Araudia edo «estatutoa» legeztatzeko zuzumenetan (Tramite) eta izenpetzeko.



Martín de Ugalde'ren "Historia de Euskadi-V" liburuko 104gn orrialdea

Zarautz'tik Debara, an egun batzuek egin eta Lekeitiora eta gero azkenik Bilbora. An zazpiren bat illabete egon giñan. Ez genuen askorik ikusten gure aita, egoera artan, egoera ikaragarria artan, Euzko Alderdi ko Buruetakoa zenez, etzuen egoteko astirik izaten.

Bertan izan ziren garaian bere aita Luzearek etzuen utzi bere eginbeharretan, idazten kazetagitza eta baita irratan ere, Radio Bilbon ere euskera saioak egin zituzten eta bertan Amalek eta bere ahizpa Itziarrek ere egin zituzten beren agerpenak.

Honela dio Xabier Arzelusek:

«Luzearen esperientzia oso baliagarria izan zitzaizen Bilbon Euzkel Orduba antolatutakoz. Are gehiago: Bilbon eginiko Ordu horietako batean Amaletxo Arzelus speaker-ak bere aitaren Neskamearen marmarrak monologoa irakurri zuen eta, ondoren, Garo usaina izeneko obratxoa, oraingoan Itziar Arzelus bere ahizparekin batera.»⁴

Amalek horrela jarraitzen du Bilbon gelditu zirenei buruz, bere aita tarteko:

«...aita Bilbaon gelditu zan.

Gero «Faxistak» gañean zituztela, iges egin bear izan zuten, jakiña!

Eta Laredoraño iritxi ziran. Euzkadi galdua zenez, Euzkotarrentzat guda bukatua zala ta aal ziran guztiak erbestertzeko alegiñak egin zituzten, baña asko ziranez ezin guztiak alde egin. Orduan, an ziran buruetakoak, gelditzen ziran gudariak ezin zituztela bakarrik utzi eta bereetako bik beintzat gelditu egin bear zutela erabaki zuten. Zein gelditu jakiteko zozketa egin zuten eta beste batzuekin, gure aitari gelditzea atera zitzaion.

(Naiz eta Amalek honela kontatu, beste alde batetik jakin dut ez zitzaizola berari tokatu bertan gelditzea baina, ez dakit ziur zer gaitik, bere kabuz erabaki zuen beste baten ordean bera gelditzea)⁵



Laredon atxilotu eta Santoñara eramane zuten, andik Bilbaoko Larrinagara eta azkenik errudun aundienekin Burgosko penalara. An bost urte terdi igaro zitun, lenengo urtea eriotz zigorra gañean zuela. Urte aren barruan asko erail zituzten, aien artean, Markiegi`tar Polentxi, Debako alkatea.

Sendia banatu aurretik sendi osoko argazkia egin zuten Bilbon.

uskadi-La voz de la libertad» liburua egiteko berak egindako ikerketetan hori aurkitu zuela)



Ama eta lau seme alabak iparraldera abiatu ziran eta aita Santander aldera abiatu zan gudariekin batera eta gero EL Dueso penalean, Larrinagako kartzelan eta Burgosko Prisión Centralen pasa zituen hurrengo 5 urteak.



Ander Arzelus Burgosko espetxean (zutik, ezkerretik lehenengoa), 1938.

Joseba Rezola, Juan Ajuriagerra, Ander Arzelus, Luki Artetxe, Ignacio Unzeta eta beste hiru Burgosko espetxean.

IPARRALDEAN

1937an, Bilbo Frankisten eskuetan erortzeaz zegoela, iparralderantz abiatu ziren 4 neba-arrebak bere amarekin. Askain aldean bizitu ziren 1937tik 1940ra Donostiara itzuli artean, bertan ahal izan zuten eran ikasketak jarraitu zituzten. Honela dio berak:



«Bilbo erori baño pixka bat lenago ama eta lau anai arrebak Ipar-aldera joan giñan La Habana itsasontzian. Lenengo Kanbo'ra joan giñan an egun batzuek egin eta Urkurai Izeneko erri txiki batera. An Alberdi'tarrak, Eibar'ko sendi bat ezagutu genun, ama, Pepita Lesarri bere semea Iñaki, Itziar eta Arrate alabak. Aita Edorta Alberdi zan, gure aitaren laguna, aberkidea, bera ere gure aita bezela Santoña'n atxilotu zuten eta Cádiz'en espetxeratu. Auen bidez, Askain'a juan eta baserri batean bizi izatera, Donibane Lohitsun ere bizi izan giñan eta guztira iru urte egin genitun Iparraldean.»




Amale ikasketa garaian



Iparraldean



Aita Burgosko espetxean, ikusi ala, ezkerretik irugarrena bigarren ilaran.



1942an, 18 urtebetetzean espetxetik bere aitak Amaleri bidalitako gutuna

Bere aita, esan bezala, Santoñan atxilotu zuten eta ondoren «heriotza zigorra» ezarri zieten, Burgosko penalean igaro zuen urte oso bat eraila izateko zorian eta egunero ikusiaz bere espetxeko kideak banan banan erailtzen, berari noiz tokatuko zitzaion esperoan. Urtea igaro ondoren indultu baten bidez, heriotza zigorra kendu zieten eta horrela, arrisku hori gairidituta, espetxeratuta jarraitu zuen 1943gn, indultu bat zela medio, espetxetik irten arte.

Besteak beste horrela dio Xabierek hauei buruz:

«Euskal presoek Santoñako El Dueson eta, ondoren, Bilboko Larrinagan bizi izan zituzten garai latzenak, gau erdian presoak ziegetatik dozenaka irtenarazi eta fusilatzeari ekin baitzioten frankistek. Ez zituen ordea heriotza giro honek euskal presoak kokildu. Larrinagako kartzelan, Espetxean izeneko aldizkaria argitaratzeari ekin zioten Luzearrek eta honen kartzelakideek. Aldizkaria EAJk kartzelan izan zuen argitarapena bilakatu zen. Eskuz oso txukun idatzitako aldizkaria eskuz esku pasatzen zuten, eta presoen izpiritua indartzeko artikulua idazten zituzten. Ez zen gainera aldizkarian kantarik falta. Aldizkari honen argitaratzea Burgosko Presondegi Zentralean segi zuten Luzearrek eta honen lagunek, oraingoa kartzelan zegoen inprentagailuaz ezkutuki baliatuz.»⁶

KOLDO MITXELENAK honela dio elkarrizketa batean:

-Entonces, no hubo posibilidades de iniciar una carrera y rendir exámenes oficiales.

-No, y durante la estancia de más de cuatro años en Burgos sólo salí una vez; fue un día de San Pedro a cantar en la catedral con el coro vasco que dirigía el tolosarra Orbegozo. Pero aquí, en este aprendizaje, y a falta de un reconocimiento oficial, se afina toda mi vocación y toda mi carrera. Fue también aquí donde comencé a profundizar en la lengua vasca. Tuve la fortuna de tener cerca al donostiarra Ander Arzelus, que firmaba sus trabajos periodísticos con el seudonio de "Luzear".

-He oído hablar mucho de él.

-Pero creo que es una de las figuras vascas que tenemos olvidadas, demasiado No sólo como persona, que era excelente, sino como periodista v como escritor. Tenemos olvidadas estas figuras que no son pocas, y algunas muy valiosas. Cualquiera que examine hoy los trabajos que publicaban entonces (y con esto me refiero a los tiempos anteriores a la República y durante ella) tendría elementos de juicio para juzgar de su valor. En ese tiempo había gente valiosa que era vanguardia para las letras y el periodismo vasco. Esto era sobre todo "Luzear": un gran periodista en lengua vasca. Era director de la página euskérica de El Día, y también, seguramente, el mejor crítico de teatro que teníamos en Guipúzcoa. Era un crítico exigente. En aquel tiempo había muchos que pensaban que bastaba hacer teatro en lengua vasca para hacer teatro, y "Luzear" exigía más, exigía que este teatro se representase con una alta calidad artística. De ahí que algunos se quejasen de su severidad en el juicio; pero sin duda que el crítico tenía razón. También escribió "Luzear", y sin firma, en *Eusko Deya*. Era hombre muy inteligente, culto y de muy buen criterio, aunque un tanto integrista, si hay que decirlo todo, en materia religiosa y moral. Con todo, cuando hacia 1933 se constituyó en Zumárraga la asociación de escritores en lengua vasca, mantuvo, en contra de la opinión mayoritaria (defendida entre otros por el difunto "Lauaxeta"), que para pertenecer a una asociación de escritores en lengua vasca no hacían falta condiciones políticas ni religiosas; era necesario y suficiente, por definición, escribir en esa lengua. Creo que estas posturas frente al teatro y frente a esta asociación profesional lo retratan un poco. Éste fue "Luzear", con quien aprendí mucho a lo largo de los cuatro años que estuvimos juntos, hasta el día en que salimos de la cárcel de Burgos; y dio la coincidencia que fuimos los dos únicos en llegar a Donostia el mismo día en que pusieron en libertad al primer lote de los nuestros, el 13 de enero de 1943⁷.


1943gn urtean, esan bezala, indultu bat zela medio, espetxetik irten zen.

⁶ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

⁷ Koldo Mitxelenak «Hablando con los vascos» 87-88 orldean. elkarrizketa batean.

SENARGAIA, ANDONI ERE, IHESLARIA

Erbestean Andoni ezagutu zuen 1940gn urte inguruan, bera “profugo” zen Francoren ejertzitoan ez aritzearren, gudaren hasieran 16 urte besterik ez zituen eta iparraldean erbesteratuta zegoen bere beste 5 anai-arreba eta amarekin, anai zaharrena Gotzon, gudaria izan zen eta atxilotu ondoren “batallón de trabajadores” en zigortuta egon zen eta 21 urteekin hil zen. 1938 bukaeran bere aita ere, Joseba Zinkunegi sendagilea Bartzelona “erori” zenean sendiarekin bildu zen berriro iparraldean. Andoni bezala Joseba bere aita ere, erbestean bizi behar izan zuten 1948rarte.




Andoni Zinkunegi sendiarekin iparraldean . 1939an






Andoni nekazari lanetan 1944an. Garai artan beste lan ezberdin askotan ibili zan ere, arutzgintzan, sukaldaritzan etab.

Joseba Zinkunegi, Ander Arzelus “Luzear” bezala, euskal idazlea zen eta elkar ezagutzen ziren guda aurretik beren euskararen aldeko lanen ondorioz. Harreman horiek zirela eta Amale Aneren laguna egin zen erbestean eta euren harremanetan Aneren neba Andoni ezagutu zuen. Amale 1940 aldera Donostiara itzuli zen eta Andonik ezin izan zuen itzuli, legez, 1948an Francok gudako “profugo”eri amnistia eman zieten arte. Amalek etzuen etsi eta 1943an Madrildik bere “lagun”⁸ Andonirekin harremanak berrartu zituzten gutunen bidez, eta horrela izan ziren 1948rarte, bere paperen artean aurkitu ditut beren artean izan zituzten harremanen berri. Frantzia, beraz Iparraldea ere, alemandaren menpean zegoen garai hartan, munduko 2garren guda oraindik ezen bukatua, eta gutunak “zentsuratuak” zeuden, horren lekuko ditugu garai hartan Andonik bidalitako gutun eta postalak, bertan ikusi daitezke “CENSURADO” eta horrelako zigiluak.

⁸ Garai hartan bren arteko harremanetan “Lagun” hitza erabiltzen zuen Andonik horaindik





Lehenengo gutunak erdaraz idatziak dira, itxuraz “zentsura” pasatzeko ez zegoen euskaraz egiterik, tartean aurkitzen dira beste batzuek euskaraz, horiek eskuz esku lagun bateri pasa eta arek “frantziatik” zuzenean bidalitakoak direla nabarmena da, horrela “españolén zentsura gaindituaz. Horretan ere borrokatu behar izan zuen Amalek, etzuen ezkongaietako harremanetan bizimodu erraza izan ere.



Au “eskuz-esku” bidalitakoa dala ikusi daiteke, gutun-azalean ikusi daiteke “Diez de Ibarrodo”k Hendaya tik bidalia dela, hau Narkisek, Andoniren lagun minak bidali zuen Hendaiatik, segurki, bera Donostian izanda gero eta eskuz esku jaso ondoren.

1940/1948 BERRIRO DONOSTIAN

Amale Donostiara itzuli ostean, lanean aritu zen idazkaritzan Kolon pasealekuan 2an zegoen “Gráficas Fides” inprimategian (eliza katolikoarekin zer ikusirik zuen dirudienez) 1943 arte, Madrilera joan behar izan zuen arte bere aitarekin egoteko. 1944tik, Madrilatik itzuli ondoren bertan jarraitu zuen, baita ere prantzerazko klaseak ematen, 1948an, Elbira Zipitraren eskaera jarraituaz, beren etxean, San Jeronimo kaleko 20an 4 garren solairuan, IXILPEKO IKASTOLA, zabaldu zuen arte. Baina hau geroko istorioa da.



Graficas FIDES en egin zuen lana Donostiara itzuli ondoren 1940 tik 1948a arte

Garai honetan ere etzan geldik egotekoa izan eta besteak beste, “Schola Cantorum” eko koroan abestu ohi zuen. Antzezlanak ere egin zituen, bere aita Luzear espetxetik irten ondoren bere zuzendaritzapean.



“Schola Cantorum”eko koroan eta antzezlan batean



Bere ahizpa Itziar eta kuñatak izango ziren Agurtzane eta Anerekin



Eujeni, bere lagun miña eta beste lagun batzuekin

1943/1944 AITA INDULTATUTA, MADRILERA ATZERRIRATUA

Bere aita Ander Arzelus, esan bezala, 1943ko urtarrilaren 13an etxeratu zen indultuari “esker”. Berriro lanean hasi behar eta Donostian aurkitu zuen lana bertan hiruzpalau hilabetetan aritu ondoren, Madridik agindua hartu zuen gutxienez etxetik 250 kilometrotara erbesteratu beharra zuela.



Madrilgo kaleetan 1943-44 ean, Ander, Amalia, Amale eta Iñaki



Bere lagun Joseba Rezola eta sendiarekin Madilen 1944ean

Honela dio Amalek:

Aurre artan, kalean lagun bat arkitu zun, Nemesio Leal, Donosti'n dagon Garage Leal'eko nagusia. Onek, Madrid'en bere bearra zula adierazi zion, an bere ekintzen, -bat baño geiago bai zitun- Egoitza Nagusia zegola eta arako zula bere bearra. Gure aitak, Euskal Erri'tik kanpora naikoa egon zala, eta ez zula berriz alde egiteko asmorik, erantzun zioun baña urrutiratzeko agindua jaso zunean, bereala idatzi zion gertatzen zana adieraziaz eta lenago ezetz esan ba-zun baietz esan bearra zula. Horrela ba, andik egun batzuetara an joan zitzagun Mdrid'a. Etzan bukatu onekin, an, esaten zigunez espetxean bertan baño ere okerrago zegon. Espetxean euskaldun jendeakin zegola eta Madrid'en berriz bakar bakarrik. Horrela ba etxia arkitu ziguten eta an joan giñan sendi osoa. (1943ko) Lorailak 15ean, San Isidro eguna, Madridko jayak ziranean iritxi giñan, ain zuzen. Urte terdi inguru egin genun Madriden!...An aita gurekin genun, alde ortatik oso ondo, baña an egon bearra etzizaigun oso atsegin. Nik an, Madrid'en bete nitun 20 urte. Urte t'erdia eman genitun an; zigorraren sei bat illabete igaro ziranean, zigorra kendu bai zioten orduan bereala emen, Euskal Errian, lan billa asi giñan, orretarako gure aitak idatzi eta itz egin zun, bizi izateko aña irabazi ezkeru naiko zun. Andik illabete gutxira, Ernanin zan "Almidones Remy" olan, idazkola lana eskeiñi zioten eta aguro asko bayezkoa eman ere! Eta esan dedanez urte t'erdira lana arkituta etorri giñan gure Erri'ra. Madriden, bere lanaz gañera, badakigu ixilpeko lanean jarraitzen zula, naiz berak ezer esan ez.

1944.ngo Iraillan etorri giñan Donostira, poz-pezik. Aita, esan dedanez, Ernanin así zan lanean. Lan ontatik kanpo bereala así zan gaztedia biltzen.

Ernanin lanean ari zela, Donostiko Aurrezkitegiko Zuzendari zan Lamfus jaunak deitu zun. Len esan dedanez, ortxe, Donostiko Aurrizkitegian jardun zan lanean, 16 urte zitunetik 1936gna arte. Lanfus jaunak deitu zun ba eta bertan lanean así bear zuela esan zion. Gure aitak par egin omen zun, orí ezinezkoa zela esanaz, baña Lamfus jaunak ba zun indarra, itxuraz, eta bertan lanera sartzea lortu zun. Benetan eskertzekoa izan zan gure aitaren alde egin zuna!

Baña onegia zan luze irauteko!⁹

Etziren garai lasaiak izan hauek ere, bere aita, “Luzear”, etzen geldik egoteko jaioa eta isilpean alderdian lanean jarraitzen zuen. Eta ez bere idazlanetan bakarrik, gazte taldeak ere biltzen zituen bere erakusketak jarraitzeko Santa Maria elizan adibidez eta beste isilpeko lanak, askoz ere arriskutsuagoak ere egiten jarraitzen zuen...

Bitarte horretan, lehenago bezala Madrilen, Koldo San Sebastian historialariak dienez, EAJren buruzagi nagusi bihurtu zen Gipuzkoan. Horiek ziren alabak esaten dizkigun aitaren “lanak”. Ikus Koldo San Sebastián, “Ander Arzelus”, *Euzkadi* 1986/09/18. “Lan” horietako bat 1945eko ekainaren 1ean egin zuen. Egun batzuk lehenago, Joseba Rezola Euskal Erresistentziaren buruzagi nagusietako bat atxilotu egin zuten Madrilen, eta, egun hartan, Iruna zekarten epaitzera, bi guardia zibilen artean. Madrilgo geltokian Pello

⁹ Amalek berak kontatutakoa bere idatzi batzuetan

Irujo inguratu zitzaion Rezolari, ihes egin behar zuela esatera. Hernanin igo zen Arzelus. Aurrez aurre eseri, eta euskaraz esan zion zerbait presoari. ¹⁰Donostiako geltokian ihes egin zuen Rezolak. Arzelus traban jarri zitzaion guardia zibilei. Pentsatzekoa da, gainera, Luzearek eskuratu zizkiola Donostian ezkutatzeko lekuak, harik eta Iparraldera pasatu zen arte, handik bi hilabetera (Ikus Eduardo Jauregi Beraza; *Joseba Rezola, gudari de gudarís. Historia de la Resistencia*, Fundación Sabino Arana, 1992)¹¹.

Haien ondorioz laster polizia frankista bere bila joan zitzaion alde zaharreko etxera eta bertatik bere sendiaren laguntzaz ihesi ahal izan zuen haien eskuetatik, honela dio Amalek.



Bibotea ere utzi zuen "ez zezaten ezagutu"

»Gau batean, nere bizi osoan iñoiz aaztuko ez dedan gaua, bi polizi azaldu zitzaizkigun gure aitaren billa. Gure amak, aita etxean ez zala esan eta ikustera sartu nai zuten, baña "Fuero de los españoles" zala ta, "mandamiento judicial" ik gabe, etxe batean ezin zirala sartu eta etzirala sartuko esan zien.

»—Pero, señora, si su marido no está en casa, déjenos entrar a comprobarlo.

»Gure ama, berean gogor; ez zitula sartzen utziko, eta aserre bizian aginduaren billa joan ziran, kanpoko atean polizi bat eta kaleko sarreran beste bi utziz.

»Minutu bat galtzerik ez zegoen, aitak oso argi baitzun ezin zutela arrapatu, geiegi zekila ta oso arriskutsua gertatuko zala. Nolabait iges egin bear zun, baña, nola? Gu irugarrenean bizi giñan, eta soka baten laguntzaz bigarren bizitzako balkoi batera jexten aalegindu zan, baña alperrik, ezin beko bi poliziak ikusi gabe egin. (...)

»Gure sukaldeak barne-bide bat zun zuzenean, baña bereala biurguneak zitun bi aldetara, esku-bitara joz komunera iritxi zintezken eta ezker aldera egiñez, kaleko atera. Biurgunea zan zatian sapairik ez genun, arritzekoa bada ere, eta onen ordeztellatua genun gañean, baita laugarren bizitzako bi leio ere. Bitxikeri onegatik, aal zan moduan aita laugarren bizitzako leio batera igotzen lagundu eta bizitza ortan sartuz, andik tellatura irixteko aalegindu bear zula pentsatu genun. Baña au guztia zaratarik gabe egin bear genun, bi arrazoigatik batez ere: bata, atean zegoen poliziak ez zun ezer entzun bear; bestea, laugarrenean bizi ziranak lagunak izan arren, auek esnatzea

arriskutsua zan, soñurik entzuten bazuten, karrasirik edo egin zezaketen ta. Nola edo ala lortu zun goiko leio batera igo eta bizitzan sartzea, bi semeen laguntzari esker, eta an, argi-zulo batetik tellatura atera-tzea, Anderrek (seme zaarrenak) lagunduta. Orduan onek esan zigunez, aita tellatuan ondo utzi zun eta berri onek pixka bat lasaitu gindun; etsaien atzaparretatik iges egin zun beintzat! Bereala oean sartu zan beste guztiak bezela.

»Andik pixka batera, antxe ziran berriro ere gure "lagunak", sartzeko baimena aldean zekartela. Ezin zuten sinistu aita an ez zegoenik, eta ikusketa artan etxe guztia arakatu zuten, oi azpi, arasen atzekaldeak, eta abar. Oso asarre ziran amarekin, ez zuten ulertzen ta, zergatik bialdu zituzten aginduaren billa, aita an ez bazan.

»Kezkatuta euki gindun gau osoa, aita tellatuan bakarrik... gauez... nola egongo zan ez jakiteak!

»Urrengo goizean, ondo zegoela esanez, mezu bat bialdu aal izan zigun.

»Tellatuko ibillerak geroago, berekin itzegin aal izan genunean, jakin genitun. Etxeko ataria San Jeronimo karrikan izan arren, bizitzak Puerto karrikako izkiña ere artzen zun. Ortaz, aita tellatura irten ondoren, Puerto kale aldera joan, eta ango balkoi batean sartu eta antxe egin zun gau osoa.

Etxe artakoak ezagunak ziran, eta auek Puerto kaletik ateratzen utzi zuten.

»Une artako arazoa gainditu bazun ere, ez da bearrezkoa, andik aurrera ezkutuan ibilli bearko zuela esatea. Donostin eman zitun illabete batzuk, baña ortarako bizarra utzi zun. Eta orrela, iñork eza-gutzen ez zuela, ibillalditxoak ere egin zitun irian zear3. Orrela ezin zula jarraitu, eta "beste aldera" joan bear izan zun, 1946an».

¹⁰ Beste kontakizunik ere irakurria dut ihesaldi honi buruz: Ander mozkar itxurarekin sartu zen trenean eta Rezolaren ondoan bertsoak botatzen hasi zen eta horrela bertsoan esan zion non jausi behar zuen trenetik guardia zibilak ezer ulertu gabe...

¹¹ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan


1943-1948 EZKONGAI ALDIA, GUTUN BIDEZ!

Baina Amalek ere bere bizia jarraitu beharra zuen, bere senargiarekin harremanak ez ziran batere errazak, Madrilen zirenean hasi ziren beren arteko harremanak lehen esan bezala, gehien bat eskutitzez egin behar izan zituzten, baina asmatu zuen Andonik beste aukera bat, bi urtez, 46 eta 47an, Donostiako estropadak medio, irailaren lehenengo bi igandetan Donostiara itzultzen zen ezkutuan, lehenengo igandean beste aldeko itsasontzi batean bertara inguratu eta itsasoan Donostiako beste itsasontzi batera salto eginaz iristen zen eta astea Donostian igaro ondoren, bigarren igandean bidaia alderantziz eginda, Iparraldera bueltatzen zen.

Polizientzat ez ezaguna izateko, bibotea ere utzi izan zuen 1946 urtean, argazkian ikusi daitekeenez.



Amale eta Andoni "biboteekin" Donostian 1946 an



Andoni Donibane-Lohitzunen 1947ko gabonetan



Beren artean bidaltzen zituzten argazkiak mezuekin


Batzuetan bera joaten zen iparraldera ahal zuenean, hau etzeen erraza ere, garai hartan ezen erraza pasaportea lortzea eta muga isilpean igaro behar izaten zuten ere.

Kontuan izan behar da ere, Andonik munduko 2garren guda frantzian pasa behar izan zuela, alemaniarrek Frantzia menperatuta zegoenean, bera Iparraldetik alde egin zuen Parisera, han urte bat inguru pasa zuen, eta 1943/05/01etik 1944/06/09ra "ZATOSTE" restaurantean "Chef-Magasinier" bezela aritu zen lanean orduko ziurtagiriaren bidez jakin dugunez. Baina ezen geldik egon han ere eta erresistentziarekin isilpeko lanetan haritu zela alemaniarren aurkako borrokan, berari entzuna diogu.

1944 udara aldera, berriro iparraldera bueltatu zen, bertan besteak beste nekazari, arotz eta sukaldari lanetan aritu zela ere jakin dugu beren artean idatzitako gutunen bidez, Amalek "Restaurant Leturio", Mlle. Etcheto kalera ere bidali izan zizkion gutun batzuek adibidez.

E.A.J. Alderdian EGI ko militante jardun zen garai hartan ere.

Donibaneko "BEGIRALEAK" dantza taldeko kide izan zen ere, dantzari eta atabalaria bezala, haiekin bidai asko egin zituen, besteak beste Brighthon (Ingalaterran) eta Nizan ere izan zirela dakigu argazkien eta garaiko aldizkariaren bidez.



Dantzaria eta atabalaria ere izan zen DONIBANEKO BEGIRALEAK taldean



BRIGHTON, Ingalaterran ere izan ziran.



1946-V-26an Libornen, "errikatuok" deitzen zioten beren taldetxoari.



Nizan 1946ko urrian





Euzko Izat Agiria 1945ean





1946-47 "Leturio"-n sukaldaritzan lanetan hari zenean


Besteak beste, Telesforo Monzonen euskarazko lan batzuen zuzentzaile lanetan aritu zen ere. Bi liburu aurkitu ditugu Monzonen eskaintza eskuz idatzia, bere laguntza eskertuz.



GUDARIEN EGIÑAK - olerkietan, Telesforak idatzia Donibanen 1948an



URRUNDIK BAKE OROI Telesforak idatzia Donibanen 1947an



1948 - IHESLARIEI AMNISTIA - EZKONGAI AZKENALDI ZORIONTSUA

Horrela gauzak, 1948an Francok gudako "iheslariei" amnistia eman zietenean, Andonik buelta egin ahal izan zuen hegoaldera, bere aita Josebak hilabete batzuek lehenago Zarautza itzuli ahal izan zuen ere.


Bere aita, Ander, iparraldean erbestean jarraitzen zuen, baino berak bere bizia egiten jarraitu behar zuten eta ainbeste urte banatuta pasa ondoren, behingoz izan zuten aukera ezkongaialdia hilabete batzuetan elkarrekin bizi ahal izateko eta garaiko argazkiek ez dute zalantza handirik uzten, garai politak izan zirela bien artean igarotakoak bere lagun eta senideekin.





1948 - EZKONTZA

1948go azaroak 27an Donostian, Zinkunegi'tar Andonirekin ezkondu zen.



Garai artan bere aitak iparraldean politika lanean jarraitu zuen, EBBko lehendakariorde izan zen Iparraldean eta beste lan askoren artean Euzkadi Irrati-isilpekoa antolaketan eta zuzendaritzan ere artu zuen parte, lan haietan zeukan eskarmentua zela eta.

Horrela dio Inazio Mujikak "Luzear"eri buruz:

Carte d'identité d'étranger temporaire. Arcelus, Andrés. Profession: Sans. 10 decembre 1946. Delivrée 30 decembre 1946. Lieu de résidence et adresse au moment de la remise de la carte: Pau 4 rue des Anglais".

Beste aldean, Donibane Lohitzunen bizi izan zen, Villa Briseis-en, EAJk alokaturiko etxean. Bertan sortu zuten Joseba Rezolak eta biak, alderdiaren aginduz, isilpean emititzen zuen Euzkadi Irratia. Harekin batera bizi ziren irratiko beste kideak ere: besteak beste, Leonardo Salazar eta Iñaki Durañona. Luzear irratiko zuzendaria izan zen, eta euskarazko egitarauaren arduraduna. Behin baino gehiagotan eten zuten Donostiako "Radio San Sebastián"eko emisioa Francoren kontrako aldarriak jotzeko. Bere kronikak Gorrititar Imanol izenordez izenpetzen zituen. Alderdi aldizkariko kontseiluan egon zen, eta Euzko Deya aldizkarirako ere hainbat artikulu idatzi omen zuen, izenik gabe.¹²

Xabier Arzelusek hau ere gehitzen digu:

Garai berean, EBBko presidenteorde izendatu zuten.

EBBko lehendakariorde izan zen Iparraldean. Alderdiko txosten eta gutunetan "Anselmo" izena erabiltzen da hartaz hitz egitean (EBBko lehendakaria, Doroteo Ziaurriz, "Dionisio" zen): Ander, Andrés, Luzear, Imanol, Anselmo.¹³

¹² Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

¹³ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

BERE AITA "LUZEAR" EN AZKEN DENBORALDIA

Bere aitari buruz jarraituaz, honela dio Amalek:

Bi urte inguru egin zitun Ipar-aldean. Donibanen lenbizi eta azkena Bayonan Anglet auzoan. An bere lanean jarraitu zun eta besteak beste ixilpeko Euzkadi irratiko arduradunetakoa izan zan.

1949ngo asieran ondoezik jarria zan. Etzirudin gauza aundia zanik baña ondo jartzen etzanez, gure ama, "muga" nolabait igaro eta beregana eraman zuten. Bere azkeneko lau illabeteetan beintzat etzan bakarrik egon. Etzuten argi ikusten zer zun eta Parisa eraman zuten ango sendagille ospetsu batek ebakuntza egin ziezaion. Iriki arte, minbizia izan zitekela iruditu arren, ez zuten au argi ikusten, baña iriki zutenean ondo zabaldua zegola arkitu zuten.

1949an, alegia, Dagonillak 15ean bete zitun 51 urte eta 27an il zitzaigun.



Amalia, Amale, Itziar eta Ander biboteekin



Amalia eta Ander.



Joseba Zinkunegirekin 48-ko Aberri Egunean



Iparaldean 1949an



Amale bere lehenengo haurdunaldian, azkeneko argazkia bere aitarekin, 1949ko uztaian

Bi edo iru egun aurretik, iltzeko zorian zala jakinik nere anai-arrebak, mendiz joan ziran. Mendian zakurrak ere bota zizkieten eta oso gaizki ibilli ziran baña garaiz eta osorik iritxi ziran beintzat.

Ez genun ere Donostira ekartzeko era izango genunik uste, baña Muñoatarrak, orduko Donostiko sendi ospetsuenetakoa, Donibanen bizi ziran eta ayek egin zuten gure alta Donostira ekartzeko bear zana.

Ekarri zuten ba gorputza Donostira, baña il da gero ere ezin izan zuten pakean utzi. Arratsaldean ekarri zuten. Gure ama eta Itziar aizpak berarekin etortzeko baimena izan zuten. Ander eta Iñaki anayak, berriz ere, mendiz etorri bear izan zuten. Arratsaldean ekarri, esan dedanez eta urrengo egunean, amarretan illobiratzeko gelditu giñan, iritxi giñanean arritu eta minduta illobiratua zala arkitu genun. Ango apaizak esan zigunez, goizeko zazpirak aldera "Poliziak" azaldu omen ziran illobiratzeko aginduz, izkillu eta guzti azaldu ere; apaizak, bildurtuta ezin izan zun ezer egin.

Ez uste onekin guzia bukatu zanik, elizan ere izan genitun ixtilluak Illetak Donosti Zaarrean dagon Santa Maria elizan, goizeko amaiketan izango zirala gelditu giñan, baña arratsaldean Santa Mariako parrokoak deitu zigun, Gobernadoreak deitu zula, goizeko zortzi terdietan egiteko esanaz. Urduri zan eta oso bildurtuta eta guk eskubidea genula esan arren, alperrik zala ikusi genun. Bereala irratira deitu genun; Ángel Molina zan orduan esaten zanez bertako "speaker"; aita oso maltea zun eta gertatutakoa adierazi eta irratiz ordu berria adieraztea nai genula esan genionean, berealaxe esango zutela eta orrela egin zun. Gero jakin genun -ez berak esanda-1.000 pezetako "multa" izan zuela.

Orrekin zera lortu zuten, 8,30etan zala jakin zutenak ordu ortan eliza bete zuten eta jakin etzutenak 11etan joan zirenak berriro eliza bete zuten eta apaizak Ander aipatu zuen ere naiz eta ez izan elizkizuna, beraz bi aldiz egin zitzaion illeta.

Oitura zanez, etxe atarían maya jarri genun izenpeak jasotzeko, emen ere jende asko bildu zan "cola" luzeak egiñaz.

Il da gero ere ezin izan zuten pakean utzi, bere bildur zirala esan diteke.

Oneraino Amalek garai artako gertaeraz idatzitako lantxoetako batetik hartuta.



"Radio Euskadi- La voz de la libertad" liburuko 133gn orrialdean



"Luzear" bere idazlanetan azken ordurarte.




Amale bere lehenengo ahurraren zain zegoela 1949an azkenetako argazkia bere aita, ama, senargia eta Rezolaren emaztea eta alabarekin (Joseba Rezolak ateratako argazkia)

«1949ngo hasieran ondoezik jarria zen. Etzirudin gauza aundia zanik baña ondo jartzen etzanez, gure ama, "muga" nolabait igaro eta beregana eraman zuten»



Lourdesen 1948-02-11an

Lourdesera joan ziren otsailean, bertatik bidali zien bere senideei postal hau.



1949/1964 - ONDORENGOAK

AMALE AMA

Horretan ere ez zuten denbora galdu, 1949'tik 1964 bitartean 9 seme alaba izan zituzten.



1949-09-07an Amalek lehenengo semea izan zuen, Ander.



1951-02-12an Jon Andoni



1952-06-21an Amale



1954-05-10an Miren Lide



1955-09-10ean Lirañe

Lirañe zoritxarrez ez zen luzaroan bizi, 1956-04-15ean, 7 hilabete zituela enbolia batek jota zendu zen bere aitaren besoetan, garai ilunak haiek ere, baina etzuen amore emango eta urtebete orduko,



1957-09-08an Koruko



1960-02-25an Eneko (20-01-2020)



1963-08-07an Onintze



eta 1964-12-18an Itxarone.



Itxuraz etzuen nahiko 8 seme alabekin eta beharrean aurkitzen zen emakume baten ume bat ere hazitzen lagundu zion, hau Aitor zen izenez.

Etzuen ere nahikoa izan eta gero bilobak ere hazteko lanetan etzuen amore eman eta bat baina gehiago bere etxean izan zituen gurasoak laguntzeko beren lanetan zeudenean.

1972/2001 - AMONA AMALE

48 urteekin amona izan zen lehenengo aldiz, geroztik beste bederatzi izan zituen ere.



1972an **Ander** Zinkunegi-Ulazia jaio zen Donostian



1977an **Lartaun** Zinkunegi-Ulazia jaio zen Donostian ere.



1983an **Garikoitz** Otaño-Zinkunegi jaio zen Larratxon



1984 urtean **Maitane** Ayestaran-Zinkunegi jaio zen Tolosan



1985 ean **Etxaun** Otaño-Zinkunegi jaio zen Larratxon



1987 an **Aitzol** Ayestaran-Zinkunegi jaio zen Tolosan



1988an **Uxue** Irurueta-Zinkunegi jaio zen Elgorrin



1993an **Andoni** San Martin-Zinkunegi jaio zen Donesteben



1993an ere **Eñaut** Iparragirre-Zinkunegi jaio zen Etxalaren



199In **Josu** Irurueta-Zinkunegi jaio zen Elgorrin



2001ean azkeneko iloba, **Aimar** Iparragirre-Zinkunegi jaio zen Etxalaren



Aitonaren azkeneko argazkia Amale eta bilobekin 1993an



1989an 8 seme-alabak aita eta amarekin

2007/2015 - AMALE BIRRAMONA

Bost birbiloba ezagutu zituen ere, Adur, Beñat, Intza, Nerea eta Ekain.



2007an **Adur** Zinkunegi-Asensio Donostian



2009an **Beñat** Zinkunegi-Asensio Donostian



2014an **Intza** Karasatorre-Ayestaran Etxarri-Aranazen



2014an **Nerea** Zinkunegi-Beloki Pradejonen



2015ean **Ekain** Juanena-Irurueta Elgorrin

2014/ 90gn URTEMUGA

Beste askotan bezala, Altzako *Martilun* ostatuan ospatu zen bere 90gn urtemuga, eta behingoz sendi osoa bildu ginen.



Sendi osoa



Bilabak, birbilabak eta beren bikoteak



Seme alabak

LAROGEITAMAR URTE

Milabederatzireun
ogeitalaugarrean
otsailak emeretzin
jaio zifian Donostiyan.
Lenengo alaba izanik
gurasoak poz-pozean
izena jarri zizuten
Amale amaren antzean.
Geroztikan jaio ziren
iru anai arreba
seirak elkartuta bizitza
alde zarrean eginda.
Antxe izan zenituzten
kontatzeko istorio pilla
orregatik ementxe zera
larogetamarrak beteta.

Bamalez egun batean
guda garai urrun artan
igesian joan bear eta
muga bestaldera pasa.
Askainen iparraldean
artu zenuten ostatu
ainbat familin moduan
an bizi ta an jostatu.
Ane lagun onarekin
bizi modua goxatuz
egunak ola pasa eta
ezin etxera bueltatu.
Al zen modua bizitza
ala bear antolatu
Donostira itzuli arte
iparraldetaz gozatu.

Anen bidez iritsi zan
zure biziko gizona
anai dotore galanta
aukera paregabea.
Ongi probextu zenuen
ezagutu zenun artan
lagunaren arrimoan
urbildu zinen aitana.
Eta Andoni´k nola ez
zearo lilluratuta
berarekin ezkontzeko
maitemindu zela eta.
Begitara begiratu
zalantzik ez zenuen izan
baietza eman zenion eta
elkarrekin ordutikan.



Gero berroitazortzian
azillan oitazazpian
baietza eman zenioten
elkarri apez aurrean.
Andik aurrera famili
andia izan zenuten
iru mutil eder eta
alabak berriz ziran sei.
Auek eman dizkizute
amaika biloba eta
oietatik bi neska dira
besteak ordez mutillak.
Bi birbiloba ere baituzu
mutiko koxkor ederrak
irugarrena bidean dezu
auxe nexka poxpoliña.

Enera ekarri zaitugu
urtemuga ospatzera
urtero ospatu arren
aurtengoa oberena.
Larogetamarrak beteta
ospakizun berezia
egin nai dizugu onetan
ongi dezu merezia.
Ama bikaina bazera
amona oraindik obia
zorionak biotzetikan
zu bai zera gure maitia.
Mila esker zeranagatik
jarrai ezazu orrela
munduan ez da eta
beste amarik obia.



2014go otsailak 19an

Bere urtemugarako bere alaba Onintzek prestatutako abestia. Xabier Leteren "habanera" doinuarekin abestu zitzaion bazkaldoan.

BERE AMA, AHIZPA, NEBAK, LAGUNAK...

Bere amarekin, bizi guztian baina batez ere bere azkeneko 15 urtetan, ahizpa eta nebeekin harremanak oso sakonak izan ziren bizi guztian, baita beste Arzelus eta Zinkunegi sendietako guztiekin ere.



1935 inguruan hondartzan, Itziar eta bi lehengusuekin



1946 inguruan Itziar ahizpa eta Ane eta Agurtzanerekin



1946 inguruan Itziar eta Juanitorekin



1977an Amaliarekin bere aman herrian, Iturenen



Andoni eta Eujeni, bere lagun-minarekin



Gazteluan usategian Eujenirekin



1949an Zarautzen Joseba, Josu, Ane eta lagunekin



Ane, Eujeni, Juanito eta Andonirekin 1959an



Ander eta Nievesekin 1954ean

JAIK, OSPAKIZUNAK, IRTEERAK...



Eneko lehenengo jaunartzea 1969an



Arzelustarren bazkaria 1976an Arantzazun

Hainbeste seme-alaba izanik ez zen sekula falta jai edo ospakizunik, bakoitzaren urtemugak beti ospatu ohi ziran, bakoitzaren bataioak (eta beste senideen umeen bataioak ere noski), gero lehenengo jaunartzeak, (hauek ere etxeokak eta lehengusu lehengusinenak ere), sendotzak, eta geroago seme alaben ezkontzak (baita besteenak ere, ezin ahaztu beren neba-anaia ahizpa-arrebenak ere) eta berriro bataioak etab... Beti izaten zen, ahal izanik behintzat, jai haietan faltarik gabe, beti bere alaitasun osoz.



Oyalumen baratzetan zehar...



1964 ean Mendiolan

Ala eta guztiz ere beti izaten zuten denbora asteburu eta jaietan mendira ume guztiakin joateko, ohizkoak ziren nire oroimenean ditudanez Ergobia, Lasarteko baserri bat ere, bertatik ekarri ohi ziguten esnea etab etxera, han ezagutu genuen, besteak beste, toleara adibidez eta sagarrak jasotzen genituen etxerako ere.



Igeldan 1954ean, berdin zian haurdun egonda ere...



Beti alaitsu...


Uliako Mendiola zen askotan joaten ginen beste lekuetako bat, Miracruz gaineraino autobusez eta handik oinez joaten ginen, beste lekuetara bezala, bazkaria gainean hartuta.



Mendiola bidean



Lasarteko baserrian



Gazteluan 1958an




Bere neba Iñaki, Miren Maite, Juanito eta Ixiarekin



Ergobian 1958an ere

Aieten kokatutako "Miralles" askaldegia zen beste leku bat, bertara joateko autobusez Morlansera eta handik oinez igotzen hasten ginen, baina aitak Llambreta motorra zuen garai hartan (bere lanerako garraioa hori izan zen urte askotan) eta osaba Iñakik "Vespa" bat ere eta berak joan da etorriak egiten zituzten denak igotzeko, bidai bakoitzean hiru edo lau umeekin egiten zituzten igoaldia... Orduan ez zegoen "debekatua" horrela bidaiatzea itxuraz... Ergobiako Oialume sagardotegia sarritan erabilia izate zen.



"Miralles"era igotzen osaba Iñakiren motorrean



Aian 1963an (lehenengo autoa ondoan)

1963an erosi zuen bere lehenengo 4 gurpileko ibilgailua, "Citroen 11 ligero Sport" zelakoa, 2 bidaiarientzat soilik zen auto hura baina, nola ala, 9 ere "sartu" izan ginen bertan. Eta bertan bidai luzeagoak egiten genituen, nire oroimenetan ondo gogoratzen naiz Nafarroako Añorbeko sendia ezagutzera egindako bidaiaz adibidez, edo eta Aiako senideak ikustera egindakoa ere. Geroztik beste ibilgailu gehiago izan zituzten ere, Simca 1000 bat, Citroen 2 zaldikoa, Diane 6, etab.



Aiako senide batzuekin



Edozein ibilgailu "todoterreno" bihurtzen zen Andaniren eskutan



Amale umeak antolatzen



Krismak senide eta ikastolako umeekin

1953tik aurrera Andoniren lanetako bat “postalak” eta “krismak” egitea izan zen eta horretarako bere seme alabak, ilobak eta baita ere Amalaren ikastolako umeak erabili ohi zituen.


Horretarako ume guztiekin joaten ziren leku ezberdinetara sarritan.

Jan horietan ere Amale bera izaten zen umeak zuzentzen laguntzen ziona.

EZKONTZAK ETAB.



Jai guztietan dantzarako ere prest izaten zen, berdin zen trikitixak, biribliketak, elduta edota askatuta dantzatzeko, azkenekotakoak izango dira bere biloba Lartaunen ezkontzan, 2010ean, bi azkeneko argazkietan ikusi daitekeen bezala, bere suhia, Joxe Mari, izaten zuen bikote sarritan.





Maite ta Joseba lagunekin 1988an



Sanit Michaeloko abadian 1978an



Parisen 1978an



Pozalaguako leizean 2001ean



Durangoaldea Goiuriko kuspegitik 2008an




Hondarribian 2003an Isa eta Martakin



Bilbon 2004ean Martarekin



Dizko trikuharrian 2010ean



Butroiko gazteluan 2001ean



Disneylanden, etzuen atzera egingo honetan ere 1996an



Santurtzin 1989an



San Markosen, 2002an Isarekin




Etzuten restautanterik bilatu beharrik sarritan...



Sta. Tegrako "Zelta herrixkan" 1988an



Pikos de Europako "Fuente De"goian.



Abellanedako "Junta Etxean" 2001ean



Mendatako Zarrabentan, Bilboko lagun batzuekin



Erauleko Artean

AR?ELUSTARREN BAZKARIA 2014ean



Hau izan zen azken bazkaria Arzelustarren sendiko 70 senide bildu ginenean Donostian, berak 90 urte bete zituen urtean, sendiko nagusia bera zen.



Argazkian bazkarian izandako gehienak Sta Maria elizako eskaileratan, bestean Amale bere izeba Luisinaren eta ahizpa Itziaren ondoan. Luisinak 89 urte zituen orduan. Itziarek 86.



Hemen bere lehengusina Miren Maiterekin bazkaldoan abesti saioan, eta bestean Idoiak, bere lehengusina gazteenak, Amaleri origarria emateko uanean.



GIZARTE-JARDUERAK



Amale Arzelus, isilpeko ikastola baten sortzaile

I. BASTERRETXEA / DONOSTIA

Gerra aurreko eta ondorengo ikastolen garapena hurbiletik ezagutu du Amale Arzelusek. Euskararen aldeko jardueratan ibilitako gurasoengandik ikasi zuela euskara maitatzen esan digu.

Ikastolak 1920 urtearen inguruan sortu ziren eta gerra garaira arte ez zutela inongo oztoporik izan baieztu digu Amalek. «Gerraren etorrerarekin dena bukatu zen. Beldurra handia zen. Gerra hasieran, aita espetxean zegoela, ama eta anai-arrebok hementik joan egin behar izan genuen, eta 1940an etorri ginen. Ordurako gerra bukatuta zegoen, baina artean beldurra handia zen».

Gerra ondoren, 1945ean, Elbira Zipitriak sortu zuen bere isilpeko ikastola eta handik lau urtera Amale Arzelusek, berea. Amale ezkonberria zela hasi zen euskarazko klaseak ematen, isilean, bere etxean. Hasieran Elbirak euskaraz gaizki zebiltzanak bidaltzen zizkion Amaleri eta ondoren, batxilergora heldu artean izaten zituen haurrak.

Ikastola ofizialak zabaltzen hasi zirenean utzi zuen ikastolako lana, 1968 urtearen inguruan.



Amale Arzelus.

ANDER GILLENEA

Baina irakasle lana ez zuen erabat baztertu. «Ikastolako lana utzi ondoren, helduei euskara irakasten ibili nintzen urte askotan».

Euskarak indar handia zuen gerra aurretik; gerra ondoren aldez, Francok euskara debekatzekoan, lehenago egiten ziren makina bat euskal ekitaldi bertan behera gelditu ziren. «Euskal Teatroa oso garrantzitsua zen gerra aurrean Donostian. Victoria Eugenia antzokia jendez gainezka egoten zen, euskarazko ekitaldi bakoitzean». Gerra aurrea-

rekin jarraituz, «'Poxpolinak' ere oso garrantzitsua zen, Don Ramon Laborda apaizak sortu zuen, Maritxu Barriolaren laguntzarekin, ni gaztea nintzela. Haur guztiak biltzen gintuzten eta euskal dantzak, abestiak,... irakasten zizkiguten. Talde polita osatu genuen eta horrela, herrietara joaten ginen guk ikasitakoa egitera. 'Poxpolinak' haurrentzako elkarte antzerakoa zen hasieran, baina gero, helduagoak ere parte hartzen hasi ziren. Horrela jarduerak ere gehitu egin ziren: lehiaketak, antzerkia,...», gaineratu du Amalek, gerrarekin dena bukatu zela azpimarratuz, ondoren. Beldurra bazter guztietara zabalduta egon arren,

euskararen alde lan egiten zuen jendea bazegoela esan digu. «Haurrekin euskaraz hitz egiteko aitzakiarekin, udalekuak antolatzen zituzten. Arduradun nagusietako bat Maritxu Barriola zen, ahizpa eta anaiarekin batera».

Amalek irakasle lana aspaldi utzi bazuen ere, oraindik jarduten du euskararen inguruko lanetan. 'Arbasoen-izkuntza-zaleak' izeneko elkarte bat sortu du euskaltzale batzuekin batera, duela hiru bat urte inguru, euskara aberastu eta garbitzeko helburuarekin.

1949/1968 - IKASTOLA

1949gn urtean Donostiako bigarren isilpeko ikastola antolatu zuen etxean, honela dio Xabier Aranburu Puentek bere:

“HEZKUNTZAREN HISTORIA EUSKAL HERRIAN: IKASTOLA”

Elbira Zipitriaren biografarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean”

*...“Hasiera batean, ezagunak zituen Arzelustarregana jo zuen laguntza bila. (Elbira Zipitriak) 1949.urtean, bere ikastolara Euskara oso ondo menderatu gabe heltzen zitzaizkion haurretaz arduratzea proposatu zion **Amale Arzelusi**. Amalek bere lana utzi eta neska-mutil hauen Euskara lantze eta hobetzeari ekin zion, San Jeronimo kaleko 20.zenbakiko bere etxean lehenik, geroago Colon Pasealekuko 9.era pasatzeko”¹⁴ (sic).*



Horrela hasi zen 1949an ikastaroak ematen isilpeko eran lau eta bost urteko umetxoei, beren lehenengo letrak eta zenbakiak erakutsiaz. Alde zaharrear eman zituen klaseak 1960 arte, gero Grosera joan behar izan zuen eta Kolon pasealekuan jarraitu zuen.



Gaztelua, ibilbide berria, Kataluniako plaza, Ulia, Igeldo... edozein lekuk balio zuen aurrekin ikasturte bukaera edota Gabonak ospatzeko.





¹⁴ Xabier Aranburu Puentek bere: “HEZKUNTZAREN HISTORIA EUSKAL HERRIAN: IKASTOLA”



Askotan, beren gurasoek euskera ez zekitenez, euskera ez zekiten umeak ere izaten zituen eta hauei euskera ere erakutsi behar izaten zien. Garai hartan kokatuaz gero, kontuan izan behar da ekintza horiek zekarten arriskua, euskera debekatua zegoen hezkuntzan garai artan, eta hasieran ez hezkuntzan bakarrik baizik kalean erabiltzeak ere bere arriskuak zituen.



Naiz eta ikastolak "isilpekoak" izan, Ez ziran etxean gelditzen umeekin egindako jarduerak, alde zaharreen zegoenean gaztelura edota Igldora ere joaten ziren ikasturte bukaeratan, umeak baseritarrez jantzita. Gero Gros aldean zirenean Uliara, Frantziako pasealekura, Katalunia plazara etab. ere joan izan ziren. Jarduera hauetan bere senar Andonik, argazkilaria zenez, besteak beste, ikastoletako argazki erreportajeak egiten zituen eta gero sendi bakoitzari banatzen zizkieten. Beraz bere ikastola eta Itziar eta Karrilen ikastoletatik pasa ziren ume guztiak ba dituzte argazkiak garai haiek oroitzeko.



Hezkuntza sailarekin edota poliziarekin arazoak izanez gero "KLASE PARTIKULARRAK" zirela esan ohi zuten.

1968/1990 ADINEKOENTZAT IKASTOLA

1968 garren urte arte jarraitu zuen horretan, ikastolak, nola ala, legezatzzea lortu zuten arte. Andereño eta guraso haien hainbeste urteko borrokak garai hobeak ekarri zituen.

Orduan bere haur eskola isilpekoen bukaera izan zen, baina etzuen amore eman bere euskera irakasteko lanetan eta euskera adinekoei irakasten jarraitu zuen, hau ere bere etxean.


Adin guztietako ikasle ugari pasa zen garai hartan bere ikastaroetatik.




Amalek bere ikasketak emateko erabiltzen zuen metodoa guztiz berezia zen, bere aitak espetxean zegoenean egiten hasi zuen metodoa alajaina. Nire ikerketaren ondorioz eta Amalek bere aitarekin gutun bidez izandako harremanetan ikusi daiteke azkeneko ikasgaiari buruz zuzenketak bidaltzen zizkiola, beraz metodoa ez zuela bukatu ikusi daiteke, iparraldean zegoela oraindik azken ikasgaiak lantzen jarraitzen zuela argi ikusten da. Ba dakigu ere guda aurrean irratia bidez euskera erakusten hasi zela bere metodo baten bidez eta guda ondoren Euzkadi irratian ere saiatu zela horretan bere azken egunetan. Bera hil ondoren bertan behera gelditu zen hau eta euskera ere "Euzkadi irratian".

Jatorrizkoak, besteak beste komuneko paperean ere idatzi zituen, espetxean egin zituen beste lan asko bezala, eta Amalek, urtetako lana hartuta, idazteko makinarekin garbira pasa zuen metodo osoa. Gero bere ikasleek bere kabuz ere berridatzi eta beren artean banatzen zituzten kopiak, beraz etzuen beste libururik erabiltzen bere aitaren metodoa izan ezik. Metodoa etzuen osorik bukatu espetxean eta gero ere jarraitu zuen horretan hil zen arte.

Esan beharrekoa da, orduan oraindik ez zela erabiltzen metodo horren antzekorik, oso aurrerakoa izan zen zeren, orain "mintza praktika" deitzen zaion metodoa erabiltzea zeharo ohikoa izan, bere aita Luzearek 1939-1942an Burgosko espetxean prestatu zuen metodoa horrelakoxea zela kontutan izan behar dugu, berak prestatu zuen orduan erakusteko era berria, mintza-praktikaren bidez.



Jatorrizko metodoaren aztarnak 2014an zeuden era.




Espetxean idatzitako jatorrizko 39gn ikasgaia

Amalek horretan jarraitu zuen, gutxi gora-behera, 1994 garren urtea arte.

1967-68-69 ESPETXETARA BERRIRO...

Etzuen nahikoa izan bere aitarekin sufritu behar izan zuena gaztaroan, oraingoan bere senar eta seme batekin berriro pasa beharko zituen berriro egun ilun haiek; 1967an, Iruñeko Aberri egunean, bere senarra atxilotu zuten lehenengo aldiz eta hiru egun polizia-etxean igaro eta gero, 5.000 pezetako isuna ordaindu ondoren kaleratu zuten.




1967an Iruñeko Aberri Egunean Andoni senarrari jarritako isuna eta haren ordainagiria

Handik 2 hilabeteetara, berriro atxilotua izan zen bere semearekin batera “ekintza ilegalen” argazkiak egin eta banatzeagatik. Honek etzuen ekarpen larriak izan, larunbat arratsaldea Tolosako “kuartelilloan” eta ondoren hiru egunez “Gobierno zibilean” Manzanasen eskuetan igarotzea izan ezik. Epailiek deuseztatu zuten kasu hura.

Hurrengo urtean, 1968an Donostiako Aberri Eguna bezperan bere bigarren semea ere atxilotu zuten, 17 urteekin, “propaganda ilegalak” egiteagatik (EGLko “Gudari” aldizkariak zabaltzea leporatu zieten berari eta beste bi lagunei) eta gaztea zelako 3 hilabete kartzela zigorra bakarrik jaso zuen eta Martutenen bete behar izan zituen 1969an.

1968an ere, Melitón Manzanos ETAk erail ondoren, Gipuzkoan berriro “estado de excepción” ezarri zutenean, bigarren semea berriro atxilotu zuten lehenengo egunean eta handik bi egunetara bere senarra ere. Aldi honetan biok Martutenen 2 hilabete ta erdi egon ondoren “Carabanchel” era eraman zituzten eta TOPen epaitu ondoren semea hamar mila pezetako zigorrarekin kondenatua izan zen eta hiru hilabete egon ondoren kaleratua izan zen eta senarra ere lau hilabete egon ondoren, beste 10.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen kaleratzeko.

Berriro, 25 urte pasa eta gero, bere senideak espetxeratuak, lehen aita eta orain senarra eta semea. Oraingoan, astero espetxera bidaiak eginaz senideak ikusteko...





TOPeko sententzia

Amale bakarrik gelditu zen garai artan, bost hilabete horietan, beste 7 seme-alabekin, txikienak 4 urte zituelarik eta zaharrenak 18.

Geroztik ere ez ziren bukatu bere sufrimenduak, 1970 ean berriro semea atxilotzen saiatu ziren poliziak “Burgosko epaiketa”ren aurkako mugimenduarekin lotuta izateagatik eta ihes egitea lortu zuen eta urte batzuek isilpean igaro zituen etxetik kanpo.

1984/2011 - ARBASOEN EUZKERA ZALEAK

Hau dena etzuen nahikoa eta 1984ean **euskal-euskalkien** aldeko talde bat ere sortu zuten euskaltzale batzuen artean eta "ARBASOEN EUZKERA ZALEAK" deitu zioten. Gipuzkoarrak eta "euskalkien" aldekoak zirenez gipuzkeraz egiten zituzten idazlan guztiak.



Joxemari Jimenez Bermejo, Imanol Mujika Alberdi, Xabier Urkiola Canton eta bera izan ziren elkartearen sustatzaileak, Bera izan zen legezatzeko paperak sinatu zituena eta lehendakaria ere, beren artean egiten zituzten idazlanak argitaratzearen arduraduna bera izan zen, lehenengo aldiari 4-8 orri mekanografiatuak izaten ziren, eta 1993tik aurrera hiru hilabetekaria ordenagailuz hobeto landuta ateratzen hasi zen, "Eri Euzkera" izenarekin. 100 bat ale argitaratzen zituzten. Azken denboraldian berak egiten zituen lan gehienak eta ahal izan zuen arteraino jarraitu zuen horretan ere, azkenekoa 2011ren otsailan argitaratu zuen, berak 87 urte egin zituenean.



Kutxa honetan aurkitu ditugu jatorrizko agiriak

Amalek irakasle lana aspaldi utzi bazuen ere, oraindik jarduten du euskararen inguruko lanetan. 'Arbasoen-izkuntza-zaleak' izeneko elkarte bat sortu du euskaltzale batzuekin batera, duela hiru bat urte inguru, euskara aberastu eta garbitzeko helburuarekin.



AMALE ARZELUS

Amale Arzelus, 1945ean Eiberra Zipitriak sortu zuen bereziki-eko ikastola eta handik lau btera Amale Arzelus, bere Amale ezkerberria zela hasi zen euskarazko klaseak ematen, ist-leu, bere etxean. Hasieran Eiberrak euskaraz gaizki zehaztuz bidualtzen zizkion Amale eta ondoren, bualtzerre heldu artean izaten zuten haurrak.

Amale Arzelus, 1945ean Eiberra Zipitriak sortu zuen bereziki-eko ikastola eta handik lau btera Amale Arzelus, bere Amale ezkerberria zela hasi zen euskarazko klaseak ematen, ist-leu, bere etxean. Hasieran Eiberrak euskaraz gaizki zehaztuz bidualtzen zizkion Amale eta ondoren, bualtzerre heldu artean izaten zuten haurrak.

Amale Arzelus, 1945ean Eiberra Zipitriak sortu zuen bereziki-eko ikastola eta handik lau btera Amale Arzelus, bere Amale ezkerberria zela hasi zen euskarazko klaseak ematen, ist-leu, bere etxean. Hasieran Eiberrak euskaraz gaizki zehaztuz bidualtzen zizkion Amale eta ondoren, bualtzerre heldu artean izaten zuten haurrak.

Amale Arzelus, 1945ean Eiberra Zipitriak sortu zuen bereziki-eko ikastola eta handik lau btera Amale Arzelus, bere Amale ezkerberria zela hasi zen euskarazko klaseak ematen, ist-leu, bere etxean. Hasieran Eiberrak euskaraz gaizki zehaztuz bidualtzen zizkion Amale eta ondoren, bualtzerre heldu artean izaten zuten haurrak.

SOSLAIA
Euskarra garbia eta mendia
Dionostian sortu zen 1924ean. Bera izan zen lau neba-arreben artean jaio zen lehenengoa. Gaztira bi neska eta bi mutil. Familia ederrean osatu da gerora ere, corti seme-alaba eta beste hurrenekin bikoizten. Gehen gustatzen zuena mendira ibiltzea egitea da, ia igandero jotzen zen; orain, berriz, gaitxogotan jotzen da, senarra estean duelako. Hondartzaz ere gustatzen du, baita hitz egitea ere. «Baina beti euskaraz», azpimarratu alege Amalek. Euskararen aldeko lana egin du, euskarra garbitu egin behar dela eta. 'Arbasoen-izkuntza-zaleak' elkarteak kidea da.

Egunkariaren aldizkariaren berri

CERTIFICADO a expedir por las ASOCIACIONES

Ciudad	N.º	Ciudad	Dígito
Servicio	Libreta		
0			

Sr. Director de la CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA San Sebastián

D. José María Jiménez
Secretario de la JUNTA DIRECTIVA de la Asociación Cultural "Arbasoen Izkuntza Zaleak"

CERTIFICA:
Que en la reunión de la ASAMBLEA GENERAL de socios de esta SOCIEDAD celebrada con fecha _____, cumplidos los requisitos que marcan los Estatutos, se ACORDÓ:

- El nombramiento de los siguientes miembros de la JUNTA DIRECTIVA:
 Presidente: Amale ARZELUS
 Vicepresid: Bicenze Lategi
 Secretario: José María JIMENEZ
 Tesorero: Imanol MUGIKA
 Primer Vocal: Xabier URKIOLA
 (Designase únicamente, los que establezcan los Estatutos)
- Contratar con la CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA la apertura de una Cta./Lib. a nombre de ARBASOEN IZKUNTZA ZALEAK
 (omitase en la renovación)
- Autorizar con carácter _____ R.1.
 (Incl. - Mascon. - Causa Reserva)
 Contenido de la Cláusula de Reserva:
 Solamente podrán utilizar la libreta de ahorro dos (2) componentes de la Directiva, que son el Secretario y el Tesorero

Ref.º 1223
AV. 13. CAP. 185-1 (I. 003.387) 21.

-D. José María Jiménez
-D. Imanol Mugika
-D. xx x xxxxxxxxxx x
-D. xxx x xxxxxxxxxx

para que abra la Cta./Lib. y dispongan libremente y sin limitación alguna de los fondos de la misma, excepción hecha de la cancelación a cuyo efecto será preceptiva la autorización expresa de la Junta Directiva, salvo que los Estatutos dispongan otra cosa.

4.º - Comprometerse a notificar a la CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA, cuantas renovaciones se den en las personas que integran la JUNTA DIRECTIVA y en consecuencia de los autorizados para disponer de los fondos de la Cta./Lib., utilizando a tal fin este mismo impreso u otro de contenido similar, exponiendo a dicha entidad de las consecuencias que se derivaran de su incumplimiento.

Y para que conste a los efectos pertinentes firma la presente certificación en _____ de _____ de 19____.

V.º B.º
EL PRESIDENTE
[Signature]

El Secretario
[Signature]

Elkartearen ziurtagiria


gn. zenbakia

Eri Euzkera

Aldizkariaren burualdea

IRUTXULO ALDIZKARIAN

Sarritan idatzi zuen ere IRUTXULO aldizkarian, hemen daude haietako 2 lantxo:



Azala



Bere idatzietako bi

EUSKERAZAINTZA

Euskerazaintzaren helburua Euskera bere euskalkietan iraunaraztea zen, gipuzkera, bizkaiera etab. "Euskera batuarekin" egiten ari zirenarekin ados ez zeudenez.

Bertako kidea izan zen ere 1979an sortu zenetik bere azken ordu-arte, hilero izaten zituzten bilerak, hasiera batean Tolosan, Eibar eta Deban eta azken denboraldian, gehienetan Bilbon eta bertara inguratzen zen autobusez Donostiatik Amale hilero. Bide batez bere semearekin asteburua pasatzen zuen gustura eta bidaiatzen zen Bizkaian zehar, bere bidaiatzeko gogo asegabeari bide emanaz. Beste batzuetan Donostian ere egiten zituzten bilerak.



Bere lanetako interesgarrietako bat "IKASTOLAK" izenburuarekin egindakoa izan daiteke.

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

LVIII Zenbakia 2006n. urtea-2

EUSKERAZAINTZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKERAZAINTZA. Euskeraren Erri Akademia.
Z.N.A.I.C.F. G 20127.759
Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldian, 1136 zenbakia.
Erri Zuzduktasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)
Zuzendakoa: Colom de Lamaregi, 14-2º 49001 BILBAO

LVIII Zenbakia 2006 urtea-2


AURKIBIDEA

ATARIKOA (Oskar'tar Martin'ak)	5
LORTUAK ETA LORTZENKAK (Oskar'tar Martin'ak)	6
IKASTOLAK (Arzelus'tar Amale'k)	7
EUSKEREAREN AIZKI ZARRAK NONIK NORA (Iker Joseba Lakak)	17
ATSOTITZAK ETA ESAKERAK (Ana Urtarri'k)	48
BEAR-BEARREKO ITZEGITZAK (Etxebarria Asier'ak)	88

EUSKERAZAINTZA
I. S. B. N. 1136-3118
Logozko Gordetza: B-1928-87
Kompositorea: Flash Composition, S. L. - Bilbao

Euskerazaintzako 58gn aldizkariko azala eta aurkibidea

2000 eta 2003gn urtetan behintzat, idazkari lanak egin zituen ere bertan, ordenagailuan aurkitu ditugu hainbat agiri berak prestatutako «deialdiak» eta egindako «batzar agiriak».



Berak, idazkari zenean egindako lehenengo eta azkeneko deiak

Lehenago eta azkeneko batzar-agiriak

“Euskerazaintza”

1.979ko urtean Kardaberazen bidetik sortu zanean Euskerazaintza edo Euskerearen Erri Akademia, ezagutu neban nik Arzelus eta Arrieta 'tar Amale. Lenengo illean amabostero eta gero illeroko zapatu guztietan alkartzen giñe, Tolosa, Eibar, eta Deban egiten genduzan batzarretan.

Beti irripartsu, arduradun ta laguntzeko prest euki genduan gure Amale maitagarria.

Badakit arduratuta egongo dala, bear dogun laguntza goiko Zerutik Euskalerriri ta guri emoteko.»¹⁵

AMALE EUSKALTZAIN / EUSKERAZAINTZA 15gn urtebetetzean

15 garren urtebetetzean Donostian egin zuten bilera irekia, bertan Amalek “EUSKALTZAINA” izendatu aurretik eman zuen hitzaldia bere aita “Luzear”en bizitzari buruz izan zen.



Euskerazaintzako kideak 1994ean

EUSKERAZAINTZA - EUSKERAREN ERRI-AKADEMIAK,

Arzelus'tar Amale Euskerazañak,

1995'ko Azaroaren 4'an, Gipuzkoa'ko Kutzak Donostia'n, Arrasate kaleko 12'gn. zerbakian duan aretoan, eguerdiko 12'tan emango duan Sarrera-itzaldira dei egiten dizu.

Itzaldiaren gaya,

ARZELUS'TAR ANDER «LUZEAR», IDAZLEA

Erantzuna, ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN Lendakari-ordeak emango dio



¹⁵ Atutxa eta Agirre 'tar Paul / Zornotzan 2.015eko urtean Azaroaren 27'an. / ZER 422 gn aldizkarian, Amale hil ondoren.

1984 / JOSEBA ZINKUNEGIren omenez oroigarri-plaka bere jaiotetxean

Euskerazaintzan egindako lanen artean 1985ean, Joseba Zinkunegi, sendagile eta idazlearen 100gn jaiotze-urteurrenean, Amale beraren aitagarrebari, Errezil, bere jaioterrian omenaldia egin zitzaion eta bere jaiotetxeko horman bere omenez oroigarri-plaka bat ezarri zioten.



1938an Bartzelonan, Euzkadi ospitalean



1947an Iparraldean erbestean

Joseba 1985ean jaio zen Errezilen, 2011n Sendagille titulua atera zuen Valladoliden. Aian eta Errenderin hasi zituen sendagintza lanak eta 1920an Zarautzera joanda han jarraitu zituen bere sendagintza lanak jubilatzen artean. Baina tartean, 36ko “guda zibila” medio, 1937an Bilbon izanik lehenengo Euskal Unibertsitateko “sendakintz Euskera” ko katedratikoa izendatu zuten eta Bilbo erori artean horretan haritu zen bertan. Handik Bartzelonan Eusko Jaurlaritzak eragindako “Euzkadi” Hospitalean zuzendari eta sendagile bezala haritu zen Bartzelona 1938an frankisten eskuetan erori artean. Geroztik eta 1948 arte erbestean bizi izan zen Iparraldean. Indultu bat medio 1948an Zarautzera bueltatu ahal izan zuen eta han bizi izan zen 1964 zendu zen arte.

Sendagile izateaz gain euskal idazle garrantzitsua ere izan zen, besteak beste Balmesen “El Criterio” euskeratu zuen “IRIZPIDEA” izendatuta 1920 aldean “Euskal Esnalea”n argitaratua izan zen.

Beste itzulpen asko ere egin zituen eta azkenaldian, 1957an “Zigor” operako idazlanarekin irabazle izendatu zuten ABAOK prestatutako euskal-opera lehiaketan. Doinua Escuderorena izango zen.

1964ko urtarrilak 9an zendu zen 79 urteekin Zarautzen.



Iparraldean 1938an Zinkunegi Zabala sendia. Gotzonen faltan.



Errezilgo herria



1986an Errezilen oroigarri-plaka jaiotetxean



Zarautzen badu bere oroimenez, bere izeneko kalea

1998 / "LUZEAR"i omenaldia (1898-08-15/1949-08-27)

100gn



jaiotze-urteurrenean bere aita, Ander Arzelus "LUZEAR" eri omenaldia prestatu zion EUSKERAZINTZAK Donostiako Kutxa aretoan.

Amalek berak hitz egin zuen bere aitari buruz, baita ere laguntzaile izan zen "Sabino Arana Fundazioa"ko zuzendari zen Aurre jaunak eta Koruko Aizarna, Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura saileko zuzendariak ere hitz egin zuten LUZEAREri buruz.

Ondoren bazkaritxo bat ere egin zen EUSKERAZINTZAKo kide eta sendiko batzuekin.

Honetarako Amalek bere aitaren bizitzari buruz laburpen bat idatzi zuen eta liburuxka bat argitaratu zuen Euskerazaintzaren bitartez.





EUSKERAZAINTZA ko kideak 1998an Amara Berri sagardotegian




Amalen liburuxkaren azala

EUSKERAZKO KATEKISTA 2006-2007

Horretaz gain ere aipagarria da bere kristautasuna, bizi guztian jarraitu zituen zintzoki bere sinesmenarekiko betebeharrak, seme-alabak horretan hezten ere saiatu zen bizi guztian, baita ere bere ikastolako haurrak ere garai haietan ohikoa zenez.

Beste eginbehar bat ere «katekesia» ematea izan zen, garai batean, mende honetan sartuta, bera haritu zen Gros auzoan katekesia euskaraz ematen, ez dakigu zenbat denbora, 2006-2007 urteetan behintzat bai iritsi zaizkigun paperen arabera.



SAN IGNACIO 2006-2007

CATEQUESIS 3ER TRIMESTRE

ABRIL APIRILA	LUNES	MARTES	MIÉRCOLES	JUEVES
	16 Padres 3º CASTELLANO	17 Padres 1º y 2º CASTELLANO	18 Padres 1º y 2º EUSKARA	19 Padres 3º EUSKARA
	23 Niños 1º, 2º, 3º y 4º EUSK. Y CAST.			
	30 Niños 3º y 4º E y C			
MAYO MAIATZA	LUNES	MARTES	MIÉRCOLES	JUEVES
	7 Padres 3º CASTELLANO	8 Padres 1º y 2º CASTELLANO	9 Padres 1º y 2º EUSKARA	10 Padres 3º EUSKARA
	21 Niños 1º, 2º, 3º y 4º EUSK. Y CAST.			
	28 Niños 3º y 4º E y C			

CATEQUISTAS:

1º. PADRES: Mª José, Mikel (C), Mikel (E). NIÑOS: Conchita N., Blanca, Mª José, Ana, Eva (C), Begoña A., Amale (E).
2º. PADRES: Patricia, Blanca (C), Begoña O. (E). NIÑOS: Doris, Inma, Conchita (C), Amale, (E).
3º. PADRES: Juan Mari, Maritxi (C), Begoña O. (E). NIÑOS: Mª Eugenia, Mari, Maria (C), Lourdes, Mª Luisa (E).
4º. NIÑOS: Los lunes de 3º a las 7. Catequista: Mª Jessa, Irune

HORARIOS: Padres: 19h

Niños de 1º y 2º: 18h. Niños de 3º y 4º: 19 h

INFORMATIKA - 2001-2014

Gaztetatik menperatu zuen mekanografia, gerra ondoren bere lanean erabiltzen zuen inprentan lanean aritu zenean eta geroztik bere “beste lanetarako” ere garrantzizkoa izan zuen, teknologiari ere ez zion beldurrik eta 77 urterekin 2001an hasi zituen bere informatikako ikasketak, horrela burutu zituen WORD eta INTERNETeko ikasketak eta geroztik beti erabili izan zuen ordenagailua bere lanetarako.

78 urte egin zituenean bere seme-alabengandik jaso zuen oparia ordenagailu bat izan zen.



S. E. I. M.
CENTRO DE ESTUDIOS INFORMÁTICA
Mituruz. 10 - 20001 San Sebastián
Telf: 943.27.58.19 - Fax: 943.29.38.78
E-mail: seim@centroseim.com

S.E.I.M. - Formas profesionales informáticas desde 1970.
CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR:
- Desarrollo de Aplicaciones Informáticas (DOPV 28-12-99)
- Administración de Sistemas Informáticos (DOPV 28-12-99)

Diploma

Otorgado a Dña. **AMALE ARZELUS ARRIETA** And.-ri emana

"EMAWEB+" (Oinarizko Informatika, Testu Prozesadorea eta Internet) Teknologia Berriko Ikastaroan probetuz hartu duelako parte.

Por su participación con aprovechamiento en el Curso de Nuevas Tecnologías "EMAWEB+" (Informática Básica, Procesador de Textos e Internet).

Emaitza / Impartido por: **SEIM**

Iraupena / Duración: **52** Ordu / Horas

Emaitza
Txoro Arango

Eusko Foruak
Gobierno Vasco
Joneko Azkarroga

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Jose Ramon Bakela

Caja Laboral
EuzkoLan Kutxa
Koldo Aizpuru

Donostia-San Sebastián, 2009ko abuztuaren 17a / Donostia-San Sebastián, 17 de Junio de 2009

Certifico que, Dña. Amale Arzelus Arrieta
ha cursado en nuestro Centro, los estudios de

INTERNET

habiendo asistido con aprovechamiento y mucho interés.

Duración del Curso: 24 horas

San Sebastián, mayo 29 de 2001

Ignacio
Profesor del Curso:
Ignacio Gonzalo



Antonio
Director de S.E.I.M.
Antonio Calderín

200lean informatikako ikasketaren ziurtagiriak

OCUPACIONES LABORALES/ b

COMPETENCIAS LITERARIAS Y HUMANIDADES	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Ir a conciertos o al teatro	X			
2 Realizar un curso de historia en la escuela de adultos	X			
3 Leer periódicos o revistas	X			
4 Leer novelas	X			
5 Leer obras científicas	X			
6 Llevar un diario íntimo				
7 Ir al cine	X			
8 Desmenuzar el árbol genealógico		X		
9 Escribir poemas			X	
10 Traducir una carta al inglés u otro idioma	X			
PREDISPOSICIÓN				

COMPETENCIAS SOCIOEDUCATIVAS, PEDAGÓGICAS Y ASISTENCIA SOCIAL	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Hacer visitas a ancianos		X		
2 Atender a familiares enfermos		X		
3 Jugar con niños	X			
4 Hacer trabajo voluntario en el centro juvenil		X		
5 Ayudar a un/a amigo que está con problemas	X			
6 Potillar para una fundación benéfica				
7 Acoger a un niño fligativo				
8 Invitar a niños extranjeros a pasar sus vacaciones en tu casa				
9 Acompañar a escolares de excursión				
10 Penetrar en la problemática de las drogadicción				
PREDISPOSICIÓN				

COMPETENCIAS AGROPECUARIAS	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Equipar plantas				
2 Mantener un huerto				
3 Cuidar animales				
4 Observar plantas en la naturaleza				
5 Hacer piezas / arreglos florales				
6 Cultivar hierbas, rosales				
7 Realizar labores de limpieza de áreas naturales				
8 Hacer apicultura				
9 Secar flores				
10 Criar perros u otros animales				
PREDISPOSICIÓN				

OCUPACIONES LABORALES/ a

COMPETENCIAS DE ARTESANÍA CREATIVA	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Coser ropa				
2 Hacer punto o ganchillo		X		
3 Pintar vivo dibujar				
4 Hacer una casa de muñecas				
5 Hacer bisutería				
6 Estampar tejidos utilizando cera				
7 Tejer un tapiz				
8 Grabar al aguafuerte				
9 Diseñar un vestido				
10 Fotografar		X		
PREDISPOSICIÓN				

COMPETENCIAS DE ALIMENTACION Y ORGANIZACION DOMESTICA	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Preparar un buffet frío		X		
2 Componer el menú de Navidad	X			
3 Cocer pastries				
4 Poner y decorar la mesa de manera festiva	X			
5 Hacer conservas de frutas y verduras				
6 Hacer de soufflé en una fiesta de cumpleaños				
7 Preparar una nueva receta de un plato	X			
8 Seleccionar el vino para una cena de invitados				
9 Preparar un plato desconocido en un restaurante	X			
10 Coleccionar recetas vegetarianas				
PREDISPOSICIÓN				

COMPETENCIAS DE COMERCIO Y NEGOCIO	SE HACER	+/+	NO SE HACER	EJEMPLO DE OCUPACIONES
1 Organizar un mercado de 3º mano				
2 Desenvolverse en la junta directiva de la guardería				
3 Convencer a la gente de que el aislamiento térmico de su casa ahorra energía				
4 Presidir la reunion de la asociación deportiva				
5 Organizar una barbacoa para los vecinos				
6 Vender trastos en un mercadillo	X			
7 Reanudar al comprar un coche de segunda mano				
8 Hacer de portavoz en una protesta			X	
9 Vender ropa/bisutería de fabricación casera				
10 Planear y organizar un viaje de vacaciones				
PREDISPOSICIÓN				

MIS INTERESES OCUPACIONALES

Vamos a trabajar sobre tus interés o gustos, de modo que puedas confirmar los que tienes o descubrir algunos nuevos. En todo caso ten en cuenta que éste es un ejercicio que, sin duda, te ayudará a contrastar con tus impresiones personales.

LISTADO DE ACTIVIDADES

CONTROLAR-GUARDAR (CUIDAR NIÑOS) AYUDAR (INFORMAR-VIAJAR) EDUCACIÓN FÍSICA, TRABAJO EN CONTACTO CON EL PÚBLICO, (SOMOS) VENDER (NATURALEZA) TRABAJAR CON ANIMALES, (TRABAJAR AIRE LIBRE) OFICINA, GUARDAR, TRABAJAR EN LABORATORIO, TRABAJOS DE PRECISIÓN (MONTAR JOYAS, CHIPS, RELOJES), MODELAR MATERIALES CONCRETOS, INVESTIGAR, (BUSCAR INFORMACIÓN, TRABAJO ARTÍSTICO, TRABAJO EN EQUIPO, TRABAJO AUTÓNOMO) HACER POR TELEFONO, ASESORAR, (ESCRIBIR A MÁQUINA) ORGANIZAR VIAJES DE OÍDO, GUARDAR, GUARDAR ANCIANOS, (ESTUDIOS SOCIALES) PLANIFICAR, CONTROLAR-LA CALIDAD DE PRODUCTOS, CONSTRUIR EDIFICIOS, ENSEÑAR-EDUCAR, ESTUDIAR-MERCADEO, DIBUJAR-PROYECTAR, (REDUCTO), LLEVAR LA CONTABILIDAD, (COJAR UN INSTRUMENTO) GUARDAR ANUNCIOS, ARREGLAR AZARAJOS, MONTAR CIRCUITOS ELÉCTRICOS, CONFECIONAR ROPA, PREPARAR DIETAS Y REGIMENES-TERAPEÚTICOS, (BAILAR) COORDINAR CAMPAÑAS DE PUBLICIDAD, MANTENER ACTIVIDADES TURÍSTICAS, PLANIFICAR COMPRAS, ACTIVIDADES DEPORTIVAS, (ORDENAR) DISTRIBUIR PRODUCTOS, CORREGIR TEXTOS, ACOMPAÑAR GRUPOS DE EXCURSIÓN, ORGANIZAR, COCER, ENCUESTAS, CONSERVAR MÁQUINAS O VEHÍCULOS, ANIMAR (DEFENDER) ASESORAR, (CONTROLAR EL MEDIO AMBIENTE) VIGILAR EL ORDEN, CLASIFICAR Y ARCHIVAR, RESUMIR-TEXTOS, DIBUJAR ILUSTRACIONES, PENSAR, TRABAJAR EL CUERO, ESTUDIO DE RADIO-TV, ANÁLISIS QUÍMICOS, RESTAURAR COSAS-ANIMALES-PINAR, (TRADUCIR TEXTOS) (CONTAR) (ESCRIBIR) TRABAJAR EN LA ADMINISTRACIÓN: PUEBLA, REPORTAJES, TRABAJAR EN PAPEL, ORGANIZAR ACTIVIDADES EN EL BARRIO, PLANIFICAR, COCINAR, DISTRIBUIR PRESUPUESTOS, (LEER) PROTEGER CIUDADES, ORGANIZAR ACREDITACIONES, DIRIGIR A UN GRUPO DE PERSONAS, REPRESENTAR HACER POLÍTICA (ANALIZAR INFORMACIONES), (PUEDES AMPLIARLO)

- 1- De las actividades del listado:
 - a) Tacha aquellas que no te gustan nada
 - b) Dibuja un círculo en aquellas que te gustan mucho
 - c) Subraya las que simplemente te gustan
- 2- Coloca en las columnas los apartados b y c. Observa atentamente, estos dos bloques (las que te gustan y las que te gustan mucho).

ME GUSTAN	ME GUSTAN MUCHO
<i>Viajar</i> <i>Idiomas</i> <i>Naturaleza</i> <i>Oficina</i> <i>Escribir a máquina</i> <i>Enseñar-educar</i> <i>Ordenadores</i> <i>Escribir</i> <i>Leer</i> <i>Hacer política</i> <i>Analizar impresiones</i> <i>Canjar</i>	<i>Viajar</i> <i>Idiomas</i> <i>Naturaleza</i> <i>Oficina</i> <i>Enseñar-educar</i> <i>Ordenadores</i> <i>Leer</i>

Garai hartan egin zioten galdeketa bat bere jarduerari buruz

POLITIKA, EAJ, EA, HB...AMNISTIA

Bere aitona eta aitaren bidetik jarraituz Sabindarra leporaino izan zen bizi guztian, hortaz EAJko kidea izan zen gaztetatik, frankismo garaian isilpean eta hura hil ondoren alderdian jarraitu zuen denboraldi batean.




Ez ziren faltatzen Alderdi egun eta horrelakoetara

Baina haiek Sabinen bidetik urrutiratzen zihoazela ikusiaz ez zegoen ados eta Bermeoko Ormazaren taldearekin haritu zen denbora batean, baina haiek ere Alderditik baztertuak izan ziren eta EA sortu zenean bertan sartu zen. Haiekin jarraitu zuen beste denboraldi bat baina hauek ere utzi zituen eta 1995 aldera ezker abertzalera inguratu zen eta bere azken denboraldia horrela jarraitu zuen, ezker abertzalearen inguruan.

Baina beste atsekabe han-dienetako bat ere sufritu behar izan zuen sendian, bere iloba **BAKARTXO ren erailketa!** 1988an urtarrilaren 15 ean G.C.ek erail zuten Erreterian beste hiru lagunekin, ETako komando batekoak zirelakoan tirokatu zituzten.

Hura izan zen sendian errepresio bidean jasan behar izan zuen azken ezbeharrak, eta zalantzarik gabe gogorrenetakoa.

Beti izan zuen euskal presoekiko kezka, nahiz eta azken denboraldian bere sendiko inor ez preso izan, bera presoan alde egiten ziren ekitaldietan izaten zen, Arantzazuko taldea, Balentxi eta beste askorekin adibidez, baita kaleratze ekintzetan ere bere azken egunetaraino.



Egiten zituzten ekintzetako bat presoekin gutun bidez harremanak izatea zen eta berak horrela izan zituen harremanak preso askorekin, nahiz eta aurretik elkar ez ezagutu.

Berak idatzitako batzuek eta berak jasotako gutun asko aurkitu ditugu, hamabost bat presoren berri ba dugu, hauek dira arkitu ditugunak, Fernando Arburua Iparragirre, Juan Luis Agirre Lete, Jose A. Biguri Camino, Xabier Cano Artze, Didier Agerre, Ander Errandonea Arruti, J.Erostegi Bidaguren, Belen Gonzalez Peñalba, Victor Goñi Martinez, Ainhoa Garzia Montero, Gorka Loran Lafourcade, Antxon Sasiain, Jose G. Urizar Murgoitio, Joakin Iranzu, Fermin Ventura Perez, Kandido Zubikarai Badiola.

Belen Gonzalez Peñalbarekin ere kartzeletatik izan zituen harremanen berri ba dugu, etxeratu zuten arte gaixotasuna medio, geroztik, nahiz eta «etxean-kartzelatuta» zegoela bere etxe inguruan bititu, etzuen berarekin harremanik edukitzerik izan.

KRISTAU ELKARTEAREN KONPROMEZUA
GIZARTAREN EKINAREN KONTAKU BATERA, "HERRIRA".
ESPEITXEN SISTEMA SUNTSITZAILLE HONI EZI!
 Eguna berria presoen ezinbesteko alde eta konpromisoaren aldeko beldura berria da. Eguna berria da, baina konpromisoa gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu. Hori hori. Arantzazuko ASIS TOPAGUNEAN presoen beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu, guztiak batera. Arantzazuko ASIS TOPAGUNEAN presoen beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu, guztiak batera. Arantzazuko ASIS TOPAGUNEAN presoen beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu, guztiak batera.

En la nueva etapa que vivimos en Euzkadi Herria, cuando el impulso a favor de los derechos de los presos y presas se hace tan colosal, debemos enganchar nuestro compromiso individual y sobre todo colectivo, con las iniciativas sociales. Nuestra propuesta es aprovechar este encuentro de Arantzazu para conocer iniciativas en marcha y concretar nuestra respuesta consecuentemente, la que implique a colectivos y entidades cristianas, Compañías, Parroquias, Diócesis... en las que somos parte. Sin olvidar al colectivo de presas y presos, queremos implicarnos en el desmantelamiento del Sistema Penitenciario inhumano vigente, desmantelándolo y ayudando a su reforma.

FOR UN COMPROMISO INDIVIDUAL Y COLECTIVO DEL MUNDO CRISTIANO FRENTE A ESTE SISTEMA PENITENCIARIO INHUMANO

ARANTZAZU 2012
 Kristau elkarteak gonbidatzen zaitu
 Martxoak 25 igandearako
 gutuzko 10:00etatik 13:30ak arte

ARANTZAZUKO ASIS TOPAGUNEAN
PRESO GUZTIEN ALDE
BERAIEN ESKUBIDEKIN, HERRIRA



NO A ESTE SISTEMA PENITENCIARIO

Domingo, 25 de marzo
 desde las 10,00 a las 13:30 horas

ASIS TOPAGUNA DE ARANTZAZU
 Te invita la comunidad cristiana

PROGRAMA

9:30... Tiempo para llegada, encuentro, saludos iniciales...

10:00... Momento de oración y presentación del programa

10:20... Componentes de la iniciativa "Egin dezagun bidea. Herria" presentarán sus objetivos y líneas de trabajo

11:00... Trabajo en los grupos pequeños para debatir el modo en que podemos contribuir a estos objetivos desde los Colectivos y Organizaciones cristianas. Es momento de buscar formas concretas de implicación para el mundo cristiano más allá de lo individual.

11:50... Concentración en la explanada con la pancarta, para dar a conocer nuestra reivindicación quienes acuden a la misa. Tiempo de descanso que aprovechamos para repartir direcciones de presos-os y postales.

12:10... Puesta en común de todo el grupo. Presentación de las propuestas de compromiso y opciones.

13:00... Oración Eucarística (para quienes quieran participar)

13:30... Comida (dando aviso previo - llamada una semana antes a Miren, 943278760- para tener un número aproximado)

FOR LA JUSTICIA, LA AMNISTIA Y LA PAZ

EGITARRAUA

09:30... Topaketa, agurak, hitzen josteko unea

10:00 Olotza eta lan egitararen aurkezpena

10:20 "Egin dezagun bidea. Herria" proiektuaren aurkezpena: Presoen alde lan egiteko aurkezpena eta zehazpenak

11:00 Lan txikietan Kírán Koloboko eta Euzkadiarek izan dezakeen partekatzea aztertuko denbora. Konpromisoa zehatzeko proposamenak zehazteko talde trukeko lana (Zer - Nork - Non)

11:50 Arantzazuko zabalgotan elkartzeko gara pankartarekin, gure deialdia ezagutarazteko.

Azkeneko etapa presoen helburu eta txosten berraketa.

12:10 Bideratze-lanarekin denbora talde handian. Konpromisoaren aurkezpena eta berraketa.

13:00 Olotza Euzkadiarekin (parte hartu dutentzat)

13:30 - Barkaria (iruzen aurretik eman - deku aste bat lehenago Miren, 943278760- gutxi gorabeherako kopurua ezagutzeko)

JUSTIZIA, AMNISTIA ETA PAKEAREN ALDE



PRESOAK KALERA

Rta.: José A. Biguri Camino
 C.P. Herria, Mod. IV - Apdo. 77
 13.200 Manzanares - Ciudad Real

Amale Arzelus Arieta
 K/ Perla y Gobi, 10, 5º Edifera
 20002-DONOSTI
 GIPIZKOA

AMALE ARZELUS
 PERLA Y GOBI, 10. 5º EDIF.
 20.002 DONOSTIA
 GIPIZKOA

Kaixo Kaixo,

Agurtzen jarri nahi duzue, Arantzazuko bidea...
 eta beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu. Hori hori. Arantzazuko ASIS TOPAGUNEAN presoen beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu, guztiak batera.

... eta zure konpromisoa behar dugu, eta...
 M. gertatu dena, ez behar. Baina zure konpromisoa behar dugu, eta beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu. Hori hori. Arantzazuko ASIS TOPAGUNEAN presoen beldura gaiti, kronika eldara eta erabileraren eragina behar dugu, guztiak batera.

Preso batzuen gutunak «Puerto» tik

Naiz eta segurki hauetako eskutitz gehienak eskuizkribuak izan, ordenagailua bidez ere idatzi zituen noizbait eta honela aurkitu dugu Beleneri idatzitako gutun bat, jarraian zati bat sartu dut:

«Donosti'n 2006'ngo. Urtarrilla'k

Kaixo Belén adiskide:
 Zure azkeneko eskutitza Joux la Ville'tik idatzitakoa da. Bertan, "España" rako bidean laister izango zifala adierazten zenidan. Asieran ez nekin nora eraman zinduzten, baiña galdetuaz jakin nun.
 Ez dakit nere Gabon eta Urte Berria'n bialdu nizun "tarjeta" jaso desuní. Benetan zure berri jakiteko irrikitzen nago. Aldaketa au, onerako izatea nai nuke. Ea ala gertatzen dan.
 Urduri zifala esaten zenidan; ez da arritzekoa! Askok poztu nintzan "koketa" izaten jarraitn dezula jakitean. Aurrera bai, jarraitu "animo" orekin. Guretat, ereduaz zerate. Nere eskutitzak pozik artzen dituzula ikusten det eta asko poztutzen naiz, baiña nik egiten dedana ez da ezer zuek egiten dezutenaren aldean. Zure eskutitzak nere barru sartzen zaizkit, eta ni nago eskertua idazten didazulako.
 Ni ere ordenagailuan idazten ari naizela ikusten dezu, baiña ez da zuk orrela egin zenidalako; eskuz idaztea naiago det, baiña "anka sartzen" danean ezin da zuzendu edo konponketa itxusia gelditzen dalako baizik. Ondo iruditzean ai zaizu?
 Zure argazkia egunkarian azaldu zan eta ementxe daukat goxo goxo gordeta. Onela ba argazkiz beintzat ezagutzen zaitut eta ez da gutxi! Ea laister zu benetan ezagutzeko zoria iza-ten dedan. Ala bedi!...
Oso ondo diozu, belaunaldiz belaunaldi piztutako sua ez digute itzaliko. Gure aita espetxean egon zala esana dizut noski. Idazten didazunean esango didazu eta askorik esan ez ba'dizut, urrrangoan zeaztasun geiago emango dizkizut. Zuen eskutitzak irakurtzen ditudanean, bereak, gure aitarenak etortzen zaizkit burura. Gauza batzuek bein baiño geiagotan idatziko dizkizut eta beste batzuek berriz beñerez. Bueno, orain ez zait ori gertaturko, azkeneko eskutitzen "fotocopiak" egin bai ditut. Eta au "ordenagailuan" geldituko da; ortaz idazterakoan zer esan dizudan eta zer ez ikusteko, ementxe izango ditut.»
 Ea ba, laister izaten dedan zure berri. Oraingo au ementxe bukatuko det, laister zure eskutan izango dezulakoa.
 Zure "musutxo pilo" artu det, poz pozik, eta zuretat musu eta besarkada bero-beroak, biotzez.¹⁶

¹⁶ Belen Gonzalezeri Amalek idatzitako gutun bat bere ordenagailutik jasota.

Bere presoen aldeko lanak etzuen neurririk, hor izaten zen asteroko kalera irtetze ekitaldietan ahal zuten guztietan, bere bizi guztia euskal borrokalarien aldeko lanetan aritu zen.



Zendu baina hilabete lehenago izan zen presoen aldeko bere azken ekitaldian.

EUSTAKIO, OTAEGI, BAKARTXO,

Gogoan zituen ere bidean eroritako borrokalariak, bereziki Eustakio Mendizabal "Txikia" berarekin Andonik izandako harremanen ondorioz, bere sendiarekin ere izan zituzten harremanak. Nola ez bere iloba Bakartxo eta, beste maila batean, Elbira Zipitria ere.



Otaegiren hilobian



Eustakio Mendizabal "Txikia"ren hilobian bere sendiarekin



Elbira Zipitriaren hilobian



Bakartxo Arzelus Arzelus

Horretaz gain ere aipagarria da bere kristautasuna, bizi guztian jarraitu zituen zintzoki bere sinemenarekiko betebeharrak, seme-alabak horretan hezetzen ere saiatu zen bizi guztian, baita ere bere ikastolako haurrak garai haietan ohikoa zenez.

2015 AZKEN URTEA

Oneraino iritsiaz gero, ez dago esan beharrik ere bizi guztian ez zela izan geldik egoteko emakumea, sekula ez zen etxean gelditu zer egin jakin gabe, ez zegoen horretarako astirik...

Lau urte eta erdi zituenetik hasi zen bere aztarnak bidean uzten, horren ondorioz idatzi ahal izan dut onerainokoa, berak, bere bizitzaren berri beti eman ohi zigun, nahiko harro sentitzen zen egindako guztiagatik, baina gauza asko orain jakin ditut zehazki, aldizkarietan eta liburuetan beratzaz idatzitakoak irakurrita.

Esana dut ere bera bere kabuz baliatzen zen artean ez zuela utzi bere EUSKERAZAINTZako bileratara joaterik behin ere, naiz eta horretarako Donostiatik Bilbora autobusa hartu behar izan zuen sarritan. Bidai oiek gurekin Bizkaian zehar bidaiatzeko aprobetxatzen zuen.

2011 garren urtean ditut azken argazkiak bilera ondoren egiten genituen bidaiaren lekuko, beste askoren artean bi hauek, Baias ibaiaren jaiotza aldean Gorbeian eta gero Oroko santutegian, Murgian:



2011an Gorbeian, Baias ibaiaren zubi batean



2011an Oroko santutegian, Murgian


Azkeneko urtea betiko eran hasi zuen, alaitu, bere azkeneko Sansebastianetako danborrada beti bezala ospatu zuen eta bidaiatxoak egiten jarraitzen zuen aukera zuen bakoitzean. Horrela jarraitu zuen bere azken sei bat hilabete arteraino.



Azkeneko danborrada



Jaizkibelera azken bisita



Alaitu, ia beti bezala

Baina bizitzak dakarrena iritsi beharra zen, bere indarrak bukatzen zihoazen eta maiatzean ibiltzeko indarrrik gabe gelditu zen eta gurpil-aukia erabili behar izan zuen orduetik aurrera eta ala ere, bere bizi guztian bezala, ez zen etxean egotekoa eta gurpil-aukiarekin egunero kalera irteten jarraitu zuen seme-alaba, iloben, suhien, errainen eta sendiko guztien laguntzarekin.

Ala eta guztiz, nahiz eta bere gorputzak indarra galtzen joan, burua etzuen sekula galdu.

Gauero, oheratzean, beti zerbait irakurri beharra izaten zuen loak artu aurretik.


Hilabete oietan etzuen sekula inoren falta izan, nahiz eta gehien zaindu zuena berarekin bizi zen, ez azkeneko urte honetan bakarrik, bere bizi osoa berarekin bizi izan zen, bere zazpigarren semea Eneko izan zen, berari eskertu behar diogu egindako lan guztia batez ere amaren azken urte oietan.



2015-04-18 Ekainekin



2015-05-11 Itxaronerekin



2015-07-12 Irakurtzen ohean...



2015-05-29 Saguesen



2015-07-22 Nerearekin



2015-08-03 Intzarekin



2015-05-31 Intzarekin




2015-05-31 Aitzalekin



2015-06-07 Eneko eta Martarekin



2015-07-11 Eneko eta Garikoitzekin



2015-07-15 Hipoglucemia!


Urteak zeramazkien gozorik jan gabe eta pastilla pila artzen, DIABETIKA ZELAKOAN! Pastillak kendu genizkion eta gozoak jan arazi eta... hurrengo egunean 98! Hortik aurrera glukosa geuk neurtu eta kontrolatuta ia pastilla gehienak kendu behar izan genizkion eta ez zen berriro hipogluzemian erori.




2015-06-29 Bere ardotxoa ez zitzaion falta jateko orduan



2015-07-13 Itxaronekin txantxetan...



Hau beharrez gero bakarrik edaten zuen



2015-07-31 Eñaut, Aimar eta Enekorekin



2015-08-03 Aitzol, Maitane eta Intzarekin



2015-08-03 Amale, Maitane eta Intzarekin



2015-08-04 Ekainekin



2015-08-17 Koru, Garikoitz eta Enekorekin



2015-08-21 Etxaun eta Heberekin jolasten...



2015-06-10 "Txé"rekin ukabila altxatua



2015-09-02 Ohean bakarka kartetan



2015-07-27 Azkeneraino irakurtzen jarraitu zuen



2015-09-16 Tabakalerako egoitzak ezagutu nahi izan zituen ere



2015-07-15 Ilunabarra Zurriolan



2015-09-25 Zinemako alfonbra gorrian



2015-09-28 Aimorekin azken afarian



2015-09-28 Azken ilunabarra...

Eta bere azken arratsaldea, egunero bezala, kalean pasa zuen, eta etxeratu zenean itzali zitzaigun bapatean, bukatu dan kandelatxo bat bezala...

**AMALE ARZELUS
ARRIETA**

(Andoni Zinkunegi Zabalaren alarguna)
-Golán Bego-



Herenegun hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu ondoren.
Seme-alabak, Ander eta M^a Carmen, Jonani eta Marta, Amale eta Joxe Mari, Lide eta Jose Luis, Koru eta Iñaki, Eneko, Onintze eta Fermin, Itxarone eta Santos; bilobak, birbilobak; anai-arrebak, Itziar eta Juanito (1), Ander eta Nieves, Iñaki (1) eta Miren Maite; ezkon-anai-arrebak, Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPI ETA ERDIETAN**, Gros auzoko **MARIAREN BIZTZA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Donostian, 2015eko irailaren 30ean.

Oharra: Gorpu beila Errekalde auzoko Vascongada Ehorzketako tanatorioan dago, gaur asteazkena 11.30ak arte.



Amale Arzelus idazle eta aktore euskaltzalea hil da

ANTZERKIA • Joan den astearte an hil zen Amale Arzelus antzerkiko aktore eta idazlea, 91 urte zituela. Ander Arzelus Luzean altaren eskutik, artean ume zela hasi zen euskarazko irratigintzan parte hartzen eta antzerkiko aktore lanetan. Horrez gain, hainbat aldizkari eta egunkaritan kolaboratu zuen, *Euskaldunon Egunkaria*-n besteak beste. Antzerkizale saria eman zion EHAZek 2011n.



Amale Arzelus, CARLOS GARCIA DE HARO

3.
DONOS
KREDITU
KOPUR
laz bain
kreditat
Zinema
tatik, L.
duerri
de, 1.0
569 ko
Ikusle
Zinem
getia

Berria



Diario Vascon



Gizartea

ZER 3

“AGUR!!”

“ARZELUS eta ARRIETA tar AMALE”

1.924. 02. 19 – 2.015. 09. 28

Atusia eta Agirre tar Paul
Zornotzan 2.015eko urtean Azaroaren 27an.

Euskal aberkide eta euskaltzale sutsu bat il jaku, euskeraren eta euskal nortasunaren alde bere bizitza emon dauena, etenbago eta maitagarriko bizi ekintza baten.

Al izan dauan euskeraren aldeko erakunde guztietan sartuta egonda. Eta Donostin bizi arren, gorputzez ez bazan bai gogoz, Euskerazaintza ta Euskerazaleen batzarretan beti euki dogu kiden artean.

Baina berba geiagorik egin bage, goazan zeazten bere bizitza, jakin daigun zelakoa izan dan euskal nortasun audikio emakume au, gorputz txikiakoa izan arren.



Amalen aurkezpena.

Arzelus eta Arrieta tar Amale, Arzelus tar Ander eta Arrieta tar Amaliak, Donostin irasi eben euskal kabi ederrenean jaio zan, 1.924ko urtean Otsailaren 19an.

1.928ko urtean bere aitak, Amalek lau urte eukezala, aurkezu eban Donostiko antzoki baten leenengo oguzpenan⁽¹⁾: “Ni naiz sudurmotz berrius bat” buruz mintzatu edo ozontzeko. Eta Jardun-aldi onegaz, Euskal Irratiko leengo emakume esatari biurtu zan.

1.932ko urtean Epaillaren 2an, Ander aitak, “Neskamearen marmarrak”, alkarrizketetan aots gozoz mintzatzeko idazten ebazanak, ibili eban Amale ozen alditan, zortzi urte ingurbari euki ebazanetik. Donostiko Irrati Alkartaren ozengailu⁽²⁾, bai eta Euskalerritan egozan Irratietan mintzatzen. Amale berak, jolas antzeko baten egiten ebazanak.

Gure euskaltzale asko igaro ziran Irrati orreitatik denbora aietan, Lizardi tar Xavier, Aitzol, Monzon tar Telesforo, Arrese tar Emeterio, Orixe, Alzaga tar Toribio, Zipitria tar Elbira, Garbisu tar Tomas, Lafit tar Jean eta abar. Urrezko denborak ziran areik Euskeraren zabaltasunerako, geiago, Arzelus tar Ander “Luzear” eta Zubimen-

di tar Joseba lango euskal arduradun zintzok euki ezkeru.

Urikiaga eta Basaraz tar Esteban “Lauaxeta”k esaten eban: “Euskalerrian ez egonla exetrik, umetxo au biotzetaraino sartzen eztanik”.

1.934ko urtean, espainiar errepublikako jaurekintzak debekatu ebazan euskerako emonaldi orreik, eta naita antez lanetan ainbat lan egin arren guda amaitu arte, ez zan geiago irratietan aots gailluen aurrean agertu, nai eta bere aitagaz Euskalerriko erri guztietatik ipui kontari eta abeslari ibili.

1.936ko urtearen guda erdian Bilbotik igaro ostein, Ipar-Euskalerrira joan zan Amale sendi guztiagaz, aita izan ezik, 1.944ko urterterre Santofia, Burgos eta Madrillako espreteatik euki ebela.

Guda-oste latza izan zala esaten eban Amalek, eta Frankok aginduten ebazan zigorgaitik, bere aita Burgos eta Madrille-

(1) Oguzpenean = recitación, declamación. (2) Ozengailuetatik = altavoz, o de los microfones de Radio-Unión de Donosti.

ko espetxeetatik bost urte terdi ibili ostein, etxera etorri zanean, Frankoren zigorrezko agindu zitalak ostera urrundu eban erdiugarte onetatik, erbesteko 200 edo 300 kilometruetara.

Eta Luzear'ek, ezanez kikiltzen Franko'ren zamakuntzakaz, Frantzira aldatuta, ixilpeko Euskal-Irrati ipini eban lanean.

Erakunde lez egiten genduzan alkarrizketetan, euren aita gizontasuneko sasoi onenean egoalako, sekula be etzala gelditzen Euskadi ta Euskerearen aldeko ekintzetan, esaten eban Amalek.

Eta Euskal-Nortasun edo Izatasuna zalantzan egoalako, bizi osoa emon eutsen Euskalerrari, arik eta bera gaxotu arte.

1.949ko urtean Dagonillaren 27an, 51 urte euki eukezala il zan Amalen aita. Bere gorpua, Muñoz sendiari esker ekarri eben Donostira. Baiña ez iztillurik bage, esaten eban Amalek.

Amale'n ezkontza.

1.948ko urtean Azaroaren 27an, Zinkunegi'tar Joseba sendagille ta gizon andiaren seme Andoni'rekin ezkondu zan, eta bederati alaba-seme euki arren, ez zan kikildu, Zipitriatar Elbira "Ira" andereño aundiagaz, ixilpeko ikastaroak antolatu eta ume ta nagusientzat etxerik etxe, jota-ke euei euskerea irakasten. Ekintza orren bitartean jaiio zan bere lenengo seme Ander.

Ikastoak.

1.968ko urterarte irauin eban bere etxean, euskerazko ikasketak aurrari emoten, eta ordutik aurrera adinekoakin, beste urte askotan.

1.970eko urtean baimendu ziran ikastolak, eta oraindiño irauin eban urte batzuetan euskerea irakasten.



Euskerazaintza.

1.979ko urtean Kardaberazzen biderik sortu zanean Euskerazaintza edo Euskerearen Erri Academia, ezagutu neban nik Arzelus eta Arrieta'tar Amale. Lenengo illean amabostero eta gero ileroko zapatu guztietan alkartzzen giñan, Tolosa, Eibar, eta Deban egiten genduzan batzarretan. Beti irripartsu, arduradun ta laguntzeko prest euki genduan gure Amale maitagarria.

Badakit arduratuta egongo dala, bear dogun laguntza goiko Zerutik Euskalerrian ta guri emoteko.

Eriotza.

2.015eko urtean Irailaren 28an il jakun Amale, bete sendiaren maitasuneko babesan.

“AGUR AMALE” “EGUN AUNDIRARTE”

Atutxa eta Agirre'tar Paul
Zornotzan 2.015eko urtean Azaroaren 27an.





OMENALDIAK

“ESKOLA”k 50 URTE

1942-1948ko garaian, esan bezala, denbora izan zuen ere «Schola Cantorum»eko koroan abesteko.

1990gn urtean “Eskola”k 50 urteurrena ospatzeko Victoria Eugenia eraturako ekitaldian ere parte artu zuen.



FRANKISMO GARAIKO IXILPEKO ANDEREÑOEI OMENALDIAK

1983 DONOSTIAN

Franco hil ondoren urte mordo bat igaro zen, norbaitek gogoan hartzeko garai ilun eta arriskutsu haietan, emakume hauek euskararen iraupenerako egindako lana. Beren bizitza eta beren etxeak jarri zituzten hainbeste ume euskaraz hezetzeko, naiz eta hori debekatuta egon.

1983gn urtea inguru omendu zituzten, ni gogoratzen dudanez, lehenengo aldiz. Geroztik borrokan jarraitu behar izan zuten emakume hauek urte mordo bat beren eskubideak onartu zizkioten bitartean, 2003garren urtean "euskarazko instituzioak" (aurrerago sakontzen dut borroka hau).



Haurrak andereñoak omentzen 1983 inguruan

1992ko Abenduan - DONOSTIAN EUSKALTZALEEI OMENALDIA

"BAGERA - Donostia Euskalduna Elkartea" k antolatatu zuen 1992ko abenduaren 9-11 eta 12an.



EGITARUA

Abenduaren 9an - asteazkena -, arratsaldeko 7,30etan:

Donostia 176 leian: hiztunak eta hizkuntza
Hizlaria: Mikel Zalbide

Abenduaren 11n - ostirala -, arratsaldeko 7,30etan:

Euskal antzerkiaren lehen urratsak Donostian hitzaldia, eta Toribio Alzagaren "Txingurri" eta Joxe Artolaren "Motxa herrian" obretatik hartutako bi bakarrizketen antzespina.
Hizlaria: Eugenio Arozena
Antzeslariak: Joxe Aranburu eta Pello Otaegi

Abenduaren 12an - larunbata - eguerdiko 12etan:

Donostiako euskaltzaleen jardunera hurbilduz: adinoko lekuko enanak.

Hizlariak: Peio Agirre eta Ainhoa Beola.
Lekuko batzuek parte hartuko dute.

Ondoren, OMENALDI BAZKARIA, Txiki Tenis jatekxan, arratsaldeko 2.30etan.

Ihardunaldiak bukatzeko laguharteko bazkaria egingo da euskaltzale zaharren omenez.

Balaunaldi guztietako euskaltzaleen topaleku izan dadin, bertan parte hartzera dei egiten dizuegu guztiok.

Oharra: Bazkarira joateko aurretik izena eman behar da. Epea: abenduaren 5a arte. telefonoa: 45 71 07

BAGERA Donostian euskara indartzeko orain dela urtebete sortutako elkarte da. Asmo horrekin ahalik eta euskaltzale gehienek ahaletan bildu nahi ditu, elkartasunean egindako lanak emaitza hobea izango dituelakoan eta bakarkako lana iristen ez den tokietara iritsiko delakoan.

Lehenbiziko urtebetetzea ospatzeko, zer Donostiako euskaltzale zaharrenei eskainitako ihardunaldi hauek baino hoberrik? Izan ere,

Euskal Herriak, denez bezala, bere ondarea aurrekoengandik ondorengoengana pasatzeko egin du historia.

Batzuek besteen premia dutelako: gazteek zaharrena, ikasteko zaharrek gazteena, jarraipena izateko.

Euskal Herriko historiaren une zail honetan, aurrekoengandik jaso dugun ondarea ondorengoei pasatzeko gduza izango al gara?

Gure artean izan ditugu aintzindariak, gure artean ditugu ereduak, euskararen soroa landu eta zabaldu dutenak.

Horiei, ihardunaldi hauetaz bidez, gure oroitzapena eta esker ona.

Horiei gure errespetua eta adiskidetasuna.

Horiei gure barruan zilarrezko izpiz ehundutako onespena.

Donostia Euskaltzaleen Bidetik

1992ko abenduaren 9, 11 eta 12an



Donostia Euskalduna Elkarteak

Laguntzailea:



kutxa fundazioa
fundación kutxa



Nere ahizpa Maritxu hutsunak betetzen ibili zen beti. Ezkutuko ikastolek behar zuen materiala lortzen eta haien ematen, euskal koloniak (udal-lekuak) antolatzen, liburuak argitaratzen,

Berarentzat Euskal Herria euskara zen "hizkuntzak berreitzen gaitu (erdaldunengandik) eta batu ere hizkuntzak egin behar gaitu".

Koro Barriola



Egin aurrai euskeraz, esaten nien gurasoai, ikastolan bakarrik egiten ba dute, ez dira euskaldunak izango.

Amale Arzelus



Andereño bat lanean ikusi ondoren, berehala konturatu nintzen hori zela nere eginkizuna. Euskara gustora irakasten nuen eta ikasleak esker onekoak izan zaizkit; ez haurtzaroon bakarrik, baita orain ere.

Faustina Carril



Gerra aurreko "Argia" aste-ariaren 500 ale saltzen ba ziran asieran, laister 6.000 izatera irixi ziran, urteko 5,50 pezetako arpedeza ordaindua.

Ambrosio Zatarain



Nere aitak jendeak nahi eta espero zuena idazten zuen; euskaraz ikasteko euskal gramatika bat idaztera ere iritsi zen.

Maria Luisa Alzaga



"Amaia" antzeslanarekin Bilbon, Donostian eta Bartzelonan jardun genuen euskaraz, madriren gaztelaniaz estreinatuz zen arren.

Imanol Barriola



Eskolan eta eskolaz kanpo antzerkiak eta euskararen aldeko bestelako ekintzak bultzatu nituelako, irakaskuntzatik aldendua izan nintzen. Geroztik, gerra ondoko ezkutuko ikastoletako guraso bezala eta beste bide batzuetatik ahalgina egin dut.

Ez naiz bakarra izan, beste askok ere egin dute nik adina.

Elisabete Maiztegi



Gerra aurrean ere baziren ikastolak: Koruko Andre Mariaren Ikastetxean oinarritutako hizkuntza euskara zen.

Elias Etxeberria



(Joxe Migel Zumalaberi buruz) Ezer gutxi esanda, lan asko eta asko egin zuen euskararen alde. Zerbait egin behar zuela argi zeukanen, ez zuen etsitzen hura lortu arte.

Asentxi Goenaga

Hurrengo omenaldia "BAGERA Donostia Euskalduna Elkarteak" bere lehenengo urtebetetzean, Donostiako EUSKALTZALE historikoak, andereñoak, idazlariak, antzezleak etab. omendu zituzten. Berriro elkarte pribatua izan zen hortaz arduratu zena, ez zen "instituziorik" agertzen hemen ere.

Omenaldia Donostiako euskaltzale edadetuei

FELIX IBARGUTXI

DONOSTIAKO «Bagera» elkarteak omenaldi egingo die abenduaren 12an hiri horretako euskaltzale edadetu batzuei. Bazkari-omenaldira agertu nahi dutenek telefono honetara deitu beharko dute: 45 71 07. Hauek dira omen-dukido dituztenak: Koro Barriola, Amale Arzelus, Faustina Carril, Ambrosio Zatarain, Maria Luisa Alzaga, Imanol Barriola, Elisabete Maiztegi, Elias Etxeberria eta Asentxi Goenaga. Koro Barriolaren ahizpa Maritxu «Xabierto» eta «Kenpisa» bezalako liburuen izkutuko argitaratzailea izan zen. Amale Arzelus, berriz, Elbira Zipi-

triarekin batera hasierako ikastoletako andereñoa. Faustina Carrilek ere umeen irakasle jardun zuen. Ambrosio Zatarain, gerraurreko «Argia» aldizkariaren sortzailearen semea dugu. Maria Luis Alzaga, berriz, hainbat antzerkian idatzi zuen Toribioren alaba da. Eta Imanol Barriola, gerraurrean Donostiako batzokiko antzerki-taldearen zuzendaria izan zen. Elisabete Maiztegi, Elbira Zipiariaren laguntzaile aritu zen hasierako ikastoletan. Elias Etxeberriak ere aspaldiko euskarazko irakaskuntzari lagundu zion. Asentxi Goenaga, berriz, Santo Tomas Lizeoko sortzaileetako bat izan zen Joxe Migel Zumalaberen alarguna dugu.



Koro Barriola eta Amale Arzelusi egingo die omenaldi, besteak beste.


«Diario Vasco»k eman zuen aurrez, ekitaldi honen berri.



Euskaltzaleei omenaldia

«Donostia euskaltzaleen bidetik» jardunaldiak amaitu ziren atzo Gipuzkoako hiriburuan. «Bagera» elkartearen ekimen hau errekonozimendua izan da gerra aurreko zein ondoko urte latzetan gure hizkuntzaren alde lanean jardun zuten euskaltzaleentzat. Ikastola, antzerkigintza eta orokorrean euskal kulturaren munduan aritutako jendea omendu dute antolatzaileek aurtengo jardunaldietan. Ostegunean hasi ziren jardunaldietan oraindik bizirik dauden omen-dukidoek edo haien oinordekoek hartu dute parte. Argazkian beraiek ageri dira atzo Donostian egin zitzaizen bazkari omenaldian sartu baino lehen.

Egunkariak honela zion hurrengo egunean



*Jesús M.º de Alkain y Martikorena
 María del Carmen Domínguez Aranburu 'k
 Aritz - Aritz, zoriordu mai izugu,
 joandau igandeau egn zitarisun
 omenarugatik, aie budo irataxi.*

Dr. Camino, 1 - 3.º Dcha.
 Teléfono (943) 42 77 02

20004 DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

*Haboa, gure euskera martikorena
 del. zure bizitokan zear, egutako
 lau aundegatik.*

Berabasa eta ta +.

Jesús M^a Alkain eta emaztearen zoriontzea omenaldiaren hurrengo egunean.

AZKENEAN, 2003AN “INSTITUZIOEN” ARAKETA.

Boletín Oficial del País Vasco - BOPV *AYA - Auzkeriak* Página 1 de 10

[Inicio](#) | [Ayuda](#) | [Ultimo Boletín](#) | [Boletines Recientes](#) | [Consulta](#) | [Búsqueda Simple](#) | [Búsqueda Avanzada](#)
[Sumario](#) | [PDF Sumario](#)

Boletín N. 2003089 09/05/2003 Pág: 07956

Disposiciones Generales

Educación, Universidades e Investigación

DECRETO 99/2003, de 6 de mayo, de desarrollo de la Ley relativa al reconocimiento y compensación a quienes impartieron docencia en ikastolas con anterioridad a su normalización jurídica.

La escuela vasca inició su andadura en plena época franquista gracias al esfuerzo de un colectivo importante de profesores que desarrolló su actividad docente en total clandestinidad. Dicha actividad implicó una labor a la vez arriesgada y valiente, puesto que el marco legal era contrario a la introducción del euskera en las escuelas, y sacrificada, puesto que precisó del esfuerzo del profesorado que, con escasos recursos y muchos factores en contra, desarrolló una labor profesional que con el devenir del tiempo ha cosechado sus frutos.

En estas condiciones tuvo que desarrollar su actividad aquel profesorado durante largos años, concretamente hasta finales de los años sesenta, época en la que comenzó una tibia apertura hacia la regularización de la enseñanza en euskera y en la que, si bien las ikastolas no se encontraban dentro del marco de la legalidad vigente, sin embargo, fueron de alguna manera toleradas.

Impartieron enseñanza de euskera en ikastolas en los niveles de educación preescolar, primaria o secundaria hasta el curso académico 1967-1968, siempre que desarrollaran la actividad docente con una duración similar a la de los periodos lectivos establecidos en la enseñanza o a favor de sus cónyuges viudos a la entrada en vigor de la Ley 3/2002.

En definitiva, el presente Decreto tiene por objeto desarrollar las disposiciones de la Ley 3/2002 y, concretamente, la determinación de la cuantía de la compensación económica a la que se refiere el artículo 3 de la Ley 3/2002, así como las normas procedimentales y de competencia requeridas para la percepción de dicha compensación por los beneficiarios.

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/ver_e?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=0... 30/06/03

1978ko “demokrazia” iritsi zenetik 25 urte igaro ondoren, andereño multzo batek 10 urtetan borrokatu ondoren, haien artean Kontxita Beitia eta Itziar Arzelus izendatu ditzaket, besteak ez dakit ziur nortzuk izan ziren, Eusko Jaurlaritzak arakatu zuen ANDEREÑO haiek egindako lana frankismo garaian.

IGIZARTEA 1978ko maiatzaren 10

IKASTOLEN LEHEN URRATSAK

ORDAIN EKONOMIKOA 1.967-1968 IKASTURTERA ARTE IKASTOLETAN IRAKASLE ARITU ZIRENEK ORDULAN OSO ERKAS IZAN ZUTEN ORDANSARI EKONOMIKOIA IZANGO DUTE, 3.000 EURO IKASTURTE BAKOITZEKO

Esker ona, aspaldi horren eskean zebiltzan frankismo garaiko andereñoentzat

Ordain ekonomikoa
Lehen ikastoletako andereñoek ez zuten lanerako giro aproposena izan. Frankismo garaiak harrapatu zituen eta klandestinitatea, askatasun gabezia, soldata oso urriak –porraldietan ez zuten batere jasotzen– eta Gizarte Segurantzaz ezin kotizatua ziren beren lan baldintzetako zenbait. Honen guztiaren gainetik egon zen, ordea, beren sakrifizioa eta ahalegina, benetan sinesten zutelako ikastolen proiektuan.

Hori dela-eta, 1993. urtean andereño talde bat orduko Arartekoarengana joan zen, sakrifizio horrek guztiak merezi zuten ordain eske. Orduetik etengabea izan da beren borroka, hainbatetan joan dira Legebiltzarrera eta ez dute sekula amore eman, ederki baitzekiten merezi zutela errekonozimendua. Azkenean, 10 urte beranduago etorri da emaitza; berandu, baina etorri da.

Malen ARZELUS | Donostian andereño izandakoa
«Inspektorea etorzen zenean, hura ez zela ikastola esaten nion badaezpada»




200 bat emakume, haien artean gizeozko batzuek ere, izan ziren omenduak eta diru sari bat ere jaso ahal izan zuten egindako lanaren esker, hainbeste urte geroago.

Baina honetan ere ez zuten ondo eskertu nahi izan eta bete beharreko paper guztiak beteta Amaleri ez zizkioten lan egindako urte guztiak, 1948tik 1968ra, onartu eta HIRU azkeneko urteak ez zizkioten ordaindu. Errekurtso administratiboa egin behar izan zuen eta, naiz eta epaileak onartu “lana egin zuela” ez zioten onartu errekurtsoa “ordu gutxiko klaseak” izan zirela esanaz, kontuan izan gabe lekukoak esandakoak eta garai artan ikastoletan ematen ziren orduak ikasketetan. Beraz honetan ere “Eusko Jaurlaritza”n ba zegoen norbait behintzat ez zuena “bere eskuzabaltasuna” ondo ikusten eta, itxuraz, bukaeraraino eraman nahi ez zuena haiek egindako lana eskertzea eta merezi zuten “ordaina” ematea, zekenki jokatu zuten. Honek 9000 euro inguruko kontontua suposatu zion errekurtsoaren gastuak gehi eta okerrena izan zena, berak egindako lana hiru urte haietan putzura bota zioten lotsarik gabe, nork? EUSKO JAURLARITZAK! ZIKOITZAK AZKENERARTE! (Azken orrialdetan “Gehigarria-1”ean zehazten dira gertaera honen gora-behera guztiak).

GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA

60. hamarkadakoko Andereñoak

Gonbidapena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Markel Olano

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak

ohore handiz gonbidatzen zaitu, abenduaren
16an, 19:30etan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren
Jargi Aretoan *Gipuzkoako Urrezko Domina*
honako pertsoneri emateko
izango den ekitaldira:

60. hamarkadako
Andereñoak

Oharrak

Baieztatu arren, 943 112 388 zenbakira
deituz edota emailez hurrengo helbidean
kabinetea@gipuzkoa.net.

Gonbidatuei erregutzen zaie ekitaldia hasi
baino 20 minutu lehenago iristea.

Ekitaldiak ordu eta laurden
inguru iraungo du.

Amaitzean otordutxo bat
izango dugu bertan.

Gonbidapen hau sarreraren
erakutsi behar da.

Gonbidapen hau norberarena
eta besterenezina da.





Lauaxetak garai hartan irratiaz idatzitakoaren erreproduzio bat oparitu zieten



Lauaxetak 1932an idatzia



Izaskun Uriagereka, Mungiako alkatearekin



Garaiko irratit tresnak

IRRATIGINTZAK 80 URTE - Donostian

Berrero ere Koldo Ordozgoitik egindako ikerketaren ondorioz 2012an, Donostian, Koldo Mitxelena kulturunean egin zen beste omenaldia, oraindik bizirik irauten zuen bakarrari, Amaleri. Bertan izan zen ere Mirene Zubimendi. Aurkezpena Koldorekin batera Joxemari Iriondo eta Txaro Arteagak egin zuten. Amalaren seme alabak eta sendiko beste asko bertan izan ginen.



1932|2012
Euskara hegaz:
Euskal irratiaik
80 urte

Euskal Irratsaioaren sortzaileak gogoan: Joseba Zubimendi, Ander Arzelus eta Amale Arzelus

Euskal Irratsaioak


"Irratia dela ta dabil gure euskera kuttuna, arranoa baiño erosoago, arranoa baiño kemen-suago hegaz dabiltzigu"

Ander Arzelus Luzeur

2012ko martxoaren 2an 80 urte bete dira Joseba Zubimendik eta Ander Arzelusek bultzatutako arratu zentrik lehen Euskal Irratsaioa. Hor dugu mugarrira, egun horretan sortu zen euskarazko irratia, ez zen izan lehen aldia euskara ubinetatik hedatzen zela, baina irratsaio borenkin eman zitzaion hasiera euskarazko irratigintzaren bide aporari.

KM Kulturunea
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Foru Aldundia Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

euskara hegaz



euskal Irratiak 80 urte

Irratiaren zubia: Joseba Zubimendi, Ander Arzelus eta Amale Arzelus, irratiairen aitajau eta amandretik egungoraino

Oholtza

Oholtzan: zutikako mikro bat (lehen planoan), lau besauki, mahai txiki bat eta horren atzean aulki bat.

Besaukietan:

- 4/ Josemari Iriondo
- 2/ Mirene Zubimendi
- 1/ Amale Arzelus
- 3/ Txaro Arteaga

Aulkian

5. Koldo Ordozgoiti

Oholtzan diren bostak mikrofonoa izango dute, oholza gainean dagoen zutikako mikrofonoa erreferentzia modukoa izango da.

Kulturune Nagusia, euskal Irratiak 80 urte jaiak 2012



ANTZERKIZALE SARIA 2011n Mungian

EHAZE elkartearengandik 2011an "Antzerkizale saria" jaso zuen Mungian berak, 1930go hamarkadan "LUZEAR" bere aitak beretzako idatzitako lantxoak antzestu izana gaitik, haien artean "NESKAMEAREN MARMARRAK" bakarrizketa, sarritan antzestu izan zuena bai poxpolinetan eta baita irratan ere. Ekitaldian hasieran, berriro antzestu zuten bakarrizketa hura eta ondoren omenaldia egin zioten.



Honela dio Iraia Oiarzabalek BERRIAN:

BERRIA. 2011-09-29

Antzerkiari emandakoa eskertuz

II. Antzerkizale Eguna ospatuko da Mungian hilaren 8an; Amale Arzelus antzerkizalea omenduko dute han.

Iraia Oiarzabal

Mungia

«Eme ekintzailea omendu nahi dugu, emakumea bera. Herria, kultura eta hizkuntza uztartuz sortutako antzerkia omendu nahi dugu, euskara bera». Hitz horiekin deskribatu du Idoia Gereñu Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak Amale Arzelus antzerkizalea. Horrela, antzerkiaren inguruan egindako lanagatik omenduko dute Arzelus, urriaren 8an Mungian ospatuko den II. Antzerkizale Egunean. Antzerkizale Saria emango diote euskaltzale donostiarrari.

Ander Arzelus Luzear antzerki idazlearen alaba izanik, antzerkiari estuki lotuta egon da txikitatik Amale Arzelus. Luzear lehenengo euskal irratsaioaren sortzailea izan zen, eta antzerki lan ugari idatzi zituen. Aitaren eskutik, herriz herri ibili ohi zen Arzelus, hizlari eta aktore lanetan. 1933an, zortzi urte zituela, Luzearrek alabarentzat propio idatzitako Neskamearen marmarrak lana antzeztu zuen Donostiako Poxpoliñetan.

«Baina, iritsi zen gerra, eta, gerrarekin batera, antzerkiaren eta Euskal Herriaren historiak norabide gordin bat hartu beharra izan zuen», adierazi du Gereñuk. Horrela, Arzelus eta bere familia Donostiatik alde egin beharrean egon ziren. Bilbora iritsi ziren orduan, eta, Gereñuk azaldu duenez, oroitzapen latzak utzi dizkio Arzelusi hiriburuan eginiko egonaldiak: «Oraindik ere sirena entzutean garai hartako beldurra, bonben zarata eta gordelekua berpizten zaizkio».

Ostera, gerra garaian ere izan zuen Neskamearen antzezteko aukera. Ipar Euskal Herrian bolada bat pasa ostean, Donostiara itzuli zen Arzelus, eta antzerkigintzari ekin zion, aitaren zuzendaritzapean. Luzearrek ihes egin behar izan zuen, ordea, eta Arzelusek antzerkia egiteari utzi zion. Hori dela eta, EHAZEK gerra aurreko garaiak eta ezkutuko antzezkizun haiek omendu nahi dituela azpimarratu du Gereñuk.¹⁷

AMALE ARZELUS. ANTZERKIZALEA

«Aitari eskainiko diot; berari esker naiz ni naizena»

Antzerkizale saria jasoko du Arzelusek etzi, Mungian (Bizkaia). EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak urteetan egindako lanagatik omenduko du.

Txikitan hasi zen Amale Arzelus antzerki munduan. Ez zen hori, ordea, haren denbora-pasa bakarra. Hitzaldiak ematen eta irratiko esatari lanetan ere jardun zuen, eta hainbat aldizkari eta egunkaritan ere ibili zen lanean tartean, *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Bidezi-dorrek* sailean Ander Arzelus Luzear aitek zabaldutako bideari jarraitu zion, euskararen eta euskal kulturaren alde. Larunbatean omenaldia egingo dio EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak, Mungian (Bizkaia), II. Antzerkizale Egunean.¹⁸

EUSKAL HERRIKO AHOTSAK

¹⁷ Iraia Oiarzabalek BERRIAN

¹⁸ MAITE ALUSTIZA DONOSTIA/ GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

“AHOTSAK”, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea izan zen proiektu honen helburu nagusia. Horretarako herri guztietako euskaldun adinez nagusiei egin zizkieten elkarrizketak. Haien artean izan zen Amale ere, hemen ikusi daiteke elkarrizketa hura eta beste guztiarenak ere: <https://ahotsak.eus>





Donostian, 2011ko apirilaren 18an

Agur t'erdi,

Lehenik eta behin nire eskerrik beroena eman nahi dizut “Ahotsak” proiektuan parte hartu izanagatik. Zure ekarpena izugarri garrantzitsua da Donostiako euskarak eta oroitza penak bizirik iraun dezan.

Proiektuan parte hartu izanaren errekonozimendua adierazteko diplomarekin batera, egin zizuten elkarrizketaren bideoa eta elkarrizketatu guztiekin egindako bideo orokor bat bidaltzen dizkizut.

Gustukoak izango dituzulakoan, adeitasunez agurtzen zaitut.



Ainhoa Beola Olaziregi
Hizkuntza Normalkuntza, Berdintasun eta Lankidetzaz zinegotzia

Amaleri, bere parte hartzea eskertzeko gutuna

Euskal Herriko Ahotsak

Badithardugu Euskara Elkartek
eskerrak ematen dizkio **Amale Arzelus Arieta** *ri*
Euskal Herriko Ahotsak proiekturako bere lekukotasuna ematearren
eta herriko hizkera eta memoria historikoa
hedatzeko proiektuan parte hartzearren.

Donostia (n), 2011ko apiril (n).

Ahotsak.com





Oroigarria izateko Diploma



Proiektuaren aurkezpen bat.

AMALE 1924-1936



Amale 1924-1936


TXARTEL BATZUEK



OROIGARRIAK

Bere paperen artean, besteak beste, oroigarri pilatxo bat ere aurkitu dugu, Jaunartzetakoak, ezkontzakoak eta, nola ez, hildakoenak, asko sendikoak, baina baita ere lagunena edota hainbat politikorenak ere, hemen sartu ditut batzuek.






GENEALOGI ZUHAITZA



ARZELUS ARIETA TAR AMALE'REN VIII BELAUNALDI



GEHIGARRIA
ERREKURTSOA

GEHIGARRIA ERREKURTSOA

Honela dio 2003ko maiatzak9 ko EHAAn:

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Zk-2672

99/2003 DEKRETUA, maiatzaren 6 koa, ikastolak legez, normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutako aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko martxoaren 27ko 3/2002 Legea garatzen duena.

Euskal eskolak Francoren garai gordinetan hasi zuen bere ibilbidea, ezkutuan lan egiten zuten irakasle askoren ahaleginari eskerrak. Lan arriskutsu eta ausarta egin zuten, orduko legeak euskera ikastetxeetan sartzearen aurkakoak baotziren, eta neketsua, zeren irakasle haiek baliabide urriekin lan egiten baitzuten, eragile ugari aurka zutela. Hala ere, denboraren buruan beraien jardunaren fruituak bildu ahal izan dira.

....

Bada garaia, beraz, lehen irakasle haien idealismoa, adorea, ahalegina eta sakrifizioa aintza hartzeko eta gogora ekartzekozein laguntza garrantzitsua eman zuten euskera berpiztu eta zaindu ahal izan zedin, eta ez bakarrik komunikazioan erabiltzeko, baizik eta jakintza eta kultura iraunarazteko tresna den aldetik ere bai. Horrexetarako egin zen Eusko Legebiltzraren martxoaren 27ko 3/2002 Legea, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa.

Eusko legebiltzarrak, 372002 Legearen bitartez, euskeraz aritu ziren irakasle horiek jendaurrean hartzeaz gainera, **ordaina eman nahi die klandestinitateren garaietan jasan zituzten gizarte- eta lan baldintza gogor-
rengatik.**

....

Diru-ordaina hartzeko eskubidea aitortzen zaiete 372002 Legearen bidez, eskolaurreko, lehen mailako edo bigarren mailako hezkuntzan ikastoletan 1967-1968 ikas-
turtera arte euskeraz irakasten aritu zirela egiaztatzen dutenei, baldin eta ikastaldien iraupen berdintsuko aldie-
tan aritu baziren, edo haien ezkonkideei, 372002 Legea indarrean jartzean alargun badira.

.... **5. artikulua.-** Eskaerak.

1.- Diru ordaina jasotzeko eskabideak sei hilabe-
teko epean aurkeztu behar dira, dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita. Eranskineko imprimakian....

....

6. artikulua.- Frogabideak

1.- Ikasurteak egin izana frogatzeko, zuzenbi-
dean onartutako edozein bide erabili daiteke.

2.- Ikasurtea egin izana frogatzeko, nahikoa
izango da frogabide hauetako bat:

a) Irakaslearen klaseetara joan ziren bi ikasleren
lekukotasuna, edo beraien guraso edo tutoreena.

....

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzare Aldi-
zkarian argitaratu eta biharamunetik izango du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

Honeraino Dekretuaren laburpen bat, bertan agertzen dira ondoren kontatuko dudan istorioaren arrazoiak edota gertaerak.

Aurrez gogorarazi beharra iruditzen zait zera, 2003an agertzen dela lege hau, **Franko hil zenetik ia 30 urteetara.**

Garbi dago legea egin zutenak nahi zutena: **«Bada garaia, beraz, lehen irakasle haien idealismoa, adorea, ahalegina eta sakrifizioa aintza hartzeko eta gogora ekartzeko»** dio.

Lehenengo zati hau, garbi dago, nola hala, egin zutela, omenalditxo bat egin zen Miramar Jauregian 2003ko maiatzaren 9an, bertan 200 bat andereño izan ziren.

Baina ba zen bigarren zati bat, **«Diru-ordaina hartzeko eskubidea aitortzen zaiete 3/2002 Legearen bidez, eskolaurreko, lehen mailako edo bigarren mailako hezkuntzan ikastoletan 1967-1968 ikasurtera arte euskeraz irakasten aritu zirela egiaztatzen dutenei»** .

Hontan dago, nere ustez, zikoitz jokatu zutela esaten dudanean, AMAL Eren kasuan behintzat.

Hasteko aipagarria iruditzen zait, ANDEREÑO EK egindako lana baieztatzeko eskatzen dituzten «frogabideak»

6. artikulua.- Frogabideak

1.- Ikasturteak egin izana frogatzeko, zuzenbidean onartutako edozein bide erabili daiteke.

2.- Ikasturtea egin izana frogatzeko, nahikoa izango da frogabide hauetako bat:

a) Irakaslearen klaseetara joan ziren bi ikasleren lekukotasuna, edo beraien guraso edo tutoreena.

Hau irakurtzen hari zarenak, pentsatu eta esan zeure barrurako: gogoratzen al duzu dela 50 urteko zure ikaskideen izen abizenik?

Ba andereño hauek «nahi eta nahi ez» gogoratu behar zituzten itxuraz 1948 tik 1968rarteko beren ikasle guztien izen abizenak eta 55 - 35 urte igaro ondoren haien zuzenbideak ere... (ez da esan beharrik garai haietan ez zela ordenagailurik datu horiek gordeta edukitzeko noski)

Harritzekoa bada ere, ez zen erraza izan, baina bera gogoratzen zen askoren izen eta abizenaz, eta horrela hasi zen zerrenda bat prestatzeko lanetan bere 78 urteekin. Behin zerrenda prestatuta beste «arazotxo» bat aurkitu zuen, NOLA AURKITU GAUR EGUNGO HAIEN HELBIDEAK? BIZIRIK DIRAUTE? NORTZUK IZANGO DIRA PREST LAGUNTZA EMATEKO?

Horretan ere ikusi daiteke "diru laguntza ematea" ez zela oso gogokoa itxuraz, andereñoak 10 urte-tik gora pasa zituzten arartekoaren gaina edota politikarien gaina joan eta etorrian eskaera hau eginaz, eta berak 25 urte behar izan zituzten "jaurlaritza demokratikoak" andereñoen lanak arakatzeko, eta orain:

«1.- Diru ordaina jasotzeko eskabideak **sei hilabeteko** epean aurkeztu behar dira, dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita. Eranskineko inprimakian....»

Honen arabera, 25 urtean ezer ezin zela egin esaten egon ondoren, andereñoek beren lana eskertzeko presa handia zutela irudituko zaizue honen arabera, baina gerozkoak ikusita, ez dakit zertarako zuten presa hori, akaso andereñoek denborarik ez izateko eskaera prestatzeko edo...

Hala eta guztiz ere, ez lan gutxi ondoren, lortu zuen bere ikasle izandakoen edota haien guraso batzuekin harremanetan jartzea eta horrela lortu zuen lekukoek lehenengo zerrenda bat egitea:¹

LEKUKOEN ZERRENDA

Zenb.	Abizenak, izena	Herria	DNI	Lotura
1	Zaldua Anabitarte, José Ignacio	Donostia		Ikaslea
2	Zaldua Anabitarte, Juan Mari	Donostia		Ikaslea
3	Arzelus Sagardia, Sabin	Donostia		Ikaslea
4	Aizarna Cortés, Iñaki	Donostia		Ikaslea
5	Cilveti Tolosa, Eladio	Donostia		Ikaslea
6	Martínez de Apellaniz, Itziar	Donostia		Ikaslea
7	Martínez de Apellaniz, Xabier	Donostia		Ikaslea
8	Merino Nazabal, José Manuel	Donostia		ikaslea
9	Merino Nazabal, Koldo	Pasai-Antxo		Ikaslea
10	Merino Nazabal, Ane Miren	Donostia		ikaslea
11	Merino Nazabal, Marta	Donostia		ikaslea
12	Merino Nazabal, Itxaso	Donostia		ikaslea
13	Labaka Arruabarreana, Miren	Donostia		ikaslea
14	Aycart Barba, M ^a del Mar	Donostia.		ikaslea
15	Aycart Barba, José M ^a .	Donostia		ikaslea

¹Hau lortzeko egin zituen zirriborroak ere gordeta daude, haiekin ikusi daiteke zenbat lan izan zuen zerrenda hau osatzeko. Agiri horiek ordenagailuan egin zituelako aurkitu ditugu eta bertan ikusi daitezke irakasketak egin zituen garaiko datak. Hemen lekukoek helbideak, telefonoak eta nortasun agiriaren zenbakiak deseustatutu ditut datuen babeste legea betetzearren.

Horrela prestatuta eskaera egin zuen, behar ziren beste paper guztiekin batera.

b) Irakaskuntzarako erabili zen lokalaren jabearen adierazpena, edo irakaskuntza sustatu, antolatu nahiz kudeatu zuen pertsonarena, baldin eta inguruabar horietaz inolako zalantzarik ez badago.

c) Lokalaren edo irakaslekuaren jabea Eliza Katolikoa edo beste pertsona juridikoren bat izan bazen, nahikoa izango da ikasturtea egin zenean lokala edo irakaslekuaren administratzearen edo irakaskuntza zaintzearen ardura izan zuen pertsonaren adierazpena.

d) Irakaskuntzan aritzearen ondorioz administrazio-zehapena ezarri ziotela, atxilotu egin zutela edo polizia-deklarazioa jasan zuela egiaztatzeko agiria.

3.– Ikasturteak egin zirela uste izango da baldin eta Legearen 5.3 artikuluan adierazitako argitalpenetan hala ageri bada.

4.– Aurreko idatz-zatietan aipatu diren frogabideak nahikotzat eman daitezten, bat etorri behar dute espedientean dauden guztiek.

2004ko martxoaren 18an erabaki hau iritsi zitzaion:

Horren ondorioz, Amale ARZELUS ARRIETA andreari hurrengo diru-kopurua jasotzea dagokio:

- 1948-49 ikasturtea: urtarrilean hasi zen, beraz bigarren eta hirugarren hiruhilekoak: 3.000 €-ko ehuneko hirurogeita zazpi, hau da, 2.010 €.
- 1949-50 ikasturtetik 1964-65 ikasturtera arte: 3.000 € urte bakoitzeko, hau da, 48.000 €.
- 1965-66 ikasturtetik 1967-68 ikasturtera arte: aipatutako aitorenaren arabera, urte horietan emandako klaseek ez dituzte exijitzen diren baldintzak betetzen (*"solo estudiaban euskera con ella, una o dos horas diarias, en horas libres, como complemento de los estudios generales"*).

Guztira, 2.010 € + 48.000 € = 50.010 €.

Hemen hasi zen bere "gurutze-bidea" berriro, "ikertzaileak" ez zuen lan asko egiteko gogorik izan itxuraz eta lekuko batek zera esan zuelako: «solo estudiaban euskera con ella una o dos horas diarias, en horas libres, como complemento de los estudios generales». Alajaina! hori da ikerketa «oso» egitea, 15 lekuko izan eta batek hori esan zuelako berari eman sinesgaitza eta Amalek ez zuela **ikastola klaserik** eman 1965etik 1968ra...

Ez zuten ez beste lekuko gehiagorekin edota Amalerekin argipen gehiago bilatu nahi izan hori baiezta edo ezeztatzeko eta Amalaren aurkako erabakia hartzeko argudio kaxkar horrekin nahikoa izan zuten beste argipenik bilatu gabe, bat-batean, Amalek hiru urteetan egindako lan guztia deuseztatuta geratzeko. Ez dakit hau euren gauza ez izatearen edota euren gaiztakeriaren ondorioa izan zen. Geroztik gertatutakoa ikusiaz bi garren arrazoia iruditzen zait izan zela, ikertzaileen "**gaiztakeria**".

Garbi ikusten da ez zutela gogokoa legearen "esan nahia" ikerketa hau egin zutenak: **«Bada garaia, beraz, lehen irakasle haien idealismoa, adorea, ahalegina eta sakrifizioa aintza hartzeko eta gogora ekartzeko» «Diru-ordaina hartzeko eskubidea aitortzen zaiete...»**

Guzti hau legea egin zutenaren pentsaeran izango zen baina ez ikerketa egin zutenarenean, ez behintzat aurrera eraman behar zutenarenean, esan bezala Amalaren kasuan behintzat.

LEHENENGO ERREKURTSOA

Amalek egindako errekurtsuan ikusiko da esaten dudana hau horrela izan zela.

2004ko apirilaren 14an jarri zuen errekurtsua, bertan argitzen zuen zergatik esan zuen esandakoa lekuko harek:

ERREKURTSO hau jarri nahi du:

1965 garren urtetik 1968 garrenerako urteak egiaztatze lehen emandako lekukoa ez zen aproposa, izan ere ikastaroan hiru eratako ikastaldiak ematen bai zituen:

1º.- Irakaskuntza ofizialean ezarritako irakastaldien iraupen berdintsuko aldietan.

2º.- Beste ordu batzuetan euskara ikaskuntza soil-soilik, erdaraz ikasten zuten beste ume batzuei.

3º.- Baita ere, hortaz gainera, helduei ere ematen zizkien euskara irakaskuntzak beste ordu batzuetan.

Hau da, goizean 8rak aldea asten zen helduekin, gero txikiekin goiz eta arratsalde eta gero berriz, gau aldean, helduekin berriro.

Hau dela eta, nahastuta, lehen emandako ikasle-lekukoak ez zuten baliorik, bigarren taldean sartzen bai ziren eta ez lehenengoan.

Horrengatik ez dituzue onartu 65tik 68ra emandako ikastaroak, baina egiaztatu dezakezue orain, honekin dijoan orrialdean aurkezten dizkizueten beste ikasle-lekuoen bidez, horrela izan zela, eta beraz, aintzat hartuko dituzuela ikastaroak eman nituela eta onen ordaina merezi dudala.

Barkapena eskatuz aurreko hutsegiteagatik eta oraingoan nire eskakizuna onartuko didazutelakoan,

Donostian, 2004ko apirilak 14an

Handik hiru hilabetera, erantzunik ez zuenez JASO, irailaren 17an ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEARA deitu zuen eta hau izan zen erantzuna, ETZUTELA ERREKURTSOA HARTU BERTAN!

Ez sinestekoa da, nik behintzat ez dut sinesten hori egia zenik, nahiago izan zuten ez kasurik egin eta ea ahazten zen eta horrela ez zuten gezur edo "legezko tranparik" egin beharrik gaitzetsitzeko Amalaren errekurtsoa.

Barkapena eskatuz aurreko hutsegiteagatik eta oraingoan nire eskakizuna onartuko didazutelakoan,

Donostian, 2004ko apirilak 14an

Arzelus ta Arrieta 'tar Amalek



Horra hor apirilean 14an bidalitako errekurtsoaren sarrerako zigilua.

Baina Amale ez zen geldituko eta errekurtsoa berregitera BEHARTUA izan zen:

....

1º.- Joan den 17an, Gasteizko ADMISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEAra deitu eta han ez zela hartu ERREKURTSOA esan zidaten eta Donostiako bulegotan galdegingo zuela adierazi zidaten.

2º.- Ondoren Deitu zidaten ERREKURTSOA nonbait galdu zela eta berriro jarri behar dudala esanaz.

3º.- Hortaz, berriro, 2004ko apirilak 14an jarritako ERREKURTSOAREN kopia doa orri honekin. Baita ere, honekin dijoan argazki-kopiaren, bidez 2004go ERREKURTSO hau Apirilan jarrita dagoela egiaztatu dezakezue.

4º.- Oraingoan bere eskaera onartuko delakoan,

Donostian, 2004ko irailak 20an

Susmo txarra!

Ordurako ba zirudien ez zutela oso gogokoa Amalaren errekurtsua, eta geroztik gertatutakoak horrelaxe izan zela egiaztatzen zigun, hauek gaizki egiten badute zerbait ez dute inola ere onartuko, horrela dira gure politikari eta "administratzaileak", baina ez zuen orain hauen zekenkeriaren aurrean amore emango ere. Berriro bidali zuen errekurtsua irailaren 20an.

Ez zuten asko ikertu behar izan Amalaren arrazoiak, berak badituzte "legeak" berari komeni zaiena aurrera eramateko, legeak ez dira inoiz izan herritarrak laguntzeko, agintariak nahi dutena egiteko baizik eta horrela dio legeak:

«Errekurtsuak ebazterakoan ez dira kontuan hartuko errekurtsu-egileak, **aukera izanda**, alegazioen izapidean aurkeztu ez dituen egitate, agiri eta alegazioak»

«**aukera izanda**» dio lege horrek, eta ze **aukera** eman zitzaion Amaleri lekukoak esandakoa beraren aurkakoa zela ikusi zutenean ikertzaileak? Ez zuten ikertzaileak pentsatu ere nahasketaren bat izan zitekeela bai lekukoaren aldetik edota Amalaren aldetik lekuko hori izendatzeko orduan. Ez zioten argipenik eskatu beraz "errekurtsu-egileak, **aukera izanda**," ez du zentsurik kasu honetan, ez da egia, **ez zuen aukerarik izan** egindako akatsa zuzentzeko.

Honela iritsi zen erabakia:

Beraz, Amale ARZELUS ARRIETA andreak aitortzen du eskabidean proposatutako lekukoak ez zirela egokiak, eta eskatzen ditu lekuko gehiagorekiko elkarrizketak, horien izenak eta datuak errekurtsuan emanez.

Bigarrena.- 30/1992 Administrazio eta Prozedura Legearen 112.1 artikulua bigarren paragrafoaren arabera:

"Errekurtsuak ebazterakoan ez dira kontuan hartuko errekurtsu-egileak, aukera izanda, alegazioen izapidean aurkeztu ez dituen egitate, agiri eta alegazioak".

Kasu honetan, 2003ko abuztuaren 13an aurkeztutako eskabidean proposatutako aitopenak Aycart familiakoak ziren, soil-soilik. Ezin dugu, beraz, gorako errekurtsu honetan, lekuko gehiagorik onartu, aurreko artikulua debekatzeko baitu.

Beraz, esandako legeria eta aplikagarri gerta daitezkeen beste gainontzeko xedapenak aztertu ondoren, eta eman dizkidaten eskurantzak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Amale ARZELUS ARRIETA andreak 2004ko martxoaren 18ko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpenaren aurka ezarri zuen gorako errekurtsua ezezteko.

Garbi ikusi daiteke hauen "maltzurkeria" eta "gaizki-egin" nahia:

Lehendabizi, berak, hau da, politikariak, inola ere egin ahalko lituzketen gauzak eskatzea andereño hauei.

Ikastola hauetan urte gehienak lan egin zituztenak 1950eko hamarkadan hasitakoak ziren, Amalek 79 urte zituen 2003an hau dena prestatu behar izan zuenean eta, esan bezala, 55 urte atzerako datak gogoratu behar izan zituen, ikasleen izen abizenak, zer urteetan haritu ziren ikastolan, beren gurasoen izenak ere etab., gero haiekin nola ala harremanetan jarri eta berari eskatu lekukotza lanak egiteko prest izango ziren ala ez. Hau irakurtzen duen edonork egin ahal izango al luke horrelakorik? Ez dut uste! Akaso gaur egun internet eta sare sozialen bidez nahiko erraza dirudi, baina 2003an ez zen oraindik ohikoa horrelako tresnarik.

Honetan harro zegoen Amale, aurkitutako guztiak prest izan ziren lekukotza emateko dudarik gabe.

Baina «Eusko Jaurilaritzak» Amalek eta bestak sei hilabete egin zutena eskertu eta, behar izanez gero laguntza ematea izan beharko zuen haien eginbeharra, baina horren orde, akats bat izateagatik «**zigortzea**» izan zen hartu zuten erabakia, Amaleri behintzat "**zigorrak**" 9.000 euroko galera suposatu zion, bai **BEDERATZI MILA EURO**, lekukoa nahastu izana gaitik. Aurrerago ikusi ahalko duzue beste lekukoak esaten zutena.

Errekurtsoan ikusi daitekeenez lekuko bat ez zen aproposa izan, Amalek berak errekurtsioan dionez, garai hartan «hiru eratako ikaskuntzak ematen zituen», ez lege honen bidez «saritzen» direnak bakarrik, gainera helduei eta euskara ez zekiten beste haur batzuei ematen zizkien klaseak. Ez zen ohartu orduan lekukotzarako proposatutako Aikart sendikoak hirugarren multzo honetan zirenik, kontuan izan behar da ordutik 35 urtetik gora pasata zirela.

Nik eta nire anai arrebak ondo dakigu zer izan zen gure etxea, ez garai hartan bakarrik, baizik bizi guztian. Jaiotzez denok, 9ok, IKASTOLAN jaio ginen. Eta bizi guztian bizitu izan gera gure Amaren ikasketarekin, ordu guztietan ba zuen ikaslerik etxean (edo ikastolan, ez dakit zer zen gehiago...). Garai hartan 1965-1968 bitartean ere dudarik gabe, eta orain ba ditugu lekuko pila bat hori ziurtatzen dutenak.²

Berak ere ba zituen beste paperen batzuek hori baieztatzeko baina sei hilabete horietan, ziurrena, ez zuen aurkituko edota ez zen gogoratuko ere, nik orain aurkitu dudana 1987ko "inspekzioaren" agiria, hau da:



Hau izan zen azkeneko inspekzioa, baina ez zen hau 20 urteetan izandako bakarra noski, hauek ohikoak izan ziren ikastolak iraun zuten garai osoan, gerostik 1968 tik aurrera ez zuen jarraitu, ikastola "klandestinoaren" bukaera izan zenez eta ordutik legezko ikastolak jarraitu zuten hauek egindako lan gogor ura.

Ba ditugu ere argazki asko Amale bere ahurrak baserritar jantzita Gabonetan edota ikastaro bukaeratan Kolon pasealekuko ikastolan eta Katalunia plazan garai hartan.



Kolon pasealekuko ikastolan



Katalunia plazan

² Nik, Jonan Zinkunegik

Guzti honen ondoren, bide bakar bat gelditzen zen: **Administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa.**

Honaino bere kabuz egin izan zituen paper guztiak, ez zuen abokaturik ez horrelakoaren laguntzarik eskatu, baina beste errekurtsu hau egiteko beharrezkoa zen abokatu eta prokuradorea.

Baina ez zen kikildu orain ere, berak arrazoia zuela ez zuen zalantzarik eta ba zuen itxaropenik, noizbait norbaitek onartuko zuela nolabait bere arrazoia eta aurrera jarraitu zuen, beti bezala...

Horretarako Lide Zabala prokuradorearekin harremanetan jarri zen eta bere bidez Beatriz Ilardia abokatuarekin eta hauek hartu zuten bere eskuetan kasua.

Esan beharra da berari esker Amalek aurrera jarraitu zuela, naiz eta bera Bilbora sarritan etorri behar izan (Lide eta Beatriz Bilbon bizi eta lan egiten zutenez) prozesu guztia handik eraman zuten eta gaineratu behar da dohainik egin zutela lan guztia ez zutenez irabazterik izan naiz eta arrazoi guztia izan horretarako, legeak, lehen esan dudak bezala, agintariak irabazteko eginak dira eta legeak ez dutenean balio, epaileak dituzte berak nahi duten eran epaitzeko eta, gezurren bidez behar bada ere, agintariek irabazi arazteko.

Ez zen bide erraza izan hau ere, lehendabizi Gasteizera "Administrazioarekiko auzibidea" delako epaitegira joan behar izan zuten, Amale eta lekukoren bat, abokatu eta bere seme albaren batzuek ere, baina han erabaki zutenez kasuak beste bide batetik jarraitu behar zuela eta horrela, **Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari** zuzendu behar izan zen errekurtsua.

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO
ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIETAKO SALARI

Prozedura arrunta. 878/05-2 zk.

LIDE ZABALA SALEGI and., auzitegietako prokuradorea, **AMALE ARZELUS ARRIETA** and.aren izenean eta ordezkartzan autoetan egiaztatuata agertzen den bezala. Errekurtsoa Amale Arzelus Arrietak jarri zuen, **2.004ko urriaren 6an Administrazioak emandako Aginduaren aurka - 2004ko martxoaren 18an ebatzitako erresoluzioaren kontra tarteratutako gora jotzeko errekurtsua desestimatzan zen** - Salaren aurrean agertzen naiz, eta, Zuzenbidean bidezkoen den moduan, DIOT:

2.006ko otsailaren 17ko probidentzian egin zaidan helarazpenari erantzunez, eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 64 art.ekin bat, konklusio hauek aurkezten ditut:

Azken errekurtsuaren hasiera

Horretarako aurrez proposatutako lekuko berriari aitortpena eskatu zitzaie, berak Donostiako auzitegira joan behar izan zuten eta bertan, bai bere abokatuak eta baita «jaurlaritzako abokatuak» prestatutako galderei erantzun behar izan zieten.

Lekuko berriak hauek ziren:

ACTUACIONES QUE SE INTERESAN

Que se lleve a efecto conforme a lo dispuesto en el artículo 365 y siguientes de la Ley 1/2000, de Enjuiciamiento Civil (LECn) la declaración del/de los testigo/s siguiente/s:

- D^a SOL ARZUBIALDE TELLO C/ PLZA. DEPORTE N° 1, 2° C - 20009 DONOSTIA
- D^a MONICA ARZUBIALDE TELLO C/ ISIDRO ANSORENA N° 47 - 20018 DONOSTIA
- D. GUILLERMO ARZUBIALDE TELLO C/ TEÑA Y GOÑI N° 16 - 200002 DONOSTIA
- D. ANTONIO JAUREGI BALENZIAGA C/ PASEO COLON N° 6 PPAL. - 20002 DONOSTIA
- D^a IZASKUN ELIZAZU URKIJO C/ PELLO M^a OTAÑO N° 4, 4° IZDA - 20015 DONOSTIA
- D. KOLDOBIKA ELIZAZU URKIJO C/ P° DE MONS N° 104, B.DCHA. - 20015 DONOSTIA



-1-

Galderak hauek izan ziren:

Administrazioaren partez:

1. ¿Le solicitó la demandante autorización para dar el nombre en el procedimiento administrativo del que trae causa este juicio o la firma de algún documento durante el tiempo que duró el expediente administrativo?. ¿porqué no acudió usted como testigo a la prueba testifical en la audiencia celebrada en el contencioso administrativo 2 de Vitoria-Gasteiz?
2. ¿Cuántos años tenía usted cuando acudía a las clases impartidas por Amale...?
3. ¿Durante los años 1965-1968 estudiaba usted exclusivamente con doña Amale... o simultaneaba las clases con las impartidas en otro centro docente?
4. ¿Cuántas horas diarias estudiaba usted con Doña Amale...?
5. Si le consta que Doña Amale... impartiera clases de ikastola de duración similar a la que se tenía en otros centros de enseñanza de la época. ¿Podría identificar a las personas a las que impartía dichas clases?

Amalaren abokatuen partez:

1. Si por parte del departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco le ha sido tomada declaración en lo que respecta a su asistencia a la ikastola de la andereño Amale...
2. Si usted acudía a la Ikastola de Amale... en el periodo de 1965-1968
3. Si era una enseñanza lectiva de duración similar a la que se tenía en otros centros de enseñanza de la época.
4. Si le consta que Amale... impartiera clases de ikastola similar a la que se tenía en otros centros de enseñanza de la época, aparte de las clases particulares de euskera que pudiera impartir a los niños más mayores provenientes de otros centros.

Ez dakit nori bururatu diezaioken horrelako galderak egitea, 40 urte inguru dituen pertsona bateri berak 5 urte edo gutxiago zituztenean ikastolan gertatutako gauzei buruz, zenbat ordu izaten ziren klasean, zenbat ume zeuden, beste ikastetxe batzuetan ematen zituztenen antzeko orduak ziren etab. Nire ulermenean ez dute zentzurik... Ez dut uste inor adin horietan gauza horien jabe izan daitekeenik...

Baina ala eta guztiz ere erantzunak nire ustez nahiko garbiak dira gogoratzen dutenen kasuetan behintzat, garbi ikusten da Amalek klaseak ematen zituela, zehazki zenbat ordu ziren ezin dira oroitu inor, batzuek goiz eta arratsalde joaten zirela gogoratzen dira, beste batzuek goizez eta arratsalde... espero zen bezala ezin dira oroitu garbi ikastolara joaten zirela izan ezik.

Ni ere ezin naiz gogoratu adin horietan zenbat ordu pasatzen nituen nire izeba Itziaren ikastolan eta orain ditudanak argazkien bidez iritsi zaizkidan "oroitzapenak" direla uste dut, bene-benetan garaiko oroitzapen zehatzik ez dut.

Lekukoen erantzunaren bilduma honetan, garrantzizko galderaren erantzunak bildu ditut, bertan garbi ikusi daiteke Amalek ikastola eman zietela, nik behintzat ez dut zalantzarik.

Lekukoa	2-Cuantos años tenía	3-¿Durante los años 1965-68	4-¿Cuántas horas diarias	2-Si usted acudia 1965-68	3-Si era una enseñanza lectiva	4-Si le consta que Amale... imp
Miren Labaka Arruabarrena	4 años	si	no sabe, mañana y tarde	es cierto	es cierto	Mañana y tarde-desconoce
Sol Arzubialde Tello	hasta los 6 años	Hasta los 6 años solo con Amale	Toda la mañana segura (no rec horario)	1963- 1966	es cierto	Mañana y algunas tardes
Monica Arzubialde Tello	de 2 a 6 años	1963-67 solo con Amale	Mañana y tarde (no rec horario)	1963-1967	es cierto	si y no sabe
Guillermo Arzubialde Tello	3 a 6 años	si- solo con Amale	Mañanas y algunas tardes	es cierto	recuerda que le daban clases de todo	mañana y tarde-desconoce
Antonio Jauregi Balenziaga	5 años 6 y 7	con ella solamente	3 o 4, no se acuerda	sí, años 1966-67-68 seguro	que figura que si era similar	No sabe
Izaskun Elizazu Urkijo	6 a 8 años, con 9 se fue a monjas	con ella solamente+partic de francés	Mañana y tarde (no rec horario)	es cierto	mañana y tarde	aprendió a leer y escribir allí
Koldobika Elizazu Urkijo	entre 5 y 8 años	exclusivamente con ella	no recuerda	es cierto	es cierto	es cierto y no sabe

Baina garbi dago, lan hauek guztiak hartu eta gero, azken erabakia berriro prestatuta zeukatela eta ez dute lotsarik gezurrak erabiltzeko beren azken ERABAKIAN.

Kasu honetan eta orain arte erakutsi ditudan datuen arabera garbi ikusi daiteke sententziaren laburpen honetan:

TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAIS VASCO
SALA DE LO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO
RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO Nº 878/05
DE Ordinario Ley 98
SENTENCIA NUMERO 636/2006

ILMOS. SRES.
PRESIDENTE:
DOÑA ANA ISABEL RODRIGO LANDAZABAL

MAGISTRADOS:
DON ÁNGEL RUIZ RUIZ
DON LUIS ÁNGEL GARRIDO BENGOTXEA

En BILBAO, a dieciocho de septiembre de dos mil seis.

SEGUNDO.- Que la resolución objeto de impugnación en el presente recurso procede a conceder a la recurrente un compensación por haber ejercido como docente en euskera entre los años 1948-49 y 1964-65, cuantificándose en la suma de 50.010 euros. Sin embargo, no se concede cantidad alguna por el periodo 1965/66 y 1967/68 al entender que no se cumplían los requisitos exigidos; en concreto, teniendo en cuenta que D. José María Aycart Orbeagoz declaró en el expediente administrativo que sus dos hijos iban al Colegio Francés y estudiaban euskera con la actora una o dos horas diarias, en momentos libres, como complemento de los estudios generales. Por consiguiente, el período litigioso es el correspondiente a 1965/1966 y a 1967/68. En la demanda se alega que el art. 2 de la Ley 3/2002 señala que con beneficiarios de la compensación económica establecida en la misma quienes acrediten haber impartido enseñanza en euskera en los niveles de educación preescolar, primaria o secundaria, desarrollando la actividad docente con una duración similar a la de los periodos lectivos en la enseñanza oficial; y el art. 6.2 a) del Decreto 99/2003 establece como prueba suficiente de ello la declaración de dos testigos que son alumnos/as, padres, madres o tutores de los mismos.

Se sostiene en la demanda que hay testigos que corroboran el cumplimiento de los requisitos exigidos en el art. 2 de la Ley 3/2002 respecto del período litigioso.

TERCERO.- Que en autos se han practicado pruebas testificales en las que los testigos declaran que estudiaban varias horas al día euskera con la recurrente, en general, unas 3 horas; algunos testigos dicen que 4 horas y el Sr. Aycart declaró en vía administrativa que eran 2 horas.

Lo cierto es que en ninguno de los casos se trata del tiempo necesario para considerar que se trata de la duración ordinaria de la jornada lectiva con lo que, estrictamente, nos encontramos ante un no cumplimiento del requisito establecido en el art. 2 de la Ley 3/2002.

Berriro Aykart jaunaren lekukotza ontzat hartzen dute, nahiz eta Amalek garbi adierazi errekurtsioan ez zuela baliorik hark esandakoa ikastolako lanak baieztatzeko, orduan bere alabak ez zirelako «Ikastolara» joan, baizik beste "Euskara ikasteko taldeko" klaseetara bakarrik, beraz, berak esandakoa egia zen, 2 ordu bakarrik joaten zirela beste eskola frantsesera joan eta gero. Horrek esana garbi gelditzen da errekurtsioan ez zuela balio kasurako eta egindakoa frogatzeko beste lekukoek esandakoak zirela onartu beharrezkoak, ez Aikart jaunarenak.

Garbi esaten du errekurtsioan, haien izena lekukoen artean jartzea «bere akatsa» izan zela ez zelako momentu hartan ohartu horretaz. Ezta zaila hori ulertzea, nahi izanez gero, gogoan izan 35 urtetik gora pasa ondoren «nahasketa txiki hori» izatea lekukoen zerrenda egin zuenean, gainera kontuan izanik dena prestatzeko eman zieten denbora exkaxa, 6 hilabete bakarrik.

Baina ez zioten akats hori inola ere «barkatu» azkeneraino. Aykart jaunak bere laguntza eman nahi izan zuen eta "ikertzaileek" Amalaren onerako erabili beharrean, bere aurka erabili zuten prozesu guztian Amaleri INOIZ bere nahasketa zuzentzeko ahalmenik eman gabe.

Hori da "ikertzaile" haiek ulertu zutena eta beren saiakera: Amale bera nahastu izana, **bera ZIGORTZEKO erabili zuten**. Hau al zen legearen intentzioa "**Diru-ordaina hartzeko eskubidea aitortzen zaiete...**" esaten zutenean?

Zer esanik ez Aykart sendian hau jakin zutenean hartu zuten bihozmina! Lagundu nahi izanez beren lekukotza Amalaren aurka erabiltzea! Ezin izan zuten inola ulertu ere.

Gainera beste lekukoek esandakoa ere zeharo azpizokoz erabilita eta esan ez zirenak esanda iristen dira beren ERABAKIRA, GEZURRETAN OINARRITUTA, hor ikusi daiteke hirugarren puntuan:

TERCERO.- Que en autos se han practicado pruebas testificales en las que los testigos declaran que estudiaban varias horas al día euskera con la recurrente, en general, unas 3 horas; algunos testigos dicen que 4 horas y el Sr. Aycart declaró en vía administrativa que eran 2 horas.

Lo cierto es que en ninguno de los casos se trata del tiempo necesario para considerar que se trata de la duración ordinaria de la jornada lectiva con lo que, estrictamente, nos encontramos ante un no cumplimiento del requisito establecido en el art. 2 de la Ley 3/2002.

Nik ditunan prozesuko agirietan agertzen dena ikertu ondoren ziurtatu dezaket (eta frogatu ere beharrez gero) zalantzarik gabe lekukoak etzutela sekula hor agertzen dena esan, **«que estudiaban varias horas al día euskera... unas 3 horas; algunos dicen que cuatro horas»**

Gezur hutsa, batek bakarrik aipatzen ditu orduak, Antoniok, eta onek 3 edo 4 esaten du, beste guztiak orduak ez dituztela gogoratzen esaten dute eta gehienak goizez eta arratsalde joaten zirela gogoratzen dira, haietako bik goizez eta arratsalde «batzuetan» esaten dute, beraz **“unas tres horas; algunos dicen que 4 horas”** gezur hutsa da. Antonio ezik besteak ez dira oroitzen eta Antoniok hori gogoratzea, 5 etik 7 urte zituen garaikoa, sinesgaitza izan daiteke ere.

Eta **“que estudiaban varias horas al día euskera”** ere gezur hutsa da, **berak asmatzen dute**. Lekukoak argi eta garbi adierazten dute “denetarik” ikasten zutela, Izaskunek adibidez zehazki esan zuen berak idazten eta irakurtzen han ikasi zuela. Inork ez zuen beren deklarazioetan dudarik egin IKASTOLA ra joaten zirenik, garbi esaten zuten hori naiz eta galderak “traketsak” izan, “capciosas” erdararaz esaten den moduan eta esan bezala, haien adinak kontuan izanda gogora ezinak zirela orduak eta beste datuak argi dago, ea nor gogoratu daiteken adin horiekin **«Si le consta que Doña Amale... impartiera clases de ikastoka de duración similar a la que se tenía en otros centros de enseñanza de la época.»** Honetaz ezin da inor jabetu adin horietan. Denak baieztatzen dute

zehazki urte haietan 1965 etik 1968 artean, batek, Monikak, 1967 arte bakarrik zehazten du, Amalaren ikastolara joan izan zirela eta ez beste inora.

Eta azkeneko esan-aldia: «**Lo cierto es que en ninguno de los casos se trata del tiempo necesario para considerar que se trata de la duración ordinaria de la jornada lectiva...**»k ez dauka zentzurik lekukoak esandakoa kontuan izanik, dena berak **MANIPULATUTAKO** deklarazioetan oinarritzen denez.

Gainera kontuan izan beharko litzake ere lekukoak garai hartan zituzten adinak, 2 urtetik 8 urtetara zituzten eta adin horietako oroimenak ez dira oso garbiak izaten inorengan, beraz **haiek esana, beren sententzian diotena egia balitz ere**, haiena onartzea Amalek egindako lana gutxietsitzeko lotsagarria izango litzake edozein kasutan.

Bestalde zera galdetuko nieke “epaile” hauei: Zergatik utzi zuen Amalek IKASTOLA emateari 65-68ean eta beste erakusketa mota batekoak eman? Ze arrazoi izan zuen horretarako?

Saria emateko orde z lekukotza hau frankistek erabili ahal izan balute, ziur nago beraren aurka erabiliko luketela, baina alderantziz erabilia noski, «IKASTOLA ZELA ESANGO LUKETE»...

Nahikoa borrokatu behar izaten zuten haiekin, azkeneko «inspekzioa 1967 izan zuenean.



«Gara»n berak kontatzen zigun 2003ko omenaldiko egunean egindako elkarrizketan frankista haien aurrean esan behar izaten zutena:

Malen ARZELUS | Donostian andereño izandakoa

«Inspektorea etortzen zenean, hura ez zela ikastola esaten nion badaezpada»

Andereño Amalen esaten zioten berekin eskolan ibilitako haurrek. Gaur egun 79 urte ditu eta, garai hartatik urte dezente pasatu arren, sekula ez ahazteko moduko gariak direla dio, pozik eta oso hunkituta.

-Non aritu zinen eskolak ematen eta noiz?
Donostian; lehendabizi Parte Zaharrean, San Jeronimo kalean, eta gero Grosen. 1949an hasi nintzen eskolak ematen, Elvirarekin batera.

-Gogoan al dituzu garai hulek?
Gauza horiek ez dira sekula ahazten. Donostiako lehendabiziko ikastolan hasi nintzen. Hamar haur nituen goizean, eta beste hamar arratsaldean, bi taldetan banatuta, gainera. Guztira lau talde nituen, eta pisu batean ematen genuen eskola.

-Garai txarrak pasatutakoa izango zara.
Bai, garai txarrak izan ziren. Nahi ez zutelako ez zituzten itxi ikastolak, bagenekien

arrisku hori beti hor zegoela. Inspektoreak etortzen zirenean, ezer galdetuz gero, euskara irakasten ari nintzela esatzen nien, hura ez zela ikastola. Haurrei klase partikularrak ematen ari nintzela esaten nien segituan, badaezpada ere.

-Ondo irabazitako omenaldia da gaurkoa.
Poza handia ematen dute hala-koek. Gustura etorri naiz. Gainera, gaur egun hainbeste ikastola daudela ikusteak ere oso zorionsu egiten nau.



Juan Carlos REIZ | ANGADO PRESS

-Egun, ikastolen kontrakoak ere badira.
Ordukoak baino garai txarragoak etor daitezkeela pentsatzeak beldurto egiten nau. •

A.M.

Orduan “gezur” honek balio izan zion frankisten aurrean isunik ez izateko baina orain, 2006an, EUSKO JAURLARITZAK edota beren morroiak Amale zigortzeko erabiltzeko balio izan diote eta 9.000 € ko “isuna” ordaindu behar izan zuten.

Garbi gelditu da Eusko Jaurlaritzako ikerleak espainol gobernuko ikertzaileak baina “kaxkarragoak” behintzat ba direla, haiek garbi zeukaten Amalek “ikastola” ematen zuela baina “bere gezurrak” ontzat artzen zituzten, itxuraz beren intentzioa trabak eta beldurra ezartzea zen gehien bat eta hori lortzen zuten, baina Eusko Jaurlaritzako ikerleak ez zuten ezer ikertu nahi izan, ez Amale laguntzeko behintzat. Berari ahalik eta kalte handiena egiten saiatu ziren eta baita lortu ere.

Erabaki honekin Amaleri egin zenioten mina ez duzue inoiz jakingo, ez 9.000 euroen gaitik, min gehiago eman zion berak 1965 etik 1968arte egindako lana ez onartzeak. Kontuan izatekoa da ere bere azkeneko alaba, 9 garrena 1964an izan zuela eta 1966an abortu bat ere izan zuela, baina ala ere sekula ez zuen ikastola emateari utzi, beraz seme-alabak haztea eta ikastaroak batera eman zituen ia 20 urte guztietan eta azken hiru urte haietan seme alaba gehienak kokortuak ginenez, denbora ateratzen zuen hiru maila ezberdinetan euskara irakasteko... Goizeko 8retako hasten zen ikasketak ematen, lehendabizi «adinekoei», gero 10etatik eguerdira eta arratsaldean Umeen ikastola, 2 urtetik 8 urterako umeak zituen, ez dakigu zenbat izaten ziren urte bakoitzean baina argazkietan ikusi daitekeenez 20 inguru agertzen dira eta gainera hirugarren klase bat ere ematen zuten euskara utzik 2 bat ordu ezer ez zekiten beste batzuei (talde honetan ziren Aykart sendiko ahurrak). Eta gainera «etxeakoandrea» izan zen bizi guztian... ez dakit nola egin zezaken guztia...

Eta orain **epaile ustel** hauek eta **Eusko Jaurlaritzako arduradunak** hau dena gezurtatzen dute, nahastutako lekuko batek esandakoa zikoitz erabiliz, beste lekuko guztiak esandakoa «manipulatuaz»... Lotsagarria eta penagarria.

Benetan oso minduta utzi zenuten gure Amale eta ez zuten horrelakorik inola ere merezi berak egindako lan guztien ondorioz. EUSKO JAURLARITZAK eskertu beharrean ISUNA SARTU ZION!

Azken epaileari, Isabel Rodrigo Landazabal, Angel Ruiz Ruiz, Luis Angel Garrido Bengotxeari ez diet ezer onik desio, Amaleri egin zioten min guztia berak ere jaso dezatela gutxienez, gezurtti hutsak direnez hemen esaten diet pentsatzen dudana, USTELAK ZARETE! Hau bera desio diet «ikertzaile» eta «jaurlaritzako» arduradun guztieri.

Bestalde gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Amalaren alde dihardu ziren guztiei, Prokuradore Lide Zabala Salegiri lehendabizi, Beatriz Ildia euskal-abokatuari, berak egin zuten lan guztiagatik (musu-truk) eta lekuko izan ziren guztiei; Aykart Jaun-Andreari, biok saiatu ziren Amalaren alde lekukotzan naiz eta haien esanak epaileen «ulermenean» dena Amalaren aurka ulertu izan, berak jaso zuten bihozmina ez zuten merezi izan ere, Miren Labaka Arruabarrena, Monika eta Sol Arzubialde Tello, Guillermo Arzubialde Tello, Antonio Jauregi Balenziaga, Izaskun eta Koldobika Elizazu Urkijori.

Bukatzeko, atsegingo litzaidake hau ordungo agintariei eta ardura izan zutenei, Juan José Ibarretxe jaunari, Anjeles Iztuetari, edota Ikerle, epaile eta abokatuari adibidez, noizbait iristen ba zaie, hartu dezaten denbora pixka bat pentsatzeko orduan Amaleri egin zioten mina!

AMALE, ETZENUEN SEKULA MEREZI IZAN HAUEK EGIN ZIZUTEN MESPRETZUA!!!

2006AN EZIN IZAN GENUEN GEHIAGO BORROKATU ETA GALDU GENUEN «EPAITEGI MALTZUR» HAIETAN BAINA ZUK EGINDAKOA, HAIEK EZ ONARTZEAK, BEREN ZIKOIZKERIAREN AGERPENA BAKARRIK IZAN ZEN.

GURE BIHOTZETAN DAUKAGU ZUK EMANDAKO GUZTIAREN OROIMENA ETA HEMENDIK APROBETXATZEN DUT HAU DENA EGIN ZIZUTENAK MADARIKATZEKO, NIRE AMORRU OSOAZ!